Ikastaroek arrakasta eta errentagarritasun akademiko eta ekonomiko handia izan zutela eta, deialdia Lehen Hezkuntzako ikasleengana zabaltzea erabaki zen. Hori berria eta erronka izan da eta, 2003ko udan antolatutako ikastaroak ebaluatu ondoren, adin planteamendu honekin jarraitzea bultzatu gaitu. Hala ere, Lehen Hezkuntzan ezin da inor espediente akademikoaren arabera hautatu.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ordaindu behar duen prezioa 330 eurokoa da eta Departamentuak ostatua, janaria eta multimedia gela finantzatzen ditu.

Ikastarootako funtsezko alderdia hizkuntzak egoitza bietan instalatu den gelan teknologia berrien eta Interneten bitartez ikastea izan da. Ingelesarekiko 15 eguneko kontaktuak ikasleei eraginen die.

Ikastaroen jarraipena eta ebaluazioa "in situ" bisiten eta ikasleei eta ikastaroa adjudikatu zaion enpresari eman zaien ebaluaziorako galdera-sortaren bitartez egin da. Emaitzak oso onak dira, bai hizkuntza ikasteari bai esperientziari eta, orokorrean, elkarbizitzari dagokienean.

Erkapen-taula:

2000	2001	2002	2003
150 ikasle parte-hartzaile	197 ikasle parte-hartzaile	360 ikasle parte-hartzaile	490 ikasle orotara
Aurrekontua: 8 milioi	Aurrekontua: 7 milioi	Aurrekontua: 120.000 €	Aurrekontua: 135.000 €
Hizkuntzak: frantsesa eta ingelesa	Hizkuntza: inglesa	Hizkuntza: inglesa	Hizkuntza: inglesa

Azken udako ikastaroak, bai Lehen Hezkuntzakoak (Altsasu) bai Bigarren Hezkuntzakoak (Irunberri) noormaltasunez garatu dira eta jendeari gogoia bete diote, ikasle parte-hartzaileek eta begiraleek egiten dituzten banakako ebaluaketetatik ondorioztatu denaren arabera. Departamentuak jarduera hori guztiz kontrolatzen du, berme osoz gara dadin.

Nafarroako Eskola Kontseiluak bigarren urtez jarraian egiaztatu duenez, EB-ko Estatuarekin ikasleak trukatzeko laguntzak ezabatu dira, nahiz eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle anitzendakoak izan. Horren ondorioz, kontseilu honen iritziz, berreskuratu egin behar da programa hau.

Nafarroako Eskola Kontseiluak oso ontzat jo ditu hizkuntzan murgiltzeko ikastarook eta berauetan parte ikasle gehiagok har dezaten eginiko ahaleginak. Alabaina, berak gomendatu duenez, ikastarootara sartzeko deialdian ikasleak ez dira beren espediente akademikoaren bitartez bakarrik hautatu behar, Lehen Hezkuntzako etapetan eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikoan bereziki.

2.7.7. Atzerritar hizkuntzen irakasleendako 2003ko udako laguntzak

30 laguntzatarako deialdia egin da.

Eskabideak orotara:	49
Ingeles-eskabideak orotara:	43
Frantses-eskabideak orotara:	5
Alemaniera-eskabideak orotara:	1
Ukoak orotara:	5
Erreserbako eskabideak orotara:	4
Bazterturiko eskabideak orotara:	10

16 zenbakiko koadroa					
Atzerritar hizkuntzen irakasleendako laguntzak, 1999 eta 2003 bitartekoak					
Irakasleak	1999	2000	2001	2002	2003
Lehen Hezkuntzako sare publikoa	dg	21	14	10	9
Lehen Hezkuntzako itunpeko sarea	dg	-	5	1	3
Bigarren Hezkuntzako sare publikoa	dg	32	32	19	16
Bigarren Hezkuntzako itunpeko sarea	dg	11	8	4	2
OROTARA	22	64	59	34	30

2.8. Irakaskuntza Artistikoak.

Irakaskuntza Artistikoei buruzko araudia
HSAGOLeko Musikaren Goi Maila nola ezarri arautu eta "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusia sortu duen martxoaren 27ko 7/2002 Foru Legea. (2002/04/8ko 43 zenbakiko :bon.a).
Iruñeko "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusiari Hezkuntza Sistemaren Antolakumendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Orokorrarekin bat etorriarik Musikaren Goi maila eman eta maila horretako espezialitateak ezartzeko baimena eman dion Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 17ko 109/2002 Foru Agindua. (2002/05/1eko 53 zenbakiko :bon.a).
2002/2003 ikasturterako "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusian Musika Maila Nagusiko irakaskuntzak emateaz arduratzen diren irakasleak izendatzeko prozedura ezarri duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 5eko 367/2002 Foru Aginduko okerren zuzenketak (2002/09/18ko 113 zenbakiko :bon.a).
Iruñeko titulartasun pribatuko "Kithara" Musika Eskola ireki eta ibiltzea baimendu duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abuztuaren 6ko 403/2002 Foru Agindua. (2002/09/14ko 114 zenbakiko :bon.a).
2002rako martxoaren 26ko 78/2002 Foru Aginduak onetsitako Udal Musika Eskolentzako Diru-laguntzetarako Deialdiko lehenengo banaketa ebatzi eta haiek ordaintzea baimendu duen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 12ko 642/2002 Ebazpena. (2002/09/23ko 115 zenbakiko :bon.a).
2002rako antzina oinarrizko kontserbatorioak ziren Udal Musika Eskolentzako Diru-laguntzetarako Deialdiko lehenengo banaketa ebatzi eta haiek ordaintzea baimendu duen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 12ko 643/2002 Ebazpena. (2002/09/23ko 115 zenbakiko :bon.a).
Nafarroako Foru Komunitatean musika-irakaskuntzen maila nagusiko curriculuma ezarri duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abuztuaren 27ko 423/2002 Foru Agindua. Nafarroako Foru Komunitatean musika-irakaskuntzen maila nagusiko curriculuma ezarri duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abuztuaren 27ko 423/2002 Foru Aginduko okerrak zuzentzea. (2002/10/10eko 123 zenbakiko :bon.a).
Azkoiengo Udal Musika Eskolaren baimena irakaskuntzak zabaltzearen aldarazi duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren irailaren 6ko 434/2002 Foru Agindua. (2002/10/9ko 122 zenbakiko :bon.a).
2002/2003 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Irakaskuntza Artistikoen Ikastetxeak antolatzeko eta ibiltzeko era arautu duten jarraibideak onetsi dituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren irailaren 12ko 446/2002 Foru Agindua. (2002/11/1eko 132 zenbakiko :bon.a).
Ribaforadako "Teodoro Gascón" Udal Musika Eskolaren baimena irakaskuntzak zabaltzearen aldarazi duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren irailaren 18ko 452/2002 Foru Agindua. (2002/11/4ko 133 zenbakiko :bon.a).
Musika ikasketa arautuetara sartzeko probak prestatzeko programak ezartzeko udal Musika Eskolentzako Diru-laguntzetarako Deialdia onetsi duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren irailaren 24ko 455/2002 Foru Agindua. (2002/10/25ko 129 zenbakiko :bon.a).
Ablitasko Udal Musika Eskolaren baimena irakaskuntzak zabaltzearen aldarazi duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 30eko 501/2002 Foru Agindua. (2002/12/13ko 150 zenbakiko :bon.a).
San Adriángo Udal Musika Eskolaren baimena irakaskuntzak zabaltzearen aldarazi duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 14ko 124/2003 Foru Agindua. (2003/5/7ko 57 zenbakiko :bon.a).
2003-2004 ikasturterako "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusian musika-irakaskuntzen goi mailara sartzeko probetarako deialdia egin duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 2ko 155/2003 Foru Agindua. (2003/05/9ko 58 zenbakiko :bon.a).
2003rako antzina oinarrizko kontserbatorioak ziren Udal Musika Eskolentzako Deialdirakoak diren eta I. eranskinean ageri diren Oinarri Arautzaileak onetsi dituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 15eko 175/2003 Foru Agindua. (2003/04/7ko 57 zenbakiko :bon.a).
2003rako Udal Musika Eskolentzako Deialdirakoak dire Oinarri Arautzaileak onetsi dituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 15eko 175/2003 Foru Agindua. (2003/05/7ko 57 zenbakiko :bon.a).
Nafarroako Foru Komunitateko Musika-irakaskuntzen goi mailako curriculumeko irakasgaien eta Musika-irakaskuntzen goi mailako curriculumaren oinarrizko alderdiak ezarri dituen apirilaren 21eko 617/1995 Errege Dekretuan ezarritako gaien arteko elkarrekotasuna agerrarazi duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 19ko 262/2003 Foru Agindua.

2.8.1. Nafarroan musika-irakaskuntzak hobetzeko plana.

Musika-irakaskuntzen gaineko ekintzari koherentzia eta zabaltasuna emateko asmoz, 1999an plan globala diseinatu zen, Nafarroako bai araubide orokorreko bai araubide bereziko musika-irakaskuntzen egoera aztertu eta hobetzeko.

Lehenengo fasean estatistika-datu egokiak jaso eta antolatu ziren, bai CAAen bai Estatistika Unitatearen ohiko inkesten bitartez. Estatistika-azterlana idatzi zen, musikaren eskola-mapa egiteko oinarri izango zena, hezkuntza-politika egokia diseinatzeko eta etengabe ebaluatzeko mekanismo bizkorragoak ezartzeko ezinbesteko tresna.

Bigarren fasean batzordea abiarazi zen, araubide orokorreko lau musika-irakaslek, araubide bereziko irakaskuntza arautuetako batek, araubide bereziko irakaskuntza arautugabeetako bik, eta Musika Irakaskuntzen Unitate Teknikoaren ordezkari batek osaturik zegoela. Unitate horrek aztertu zuen alderdi guztien egoera, bai estatistika-azterketaren bitartez bai bere esperientzia pertsonalen eta bere lagunengandik jasotzen zituzten testigantza eta ekarpenen bitartez, eta hobetzeko ekintzak proposatu zituen. Hobetzeko proposaturiko ekintzotariko batzuk, legeei buruzkoak, progresiboki burutzen joan ziren.

Musika Irakaskuntzei buruzko “Musika Eskolen eginkizuna” izenburuko lehenengo Jardunaldiak 2001eko ekainean egin ziren, Musika Eskolei eskainita. Bertan hitzaldi eta jakinarazpen programa garatu zen eta Musika Eskola eta Kontserbatorioen hezkuntza-erkidegoko anitzek hartu zuten parte. Jardunaldion helburua doazkigun gaien buruz hausnar egin eta hitz egitea sustatzea zen, eta proiektuak, koordinazioak, eztabaidak eta abar ekartzeko ziren harreman pertsonaletarako bideak aktibatzea. Musika-hezkuntzaren hainbat arlotako nazioko eta nazioarteko adituek parte hartu zuten hizlari gisa. Nafarroako berrogei musika-eskolaren ehun eta hamar ordezkari jardunaldiotaratu ziren, bai irakasleak bai udal patronatu eta enpresen zuzendaria eta titularrak.

Parte-hartzaileak pozik geratu ziren bai edukiekin eta proposamenekin bai antolakuntzarekin. Inkestek islatu zuten, “Ongi” edo “Oso ongi” balorazioen indizea %80tik gorakoa izan zen.

2001eko ekainaren 22an bildu zen eta “NAFARROAKO GOBERNUARI MUSIKAREN GOI MAILA NOLA GARATU ARAUTZEKO ESKATU ZION EBAZPENA” onetsi zuen Nafarroako Foru Parlamentuaren Hezkuntza eta Kultura Batzordeak.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak “Pablo Sarasate” Kontserbatorioko Zuzendaritza Saileko bertako teknikariekin batera “Goi Maila bideratzen ahal izateko Plana” idatziko zuen Batzordean parte hartzea gonbidatu zuen. Bideragarritasun-plan horretan zehaztuta dago ikastegi ereduak; eta proposatuta, kontserbatorio berriaren perspektibak errazteko neurriak. 2001eko azaroaren 21ean bukatu zen eta Parlamentuari bidali zitzaion. Eta “Pablo Sarasate” Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusia sortzeko ForuLegea idazteko lehenengo arauak eman ziren.

Hobekuntza-planaren lehen helburua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako musika-irakaskuntzen egoera aztertzeari bigarren fase gisa ekitea izan zen. Alabaina, HSAGOL Goi Mailako ikasketak Nafarroan ezartzeari buruz egina zen eztabaidaren maila zela eta, sekuentzia aldatzea hobetsi zen. Horregatik, 2002ko apirilaren 20an izan zen “Musikako profesionalen prestakuntza”ri buruzko jardunaldia, araubide bereziko musika-irakaskuntza arautuaren egoera (kontserbatorioena) zehazten zuten arazo eta perspektibak, ardatz izan zituena. Aipatu Goi Mailaren gainean arreta berezia jarri zen. Egoki iritzi zitzaion problematika hau une zehatz honetan heltzeari. Izan ere, apur bat lehenago onetsi zuen Nafarroako Foru Parlamentuak Nafarroan HSAGOL Kontserbatorio Nagusia sortzeko Legea.

Jardunaldi horretan, Kontserbatorioko irakasle eta Nafarroako Musika Eskolen, NUPen eta jardunaldiko gaiarekin zerikusia handia zuten elkarrean eta lanbide sektoreen ordezkari anitzek hartu zuten parte, eta “Nafarroan Musikaren Goi Maila bideratzen ahal izateko Plana” aurkeztu zen. Halaber, kanpotiko ekarpen handiak izan genituen, Administrazioen eta ikastetxeen

ordezkariak. Gogobetetasunari buruzko inkestek islaturikoaren arabera, bertaratuek on edo oso ontzat hartu zuten jardunaldi hura.

Araubide orokorreko musika-irakaskuntzei eta, zehazki, Lehen Hezkuntzari zegokienez, 2002/2003 ikasturtean zehar, batzorde batek lan egin zuen. Batzorde hori Musika Irakaskuntzen Unitate Teknikoko buruak eta maisu-maistra adituek osatuta egon zen. Curriculum-proposamenak aztertu beharra zuen: Departamentuak HSAGOLEkin bat etorririk zehaztua eta Ministerioak IKLOrekin bat etorririk etorkizunean egiteko zuen proposamenaren zirriborroak, baita orduan musika-pedagogiaren munduan eztabaidatzen eta eztabaidatuko ziren aukera teorikoak eta praktikoak ere.

2.8.1.1. Goi Maila

1. 2618/1966 Dekretuak arauturiko ikasketen Goi Maila.

Irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuaren bitartez araututako "1966ko planaren indarraldia, HSAGOL baino lehenagoko irakaskuntzak iraungitzeko egutegiari buruzko Errege Dekretuen hainbat aldarazpenen ostean, 2000/2001 ikasturtearen amaieran amaitu zen, Maila Ertainari zegokienez; eta, 2001/2002 ikasturtearen amaieran, Nafarroan ezarritako Goi Mailako ikasketei zegokienez. Iraungitze-data bakoitzaren oste-osteko bi ikasturteetan, tituluak lortzeko aparteko probetarako deialdia egin behar zen. Uste izan zen ezen komenigarria zela probok prestatzeko bideren bat eustea, zertarako-eta ikasleei beren curriculumak hasi zituzteneko baldintzetan behar bezala burutzea errazteko. Horretarako, Aparteko Probak prestatzeko Programak antolatu ziren, 2001/2002, 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetara zabaldu beharrekoak. Programa horiek berrehun bat ikasleri heltzen diote.

- Nafarroako Foru Komunitatean irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuaren arabera Musikako Irakaslearen eta Goi Irakaslearen tituluak lortzeko aparteko probak prestatzeko programak arautu zituen Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 6ko 61/2001 FORU AGINDUA.
- Nafarroako Foru Komunitatean irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuaren arabera Musikako Irakaslearen eta Goi Irakaslearen tituluak lortzeko eta apirilaren 25eko 168/1991 Foru Dekretuan ezarritako plan esperimentalaren arabera hasiriko Dantza Klasikoko ikasketak burutzeko aparteko probak arautu zituen eta berauetarako deialdia egin zuen Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 8ko 143/2002 FORU AGINDUA.

2. HSAGOLEko Goi Maila.

Halaber, Nafarroan Goi Mailako ikasketak ezartzea komenigarria zenentz mahaigaineratu zen legealdiaren hasieran. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Musika Irakaskuntzen Unitate Teknikoari txosten bat egiteko agindu zion, erabakiak oinarritzeko datuak bertan bil zituzan. Aipatu txostena 2000/2001 ikasturtearen amaieran aurkeztu zen.

Txostena aurretik ikusitako ikasleen fluxuari buruzko datuak, multzoko curriculum-jarduera ugariak antolatzeko haien eraginak eta arte-irakaskuntzei buruzko Irizpeneko (1999) gomendioak kontutan harturik egin zen bereziki. Hezkuntza Konferentziako Lantaldeak egin zuen hura. Haietako ikusita, hobe zen Goi Kontserbatorioen nazio eskalako lurralde mapa bat antolatzea. Txosten horren arabera, komenigarria zen goi maila hori ez ezartzea. Aipatu txostenean aipaturik zegoen ikasleei beka-programa zehatzaren bitartez irtenbidea emateko aukera. Alabaina, Foru Parlamentuaren Hezkuntza Batzordeko kideak aho batez azaldu ziren hura ezartzearen alde, eta Departamentuari gorago aipaturiko Bideragarritasun-plana egiteko agindu zioten. Alabaina, beketarako deialdia mantendu eta berriro zuzendu zen "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusiaren katalogoan sarturik ez zeuden espezialitateak aukeratuko zituzten ikasleei arreta emateko.

Departamentuko teknikarien eta Kontserbatorioko zuzendarien artean adosturiko plan horretan ikastetxearen nortasun-ezaugarriak zehaztu ziren. Hura oinarri izan zen HSAGOL-Musikako Goi Maila nola ezarri arautu eta "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusia sortu zuen martxoaren 27ko 7/2002 FORU LEGEA idazteko.

Lege hori onetsi zenetik egunera arte pasatutako epe laburrean, 2002/2003 ikasturteaz geroztik "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusia ibiltzen ahal izateko beharrezko araudia garatu da. Araurik garrantzitsuenen artean honakook aipatuko ditugu:

- Iruñeko "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusiari Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Orokorraren arabera musikako goi maila irakatsi eta aipatu mailaren espezialitateak ezartzeko baimena eman dion Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 17ko 109/2002 Foru Agindua (2002/05/1eko 53 zenbakiko :bon.a).
- 2002/2003 ikasturterako Nafarroako musika-irakaskuntzen goi mailara sartzeko probak arautu dituen eta "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusian musika-irakaskuntzen goi mailara sartzeko probetarako deialdia egin duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 8ko 142/2002 Foru Agindua.
- Nafarroako Foru Komunitatean musika-irakaskuntzen goi mailako curriculuma ezarri duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abuztuaren 27ko 423/2002 Foru Agindua (2002/10/10eko 123 zenbakiko :bon.a).
- "Pablo Sarasate" Nafarroako Musika Kontserbatorio Nagusian ezarritako espezialitateetan hartzen ahal diren plazen urteko eskaintza zehaztu duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 15eko 177/2003 Foru Agindua.

Goi Maila ibiltzen 2002/2003 ikasturtean hasi zen, 58 ikaslerekin.

Kontserbatorioen etorkizuneko eraikina.

Administrazio-tramite egokiak gaindituta, Gobernuak, 2003ko urriaren 13an, Mendebalde auzoko orubea onartzea erabaki zuen, Iruñeko Udalak laga duena, Lanbide Kontserbatorioa, Kontserbatorio Nagusia eta "Pablo Sarasate" Orkestraren egoitza hartu beharko zituen gunea eraikitzeko.

Jarraian hasiko da proiektu arkitektonikoa egiteko eta aipatu eraikinak eraikitzeko prozedura.

2.8.1.2. Musika-eskolak

Musika Eskolen kopuruak eta geografi banaketak eta haiek arreta ematen dioten ikasle kopuruak Espainiako batezbestekoa eta, are, Europakoa baino askoz maila altuagoa islatzen dute musika-ikasketak ezartzen.

MEUTEk eskolei laguntza eta aholkularitza eman die. Alabaina, ikastetxeok benetan indartzeko benetako plana egiteko askoz diru-baliabide gehiago aplikatu behar dira. Argi dago errealitatea eta helburuak argitzen aurrera egin dugula. Hala ere, uste izaten ahal da ezen indartze eta berrantolatze plana praktikan jartzeke dagoela.

Gaineratu ahal denez, 2000 eta 2003 bitarteko lanaren ondorioz zuzenean eta zeharka, irakaskuntza arautu eta arautugabeen segmentuen arteko koordinazioa indartu da, "Pablo Sarasate" Kontserbatorioko Musika Eskolendako Ikasketetako Burutzaren eta Musika Irakaskuntzen Unitate Teknikoaren arduraldia eta lana areagotuz. Musika Eskolen Nafarroako Elkarteak bultzatu da eta Eskoletan irakaskuntza arautura sartzeko programak ezartzeko laguntzako aurrekontu-lerroa sortu.

- Musika-ikasketa arautuetara sartzeko probak prestatzeko programak ezartzeko udaleko Musika Eskolendako diru-laguntzetarako Deialdia onetsi duen Hezkuntza eta Kultura

kontseilariaren irailaren 24ko 455/2002 Foru Agindua (2002/10/25eko 129 zenbakiko :bon.a).

2001/2002 ikasturterako bereziki Musika Eskoletatik irakaskuntza arautuetara sarturikoen kopuruak %20koa baino handiagoa zen igoera izan zuen aurreko ikasturteko kopuruen aldean. Igoera hori 2002/2003 ikasturterako sarreretan mantendu da.

Irakaskuntza artistikoei dagokienez, eskola kontseilu honek, hurren lehenengo urteez geroztiko musika-hezkuntzaren garrantziaz jabetuta, ez du batere askietsi hezkuntza-etapetan zeharkako irakaskuntza horretako egungo ordu-arduraldia. Ordu-arduraldi luzeagoak musika-heziketa erraztuko luke, gero ikastetxe espezializatuetan jarrai lezakeena.

2.9. Hezkuntza eta Lanbide Orientazioa.

2.9.1. Ikastetxe Publikoetako orientatzaileak.

17 zenbakiko koadroa					
Ikastetxe publikoetako orientatzaile kopuruaren bilakaera					
Ikasturtea	1998/99	1999/00	2000/01	2001/02	2002/203
Orientatzaileak	96	107	107	109	108

18 zenbakiko koadroa				
Ikastetxe publikoetako orientatzaileen banaketa. 2002/2003 ikasturtea				
Zona	Bigarren Hezkuntzako Institutua	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua	Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa	Orotara
Iruña	21	1	24	46
Lizarra	4	3	5	12
Tafalla	4	1	7	12
Irurtzun	3	1	5	9
Tutera	5	2	9	16
Elizondo	2	1	4	7
Zangoza	2	3	1	6
OROTARA	41	12	55	108
NHBBZ				OROTARA
Ikusmenekoak				1
Entzumenezkoak				1
Motorikoak				1
Bigarren Hezkuntza psikikoak				2
Lehen Hezkuntza psikikoak				2
Euskarazko psikikoak				1
Zuzendaritza				1
Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak				1
OROTARA				10

ESKOLA ORIENTAZIOKO UT-EKO ORIENTATZAILEAK	OROTARA
Unitateko Burutza	0
Aholkulari teknikoa	1
OROTARA	1

ORIENTATZAILEAK OROTARA	119
Ikastetxeendako zuzeneko arreta	108
NHBBZ	10
Unitate Teknikoaren aholkularitza	1

Nafarroako Eskola Kontseiluak Sisteman goranzko beharrianak sortzeak kezkatuta dagoela adierazi du. Kulturen eta gizartean bazterturik dauden ikasleak ugari sartu dira eta Nafarroako ikasle guztiek elkarren ondorengo hezkuntza eraldaketan ondoriozko goranzko beharrianak dituzte.

Kontseilu honek Hezkuntza Departamentuari egoera hori berriz ebalua dezan eskatu dio.

2.9.2. Itunpeko ikastetxeetako orientatzaileak:

Itunpeko ikastetxeetako orientazioa arautu zen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren otsailaren 29ko 54/2000 Foru Aginduaren bitartez. Foru agindu honekin bat etorriarik, 0,04 unitateko orientatzaile bat behar da, hau da, 25 unitateko orientatzaile bat:

-	Irakaskuntza arauturako, astean 25 ordu:	1,00
-	HSAGOLen 3.c hirugarren xedapen gehigarriaren arabera laguntza eta	
-	“gastu aldakorretan” sarturik ez dauden ordezenak	0,13
-	Zuzentzeko funtzioko laguntza, IPEGLOren zazpigarren xedapen gehigarriaren	
-	arabera	0,07
-	Hezkuntza, psikopedagogi eta lanbide orientazioko zerbitzu espezializatuak,	
-	HSAGOLen 3.e hirugarren xedapen gehigarriaren arabera:	0,04
-	Orotarako ratioa:	1,24

Hezkuntza Departamentuak itunpeko ikastetxeei ordu kopuru bat finantzatu die.

Nabarmenezkoa denez, ikastetxe guztiek dute orientazio-baliabidea, eta 25 unitateri dagokie orientatzaile bat.

19 zenbakiko koadroa				
Nafarroako Itunpeko Ikastetxeetako orientazioa, 2002/2003 ikasturtekoa				
Hezkuntza maila	2001/2002 ikasturtea		2002/2003 ikasturtea	
	Ikastetxe kopurua	Ordu kopurua	Ikastetxe kopurua	Ordu kopurua
Lehen Hezkuntza	45	537	45	534
Bigarren Hezkuntza (DBH, Batxilergoa)	37	453	33(DBH)/21 (Batx.)	444
Lanbide Heziketa eta Lanbidean Hasteko Programak	5	66	4 (LH)/5 (LHP)	68
Orotara	85	1.056	(*)	1.046

(*) Ez daude islaturik ikastetxe guztiak, zeren eta batzuek irakaskuntzak (DBH, Batxilergoa, LH eta LHP) konpartitzen dituzte.

2.10. Dibertsitatearen gaineko arreta. Kulturartekotasuna. Osabidezko Hezkuntza

2.10.1. Dibertsitatearen gaineko arreta.

2002-2003 ikasturteko araudia
Martxoaren 26ko 76/2002 Foru Aginduak onetsita 2002/2003 ikasturterako Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxeetan hezkuntza-beharrizan bereziak dituztela edo sozial edo kulturalki baztertuta dauden ikasleei arreta emateko beharrezko baliabideak aldarazi edo luzatzeko giza eta ekonomi baliabideak adjudikatzea ebatzi duen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 17ko 597/2002 Ebazpena. (2002/09/23ko 115 zenbakiko :bon.a).
2002/2003 ikasturterako Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxeetan hezkuntza-beharrizan bereziak dituztela edo sozial edo kulturalki baztertuta dauden ikasleei arreta emateko beharrezko baliabideak aldarazi edo luzatzeko giza eta ekonomi baliabideak adjudikatzea ebatzi duen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 17ko 597/2002 Ebazpena aldarazi duen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren irailaren 9ko 677/2002 Ebazpena. (2002/10/11ko 123 zenbakiko :bon.a).
420/2002 Foru Araua. Ikastetxe Publikoak antolatu eta ibiltzeko Jarraibideak. 2002-2003 ikasturtea.

HSAGOLEk eraginiko Espainiako hezkuntza-sistemaren eraldaketak ikasleen hezkuntza-beharrizanei erantzuna emateko irakaskuntza ulerkorraren eredu bat eta curriculum-marko bat aukeratzea ekarri zuen. Dena den, legean ezarririk zegoen ikasleen heziketa banakatuaren printzipioa ere, norberaren bizitzaren eta famili, gizarte eta lanbide bizitzen eremu guztietan ezagupenetan, trebetasunetan eta balore moraletan osorik heztea bultzatzen zuena (HSAGOL, 2.3.a artikulua).

Horrela, oinarrizko heziketa komunak antolakuntza ulerkor eta integratzailea dakar, dibertsifikazio progresiboarekin bateratzen ahal dena.

Bertze alde batetik, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko Lege Organikoak (HKLOK) bere hobekuntza-ardatzen artean honakoa harturik du barnean: guztiendako kalitate-aukeren sistema indartzea, zertarako-eta pertsona bakoitzak bere heziketa-helburuak iristen ahal izateko. Bertan azpimarraturik dagoenez, "hezkuntza-sistemak itxuraketa malgua bilatu behar du, pertsonen gaitasunetako, beharizanetako, interesetako eta heltze-erritmoetako banakako ezberdintasunei egokitzen zaiena" (HKLOren hitzaurrea, 26. ahapaldia). Legeak aipaturiko sistemaren kalitate-abiaburuak dira "kalitate-aukeren berdintasuna bermatzen duen zuzentasuna" eta egitura eta antolakuntza gizartearen aldaketei, beharrizanei eta eskariei eta ikasleen gaitasun, interes, igurikapen eta nortasun ezberdinei egokitzeko malgutasuna" (HKLOren 1.a eta g art.).

Horrela bada, ulerkortasuna eta dibertsitatea ez dira baztertzen eta erantzun ezberdinak eskatzen dituzte, ikasleen eta testuinguruaren arabera. Hala ere, oinarrizko helburuak bilatzen dituzte.

Azken bi hamarkadetan hasitako hezkuntzarapen eta gizarterapen prozesua luzatu behar da gure hezkuntza-sistema zuzenean ukitzen duten dibertsitate-egoera berrietara ere. Beraien artean oso nabarmentzen dira inmigraziotiko ikasleen goranzko presentzia eta gure gizarteak zentzuzko eta elkarbizitzazko baloreetan agertzen duen krisia.

Horretarako guztirako dibertsitatearen gainean arreta jarri behar da. Horretarako neurriak, Hezkuntza Administrazioek behar bezala bultzatu behar dituztenak, ikastetxe bakoitzean egituratu behar dira Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan ezarriko arauekin eta lehentasunekin eta Etaparen Curriculum Proiektuekin bat etorririk. Neurriok ikastetxe bakoitzaren Dibertsitatearekiko Arretarako Plana ekarri behar dute.

20 zenbakiko koadroa
Nafarroako DBHn Dibertsitateari arreta emateko antolakuntzazko neurrien mapa(*)

INF.	1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	6.a	1. DBH	2. DBH	3. DBH	4. DBH	TITULUA		
<i>Curriculum Arrunteko Sakontasun Mailak</i>	Goikoa												Batx.
	Ertaina												C.F.M.
	Oinarrizkoa												BIZITZ AKTIBOA
	Oinarrizkoa						ERREFOR A/B		3.C	4.C			C.F.M. BIZITZ AKTIBOA
												LHP	
											CEU Gela Tailerra	Titulurik gabe)	

(*) Hezkuntzazko promozio eta konpentsazio neurriak behar dituzten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleendako hezkuntza-erantzun zehatzak ezartzeko jarraibideak eta orientazioak eman dituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 2ko 90/1998 Foru Aginduaren 8.3 artikuluaekin bat etorririk, "CEUtik irtenda, ikasteko prest dauden eta Taldeko irakastaldearen iritziz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburu orokorrak iristen ahal dituzten ikasleek, psikopedagogi ebaluazioaren ondoren, Curriculum Dibertsifikatzeko Programara sartzea izanen dute".

Curriculum arruntak, 135/1997 Foru Dekretuaren arabera kudeatzekotan, hezkuntza-eszenategian dauden ikasleen ikaste erritmo eta maila ezberdinei arreta emateko irizpideak eta tresnak izan behar ditu. Horregatik, 2002ko urriaren 14tik 25era arte honakook antolatu ziren: "DBHko curriculumeko gaitasunaren mailen arabeko programazioari buruzko lan-jardunaldiak". Honako ondorio hauek atera ziren:

- Hasiara batean, hiru mailatako programazioa onartu da, nahiz eta, agian, bikaintasun maila maila ertain edo propedeutikoaren barruko sakonketatzat hartzen ahal den. Oinarrizko maila eta maila propedeutikoa edo propedeutikoak bereiztea garrantzirik handienekoa da.
- Gaitasun mailak zehazteko oinarria gelako esperientzia da eta, lehenik, oinarrizko maila zehaztasunez definitu behar da. Oinarrizko mailak gutxieneko edukiak zehaztetik abiatu behar du. Nafarroa osorako era orokortuan zehaztu eta finkatu behar da lan hori.
- Hiru mailatan garaturiko unitate didaktiko guztiak dituen curriculum berriaren programazioa izan behar da, irakasle bakoitzak material horretan oinarriturik bere gelako programazioa egiten ahal izateko. Garaturiko unitate didaktikoak irakasleen lantaldeen bitartez programa litezke, behar bezala koordinaturik eta amankomuneko irizpideekin.
- Mailak zehazteko, ikasleen jarrerak eta gaitasunak behar bezala baloratu behar dira eta horri buruzko akordioa lortu behar da irakastaldean baitan. Komenigarria izanen litzateke guraso eta ikasleei haien berri jakinaraztea.
- Hiru mailatako arreta emateko, ikasleen gaitasunen aniztasunari egokitutako jarduera sorta zabala izan behar da. Unitateetako programazioak jarduera aniztariko asko hartu beharko ditu barnean, eskolako materiala ateratzeko datutegi bezala balio dutenak.
- Behar bezala programaturako jarduerak ikasleei arreta emateko baliabiderik garrantzitsu eta eraginkorrenak izanen dira.
- Ebaluatze-tresnek, proba mota ezberdinak barnean harturik, ikasleen gaitasun maila ezberdinei arreta ematekoak izan behar dute.

- Bitarteko informatikoen funtzio aberasgarria nabarmendu da, Internetena bereziki, irakasleen arteko komunikazioa bultzatu eta sarearen bitartez esperientziak, iritziak eta materialak konpartitzeko.
- Komenigarria izanen litzateke irakasleen arteko esperientzien trukeari eta programazioari buruzko jardunaldiak aldizka egitea.

Jardunaldion kronika eta ondorioak Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren web orrialdean (<http://www.pnte.cfnavarra.es/programacionesenlaeso/>) bildurik daude.

Bertze alde batetik, hobe da ikastetxeek, DBHn dibertsitatearen gainean arreta emateko Planaren baitan, hezkuntza akademiko-teorikorako prest ez dauden ikasleei arreta emateko neurriak biltzea. Lan-ildo horretatik, Nafarroako 12 ikastetxetan arrakasta nabarmenez probatzen izan da "2. ziklo egokitua" izeneko modalitatea, Kalitateari buruzko Legeak DBHrentzat Lanbidean Hasteko Programen aurrekoa den eta legezko marko berriari egokitua behar izanen zaiona.

2.10.1.1. Bazterkeriazko kultur eta gizarte baldintzei loturiko hezkuntza-beharrizanak dituzten ikasleendako hezkuntza-arreta.

Aurretik esanikoaren arabera, bazterturiko kultur eta gizarte baldintzei loturiko hezkuntza-beharrizanak dituzten ikasleendako arretaren ereduak, Nafarroako hezkuntza-administrazioak hartua, hiru alderditan laburbiltzen ahal da. Alderdi horiek honakook dira:

1. Joritzeko eta elkar ulertzeko integrazioa behar da. Horretarako, kultura bakoitzeko onenean oinarrituriko elementu eta ikaskuntzak baliatu behar dira. Pertsona ororen duintasuna eta duintasunetik datozen funtsezko eskubideak izanen dira guztiendako erreferenteak.
2. Kultur dibertsitatearen gaineko arretak integrazio eta normalizazio abiaburuak ditu oinarri.
3. *Ikastetxe perspektiba* da hezkuntzan esku hartzeko lan-ardatza eta ikusmoldea.

Arreta hau banakatzen ahal den bi atal daude: ikasle etorkinendako arretarena eta osabidezko hezkuntzarako programen bitartez atendituriko ikasleena.

Gaurkoa izaten dirau Kalitate eta Ebaluazio Institutuak 2002an emaniko Txostenaren edukiak. Funtsezkoena atal honetan aipaturiko Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko txostenera bildu zen.

2.10.1.2. Nafarroako ikasle etorkinendako arreta.

Nafarroako inmigrazioa botere publiko guztiek arreta berezia jarri beharko duten gaietako bat da. Etorकिन kopurua era ikusgarrian igo da azken hiru urteetan. Kontseiluaren aurreko ikasturteko txostenean adierazirikoaren arabera, ikasle etorkizunak eskolaturiko 100eko 3,5 ikasle ziren. Beraietarik 100eko 54 Iruñean eta beronen eskualdean eskolaturik zeuden. Eta, 2002/2003 ikasturtean, ikasle etorkinok 100eko 5,96 izan dira.

Etorकिनak nondik datozen aztertzen ari dira hainbat erakunde, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP), Arartekoa eta Gizarte Ongizate Departamentua. NUPek argitaraturiko azken txostenean adierazitakoaren arabera, Nafarroan etorkinak %7 dira. %50 administrazio-egoera irregularreko kasuei dagokie.

Etorकिनek hezkuntza, osasun, enplegu, etxebizitza eta gizarte beharrizanen gaineko arreta eskatu dute. Hori dela eta, egoera zail honek erabat gaindikatu ditu Nafarroako Gobernuaren Departamentu baten eskumenak eta erantzukizunak. Guztiok arazoaz jabetu behar dugu eta inmigrazioaren arazo globaletarako konponbideak hartu behar ditugu.

Nafarroako Eskola Kontseilua bidezko konponbideak aurkitzen laguntzeko gai hau zehazki aztertzeko eta etorkinen integrazioa hobea lortzeko prest dago. Beraren ustez, kulturaren eta gizartearen integraztearen ereduaren xedea ez da asimilatze hutsa ez baloreak nahasteagatik

kultur hibridazioa, baizik eta kultura bakoitzaren onenean oinarrituriko ikaskuntzen bitartez elkar ulertzea eta gizaki ororen duintasun negoziatazina amankomuneko erreferentzia gisa hartzea. Gure nortasuna gizarte anitzaren baitan mantentzen jakin behar dugu, eta gure nortasuna gurekin bizi direnen baliozkoenaz joritu behar dugu. Gurea eskaini behar diegu, halaber.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2000/2001 ikasturteari buruz egin berri duen azterlan batean (*Ikasleak purgatorioa. Etorkinak toki gunean gizarteratzea*. M. Laparra, Ed.: Bellaterra) baieztatu denez:

Egindako inkestaren bitartez lorturiko datuei jarraiki, esaten ahal dugu ezen Nafarroan etorkinen eskolatzeko indize altua dagoela. Etorkinen seme-alabak eskolaturik daude. Inkesta egin zaien gurasoek emaniko informazioa kontutan harturik, 3-15 urteko adinez txikien %97 eskolaturik dago. Derrigorrezko irakaskuntzaren tartea bakarrik hartzen badugu, eskolatzeko ia osoa da: 6 eta 15 urte bitarteko 100eko 99 etorkin eskolaturik daude. 3-5 urteko tartean, eskolatzeko indizea txikiena da: inkestan, adin horretan eskolara joaten ez diren 100eko 8 haur agertu dira. Berauetarik gehienak hiru urteko haurrak dira.

Beraz, eskolatzeko arrakastatsuz hitz egiten ahal da: etorkinak heltzen direnetik eskolatu arteko denbora oso laburra da. Orokorrean, bizitzen geratu eta berehala eskolatzeko dituzte seme-alabak. Analisisian askoz gehiago sakondu behar izan arren, ausardiarekin baieztatu nahi dugu ezen, orokorrean, etorkinentzat seme-alaben hezkuntzak leku garrantzitsua betetzen duela haien balore-eskalan. Kontutan hartu behar da ezen helduetarik anitzek hezkuntza maila altuak dituztela.

Alabaina, deseskolatzeko tasak txikiak diren arren, eskolarapen goiztiarra bultzatu behar da. Izan ere, adina eskolaratzea lortzeko funtsezko elementua da. Zenbat eta haur etorkinaren adina txikiagoa den gelaratzen denean, hainbat eta handiagoa da eskolatzeko-prozesuko arrakastaren bermeak.

Deseskolatzeko oso txikia da, %1ekoa ozta-ozta, derrigorrezko irakaskuntzan. 13 eta 15 urte bitarteko adinez txikien egoera bereziak ezagun ditugu, magrebtar taldearena bereziki: beren gurasoekin bidaiatzen dute eta haiekin lanean jartzen dira eskola utzita. Gizarte zerbitzuek, horrelako taldeekin lan egiten duten gizarte ekimenezko erakundeek eta eskolak adinez txikiok oro eskolatzeko lortzeko ahaleginak egin behar izanen dituzte batera. Deseskolatzeko talde zehatz batekin oso loturik badago, familiokiko lana indartzen dituzten kulturarteko bitartekariak sartzea komenigarria izan daiteke.

Datuen arabera, Nafarroan eskolaturiko haurren aita eta ama ia guztiek adierazi dute ezen beraien seme-alabak eskolara erregulartasunez joaten direla. Ikastetxeen zenbait zuzendariri egin zaizkien elkarrizketetan egiaztatu da hori.

Hizkuntza beste arazo bat da: 100eko 58 haur Latinoamerikatik datoz. Hori dela eta, hizkuntza ez da haiek eskolatzeko oztopo. 100eko gainerako 42 haurren hizkuntza ezberdinak hogeitaz dira, haien jatorri-herrietako hizkuntza ofiziala bakarrik kontutan hartuta, herri horietan erabiltzen diren bertze hizkuntzak kontutan hartu gabe.

Arabiera da 100eko 24,5 adinez txikiren hizkuntza da; errumaniera, 100eko 6,3 adinez txikirena; bulgariera, 100eko 2 adinez txikirena; frantsesa, 100eko 1,9 adinez txikirena; ingelesa, 100eko adinez txiki 1ena; txinera, 100eko adinez txiki 1ena...

Eginiko inkestaren datuen arabera, Europako Ekialdetik edo Afrikako herrietatik datozen adinez txikien %28k hizkuntzaren karizko zailtasunak ditu ikastetxetara edo institutuera sartzekoan.

Hizkuntza ez jakitea zailtasun handia da gurasoak beren semeak matrikulatzera ikastetxera joaten direnean. Ikasleak Errusiatik, Ukrainatik, Bulgariatik, Poloniatik eta abarretatik datozela eta, ezin dute elkarrekin hitz egin familiak eta ikastetxeak. Egoera horrek irakasleengan ondoez handia sortzen du, halaber.

Hezkuntza mailari dagokionez, Lehen Hezkuntzako etapan egokitzapena oso ona da, baina haurrak urteak bete ahala bere herritik dakartzan curriculum atzerapenei aurre egin behar die. Ikasmilaren eta adinaren artean desfasea dago; eta, gainera, hizkuntza oztopo da, ikasleak gaztelaniaz hiz egiten ez den herrietatik badatoz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, ikastetxearekiko egokitzapenak ona izaten dirau. Hala ere, curriculum-atzerapenei aurre egiteko zailtasunak eta hizkuntzaren oztopotasuna handiagoak dira. Beraz, ikastetxeak ahalegin handiagoak egin behar ditu ikasleak ikasgeletan osorik integratzea lortzeko.

Adinaren arabera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan egon behar luketen 100eko 25 ikasle atzerritar Lehen Hezkuntzan ikasten dabilta. Gauza bera gertatzen da Haur Hezkuntzan dauden haur bakan batzuekin: adinaren arabera, Lehen Hezkuntzan egon beharko lukete. Elkarrizketaturiko irakasleek azaldu digutenez, salbuespen gisa, ikasleren bat heltzen da, aurretik eskolatzeko prozesuetan gabetasun larriekin zerikusia duten oso hezkuntza-atzerapen handiak dituen; horrela etorritako adinez txikiak Marokoko alde zehaztatetik datoz. Ikasleek agertzen dituzten atzerapenak direla zio, eskolak *hezkuntza-errefortzuak* luzatuko dizkie behar dituzten ikasle etorkinei.

Ezberdin banaturik daude eskolaturiko adinez txikiak ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen artean. 100eko 72 etorkin ikastetxe publikoetan eta 100eko 28 ikastetxe pribatuetan eskolaturik daude. Banaketa oso ezberdina da oso hurbil dauden ikastetxeen artean ere.

Nafarroan, atzerritar ikasleen presentzia ez da portzentaia esanguratsuak iristera heldu. Alabaina, portzentaia altua den herriak eta aldeak daude. Orokorrean, ikasleok eskolaratzeko prozesu positiboak ikusi dira.

Hala ere, aurre egin behar zaien bi arazo mota daude:

- Ehuneko ikasle etorkin anitz dauden eta etorkinak ez diren ikasleak alde batera uzteko prozesuak gertatzen ari diren ikastetxeak; berronkarik lortzen ez bada, "hezkuntza-ghettoak" direlakoak eratzetik hurbil gaude.
- Ehuneko ikasle etorkin anitz eskolaturik dauden eta curriculum-mentsak modu bistakoagoan azaltzen diren Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak.

Bi kasuetan, Administrazio Publikoek benetan lagundu behar dute, ikastetxeok giza baliabide eta baliabide material gehiago izan ditzaten. Hori guztia egin behar da, zertarako-eta ikasle etorkinen eta ez etorkinen arteko oreka lortzeko eta, horrela, eskolaratze eta gizarteratze prozesuetan benetan aurrera egiten ahal izateko.

Etorkinak bizi izaten diren aldeetan fondo publikoek eutsiriko ikastetxe guztien arteko banaketa orekatsuari eutsi beharra funtsezko lehenengo elementua da integrazioaz hitz egiterakoan.

Tuterako eskualdeko bigarren hezkuntzako institutuek batera proposamena egin dute dagoeneko (ikastetxe publikoen eta itunpekoen artean). Bertan, administrazioari kontzentrazioa saihesten duen neurri zuzentzailearen bat sartzeko eskatu diote.

Famili birtaldekapena dela eta, nonbait Nafarroan askoz gehiago eskolatuko dira aurtan.

2001/2002 ikasturteari dagokionez, kontutan hartu behar dira honako koadro honetako kopuruak. Gogoratu beharra dago ezen azken bi urte hauetan askoz etorkin gehiago etorri direla. Hori dela eta, adierazitako datuek balio erlatiboa dute.

21 zenbakiko koadroa				
Etorikin egoiliarren zuzeneko ahaideak, haiek beraiekin bizi izatera ekarri nahi dituztenak.				
	Adin guztiak		16 urtetik beherakoak	
	Pertsonak	%	Pertsonak	%
Ezkontidea	1.035	9,5	0	0
Seme edo alaba	3.512	32,4	2.848	86,4
Aita	667	6,2	0	0
Ama	1.089	10	0	0
Neba, arreba, anaia edo ahizpa	4.538	41,9	344	13,6
Orotara	10.842	100	3.191	100

16 urtetik beherako etorkinen hezkuntza maila ez da Nafarroako biztanleengan erregistraturiko batezbesteko mailaren ezberdina.

Marokoar taldearena izan ezik, etorkinen hezkuntza mailak Nafarroako adin bereko biztanleenak bezain altuak dira: unibertsitatean titulatuak %16 dira, derrigorrezko irakaskuntza osoa, lanbide heziketa edo batxilergoa duten pertsonak %63, lehen irakaskuntza burutu ez dutenak %16, eta analfabetoak %0,4.

Alabaina, hezkuntza-profilak ezberdinak dira nazioen arabera aztertzen baditugu.

Egoitza Iruñean eta eskualdean duten etorkinen hezkuntza maila egoitza Nafarroako gainerako aldeetan dutenena baino altuagoa da.

Hizkuntza ikastea da gure herrian integratzen hasteko lehenengo beharkizuna.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko 2000/2001 eta 2001/2002 ikasturteetako txostenetan horri buruzko iritzi interesgarriak azaltzen dira, txosten honetan kopiatutzat emanak.

Ikastetxe publikoak antolatu eta ibiltzeko 2002/2003 ikasturteko Jarraibideak 420/2002 Foru Aginduan bildurik daude. I. eta III. eranskinetan adierazirik daude ikastetxeen Urteko Programazio Orokorrean bildu behar diren abiaburuak, etorkinei arreta ematekoak.

2.10.1.3. Ikasle ijitoak.

Ijito herriarendako arretarako beharrezkoa da departamentuaren arreta ere. "GAZ CALO" Nafarroako Ijito Elkartearen Federakundearen eta Iruñeko Ijito Idazkaritzaren lankidetzarekin "Ijito kultura, lan elkarreragilerako materialak" izeneko proiektua egiten ari da, CD batean bilduko dena.

Nafarroako Ijito Idazkaritzarekin hitzarmena sinatu da ijito munduarekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko programa garatzeko, zertarako-eta eskolara ez agertzearen aurka eta bigarren hezkuntza amaitzen duten eta batxilergoan eskolatzen diren ikasleek eskola uztearen gainean eraginkortasunez lan egiteko. Bigarren hezkuntzan eskolan jarraitzea lortu nahi da. Ereduzko esperientzia da.

Ijitoekin lan egiteko Mahai Teknikoam parte hartzen da. Mahai hori 2002ko abenduan sortu zen. Beraren baitan sustatu da "ikasle ijitoak lehen hezkuntzatik DBHra pasatzeko trantsizioko programa, trantsizio normalizaturakoa". Biztanleen aurrean eragina duten pertsonak diren bitartekarien figura funtsezko pieza da programan.

Ijito Herriaren Mahai Teknikoaren Hezkuntza Batzordeak batzuek ahaleginak batera egitea lortu du. Ahaleginak batera egin dituztenak honako hauek dira: Iruñeko Udala (Gizarte Zerbitzuen

Arloa), Hezkuntza (Dibertsitatearen eta Kulturantzatasunaren gaineko Arretarako Atala), Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (Gutxiengoak), Lehen Mailako Arreta (Iruñeko Udala), Iruñeko Elizbarrutiko Ijito Idazkaritza eta "La Majari" Ijito Elkarte.

Mahaiaren helburuak honako hauek dira:

- Ikasle ijitoak BHletan hartzeko eta beraien Jarraipena egiteko Plana egitea. DBHko lehenengo bi ikasmailetak jarraipena, gutxienez.
- Ikasleak jasotzen dituzten Lehen Hezkuntzako ikastetxeen eta BHlen artean informazio-kanalak ekartzea.
- Ikastetxeen eta familien arteko kontaktuak piztea.
- Ijito-erkidegoa hezkuntza-sisteman parte hartzera bultzatzea.
- Sektorean eragina duten Erakunde eta Administrazioen arteko baterako lankidetzeta eta sinergi markoa ezartzea.

2.10.1.4. Arreta zehatza jasotzen ahal duten hezkuntza-atzerapen handiko ikasleak:

22 zenbakiko koadroa												
3. Ziklo Egokituko matrikulak, 4. Ziklo Egokitukoak, CEU eta dibertsifikazioa ikastetxe publikoetan, 2002/2003 ikasturtean												
Herria	Ikastetxea	Eredua	3. Z		4. Z		CEU		CURR. DIB.		CZU	
			Ikasleak	Tald.	Ikasleak	Tald.	Ikasleak	Tald.	Ikasleak	Tald.	Ikasleak	Tald.
Altsasu	"S. Miguel de Aralar" BHI	A	11	1			12	1	10	1		
		D	Minorías						8	1		
Barañain	"Barañáin" BHI	G	13	1					12	1		
		A										
Bera Bidasoa	"Toki Ona" BHI	A	0									
		B										
		D	0						14	1		
Berriozar	Berriozar DBHI	G	0						8	1	4	1
		A										
		D	0									
Carcastillo	Carcastillo DBHI	G	0						9	1		
		A	0									
Corella	"Alhama" BHI	G	0						12	1		
Lizarra	"Tierra Estella" BHI	G	0				9	1	12	1		
		A	0									
Uharte	Huarte BHI	G	2	1			10	1	11	1		
Leitza	"Amazabal" BHI	D	0						12	1		
Lodosa	"Pablo Sarasate" BHI	G	0				9	1	13	1		
		A	0									
Irunberri-Zang.	"Sierra de Leyre" BHI	G					5	1	8	1		
		A										
Martzilla	"Marqués de Villena" BHI	G					6	1	10	1		
		A	0									
Noain	"Elortzibar DBHI "	G	12	1					11	1		
		A	0									
Iruña	"Basoko" BHI	G	8	1					10	1		
		A	0									
	"Julio Caro Baroja" BHI	G	10	1	10	1				1		
		A										

HEZKUNTZA-SISTEMA

	"Navarro Villoslada" BHI	G	0						10	1		
		A	0									
	"Padre Moret" BHI	G			15	1			9	1	5	1
		A			2							
	"Plaza de la Cruz" BHI	G	28	2	34	2						
		A										
Azkoien	Peralta BHI	G	0				9	1	6	1		
		A										
San Adrian	"Ega" BHI	G	10	1	10	1	7	1	8	1		
		A	1									
Tafalla	"Sancho el Mayor" BHI	G	12	1					12	1		
		A	0									
Tuteraa	"Benjamín de Tudela" BHI	G	15	1	14	1			12	1		
		A	0									
	"ETI II" BHI	G	16	1			7	1	14	1		
		A										
Zizur Nagusia	Zizur BHI	G	10	1						1		
		A	0									
		D	0									
Orotara orokorrean			148	13	85	6	74	9	231	24	9	2

Eredua	3. Z		4. Z		CEU		CURR. DIB.		CZU		Orotara	%
	Ikasleak	Tald.	Ikasleak	Tald.	Ikasleak	Tald.	Ikasleak	Tald.	Ikasleak	Tald.		
G eredia orotara	136	12	83	6	62	8	187	20	9	2	477	87,21
A eredia orotara	12	1	2	0	12	1	10	1	0	0	36	6,58
D eredia orotara	0	0	0	0	0	0	34	3	0	0	34	6,21
B eredia orotara	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	-	-
Orotara	148	13	85	6	74	9	231	24	9	2	547	100

Nabarmendu behar denez, hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten 100eko 93,95 ikasle minusbaliatu G eta A ereduetan eskolatzen dira. Horrek dakarrenez, ehuneko kopuru hori ereduotan gertatzen den eskolatze arrunteko tasa baino %13,28 altuagoa da.

23 zenbakiko koadroa						
CEU Matrikulak eta Dibertsifikazioa itunpeko ikastetxeetan, 2002/2003 ikasturtean						
Herria	Ikastetxea	Eredua	CEU		Dibertsifikaz.	
			Ikas.	Tald.	Ikas.	Tald.
Lizarra	Mater Dei - Puy - Anderaz	G	9	1	12	1
Mutilva Beherea	Luis Amigó	G	8	1		
Iruña	Calasanz	G A	11	1		
	Francisco de Jaso	D			7	1
	Hijas de Jesús	G	8	1		
	Nª Sra. de la Compasión	A	18	1		
	Sagrado Corazón	G				
	Salesianos	G	9	1		
	San Cernin	G				
	Santa Catalina - Santísimo Sacramento	G			16	1
	Santa Teresa de Jesús	G				
	Santo Tomás	G A			4	1
Orotara orokorrean			63	6	39	4
G eredu orotara			45	5	32	4
A eredu orotara			18	1	0	0
D eredu orotara			0	0	7	0
B eredu orotara			0	0	0	0
Orotara			63	6	39	4
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak						
Berriozar	Lantxotegi TE		10	1		
Cascante	La Ribera LHIP		10	1		
Ilundain	Haritz Berri GE		18	2		
Iruña	Etxabakoitz TE		24	2		
Gares	Centro Puente		14	2		
Tutera	El Castillo TE		12	1		
Orotara orokorrean			88	9	0	0

24 zenbakiko koadroa				
CEU Matrikula eta Dibertsifikazioa, 2001-2002 eta 2002-2003 ikasturteetan				
	2001/2002 ikasturtea		2002/2003 ikasturtea	
	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak	Taldeak
Ikastetxe publikoak	210	32	305	33
Itunpeko ikastetxeak	26	8	183	19
Orotara	236	40	488	52

Bai ikasle kopurua (%107) bai unitate kopurua (30) nabarmen igo da aurreko ikasturtearen aldean.

2.10.2. Kulturarteko eta osabidezko hezkuntza.

- 2002/2003 ikasturterako Nafarroako Foru Komunitateko itunpeko ikastetxeetan gizartean edo kulturean bazterturik dauden edo hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleendako arretarako beharrezko baliabideak aldarazteko edo luzatzeko 2001eko ekitaldirakoa izan eta 2002ko ekitaldirako luzaturiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrari buruzko 19/2000 Foru Legearen 35.6 artikulua betetzeko deialdi publikorako Oinarri Arautzaileak onetsi dituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 26ko 76/2002 Foru Agindua.

Txosten honen 3.5 blokean bildurik dago atal honen informazio osagarria, ikasleei, irakasleei, ekonomi datuei, programa bereziei eta jarduteko programa orokorrari buruzkoa.

Beren gizarte eta ekonomi edo kultur jatorriagatik bazterturik dauden etorkinak eskolatzeko orekarik ezak eskola kontseilu hau kezkatzen du. Ikasleak sare publikora eta, zehazki, ikastetxe zehatz batzuetara biltzea ez da komenigarria. Orain arte neurri gutxi hartu dira emaitzarik ia eman ez duen kupoarena alde batera uzten badugu. Bistan bide da Hezkuntza Administrazioak eta inplikaturiko gainerako eragileek arazo hau serio hartzu eta egun bistakoa den orekarik ez hori saihesten duen adostasunaren alde lan egin behar dutela.

2.11. Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta kalitatea. Ikasleen promozioa.

Ebaluazio araudia, 2002-03
Nafarroako Foru Komunitatean fondo publikoen bitartez eutsitako Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeendako ebaluaketa eta kalitate plana onetsi duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 19ko 385/2002 Foru Agindua. (2002/09/18ko 113 zenbakiko :bon.a).
Nafarroako Foru Komunitatean fondo publikoen bitartez eutsitako Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeendako ebaluaketa eta kalitate plana onetsi duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 19ko 386/2002 Foru Agindua. (2002/09/18ko 113 zenbakiko :bon.a).
"Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza zerbitzuaren kalitatea ahalik eta onena izateko Ituna aldaraztea argitaratzeko agindu duen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 24ko 496/2002 Foru Agindua, 2002ko urriaren 23an erabakitako aldarazpena argitaratzeko agindu duena alegia. (2002/11/8ko 135 zenbakiko :bon.a).

2.11.1. Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta kalitatea.

Nafarroako Eskola Kontseiluak "Nafarroako Ikastetxeak hobetzeko 2002-2003 ikasturteko Proiektu eta Plan"ei buruzko irizpena aurkeztu du. Iruzkina bat bildu da "IDEA" eskola kontseilu honen aldizkariaren 15 zenbakian. Testu osoa txosten honen 9.6 atalean ageri da. Irizpeneko balorazioak eta proposamenak honakook dira:

Egungo egoerari buruzko balorazioak.

"Kalitate" eta "ebaluazio" terminoek garrantzi nabarmena hartu duten eta ikastetxeek haiekin loturiko hainbat jarduera egiten dituzten garai honetan, haien esangura argitzea beharrezkoa da.

Kalitate terminoaren anbigutasunak eta konnotazio positiboek (nor ez dago irakaskuntzaren kalitatearen alde?) helburu eta xede ezberdin eta batzuetan kontrakoak barnean hartzen dituen erabilera orokortua azaltzen dute.

2000	115	19.881	4.090.000	45	16.623	2.904.000	25	6.172	1.500.000
2001	119	19.881	3.196.600	41	16.500	2.220.100	28	6.172	1.183.300
2002	124	20.600	19.578 €	41	16.500	13.238 €	30	5.654	6.849 €
2003	124	28.000	21.062 €	41	16.500	11.922 €	33	5.900	6.673 €

1

153. taula Urteroko deialdiaren bitartez Nafarroako Elkarte eta Federazioen alde aurrekontuan sartu eta esleitutako zenbatekoak, 1999 urtetik 2003ra.						
URTEA	Aurrekontuan sartutakoa guztira	Esleitutakoa guztira	Ikastetxeko elkarteak	HERRIKOA	CONCAPA	SORTZEN
1999	29.990.000	26.995.900	21.156.900	2.847.000	2.205.000	787.000
2000	39.900.000	38.488.000	29.994.000	4.090.000	2.904.000	1.500.000
2001	28.800.000	28.799.230	22.199.320	3.196.600	2.220.100	1.183.300
2002	173.091,48 €	173.009 €	133.347 €	19.578 €	13.238 €	6.849 €
2003	178.049,00 €	173.072 €	133.415 €	21.062€	11.922€	6.673€

2

2003 urtea	Gurasoen Elkarten Federazioak	Itunpeko ikastetxeetako Guraso Elkarteak	Ikastetxe publikoetako Guraso Elkarteak
Kopurua	3	43	183
Esleitutako zenbatekoa	39.657	35.903	97.512

3

4

5

6

7

8

9

10

Nafarroako Eskola Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du ikasleen Gurasoen Federazioentzako diru-laguntzak handitzea eta gutxienez 2000 urtean esleitutako zenbatekoak berreskuratzea. Horretaz gain, diru-laguntzak emateko baldintzak aldatzeko ere eskatzen da: zenbateko finko bat ezartzea azpiegitura-gastuak estaltzeko, aukera eman diezaiei federazio guztiei euren jarduera-gastuak estaltzeko, federazioaren bazkide-kopurua edozein izanda ere.

11

5.6.2. Ikasleen gurasoak trebatzeko ekintzak.

12

13

Gurasoen Trebakuntzaren egoera.

14

15

16

17

Lehen atal honetan gurasoen trebakuntzaren inguruan Nafarroako Foru Komunitatean azken urteotan egiten diren jarduerak biltzen dira. Aurreko urteetako txostenetan informazio hau ez da agertu, hori dela eta interesgarria da aipatzea.

18

19

20

5.6.2.1. Nafarroako Eskola Kontseilua Ikastetxeetako Eskola Kontseiluekin biltzeko Jardunaldiak.

21

22

23

I. Jardunaldia, 1999ko apirilaren 24an izan zen, gai hau hartuta: “Aniztasunaren Tratamendua Hobetzeko Proposamena”.

24

25

26

27

28

29

30

31

Gure komunitateko 69 ikastetxetako 193 pertsona izan ziren bertan; 44 ikastetxe publikotakoak eta itunpeko 25 ikastetxetakoak. Nabarmena zen derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeen nagusitasuna. %21,25 familien ordezkariak izan ziren.

Ponentzia nagusia Teresa Mauri Majós irakasleak eman zuen, jardunaldiko gaiari buruz. Mahainguruan Iruñeko “Navarro Villoslada” BHIko, Iruñeko “Santo Tomás/Dominicas” ikastetxeko eta Tuterako “Benjamín de Tudela” BHIko zuzendaritza-taldeek parte hartu zuten. Bertaratutakoek egindako balorazioa oso ona izan zen. Jardunaldiaren edukia argitalpen xume batean jaso zen.

32

33

34

II. Jardunaldia, 2000ko apirilaren 8an egin zen, gai hau hartuta: “Kultura arteko Eskola. Egoera eta proposamenak”.

35

36

62 ikastetxetako 188 pertsona izan ziren bertan, 39 ikastetxe publikotakoak eta 23 pribatutakoak. Guztien %70 irakaslea zen, eta %25 familia.

1 Ponentzia nagusia José Antonio Jordán jaunak egin zuen, Bartzelonako Unibertsitate
2 Autonomoko Pedagogia sistematiko eta sozialeko irakasleak.

3 Hobetzeko proposamenak eta esperientziak Tuterako “Elvira España” ikastetxe publikoko eta
4 Iruñeko “La Compasión” itunpeko ikastetxeko kideek azaldu zituzten.

5 Finkatutako helburuak ongi bete ziren.

6 Jardunaldiaren edukia argitalpen xume batean jaso zen.

7
8 **III. Jardunaldia, 2001eko apirilaren 7an egin zen, gai hau hartuta: “Bizikidetzaz
9 ikastetxeetan”.**

10 69 ikastetxetako 223 pertsona izan ziren bertan, 46 ikastetxe publikotakoak eta 23
11 pribatutakoak. Guztien %25 familien ordezkariak ziren.

12 Ponentzia nagusia Fernando Justicia Justicia jaunak egin zuen, Granadako Unibertsitateko
13 Psikologia Ebolutiboko katedradunak, gai hau hartuta: “*Eskolako bizikidetzaz: egoera eta
14 ikusbideak*”.

15 Hobetzeko proposamenak eta esperientziak azaldu zituztenek ikastetxe hauek ordezkatzeko
16 zituzten: Tuterako “Griseras” ikastetxe publikoa, Martzilla eta Barañaingo BHI, Iruñeko
17 “Salesianos” ikastetxe pribatua eta Atarrabiako “Paz de Ziganda” ikastola.

18 Oro har, eta egindako inkestaren azterketa hutsean oinarrituta, balorazioa nahiko positiboa da
19 alderdi guztietan. Argi gelditu zen topaketa urtero egiten jarraitzeko nahia.

20 Argitalpentxo bat egin zen jardunaldi horretako edukiekin.

21
22 **IV. Jardunaldia, 2002ko apirilaren 20an egin zen, gai hau hartuta: “Familien parte-hartzea
23 ikastetxeetako bizitzan”.**

24 57 ikastetxetako 180 pertsona izan ziren bertan, 38 ikastetxe publikotakoak eta 19
25 pribatutakoak. Guztien %35,5 familien ordezkaria zen.

26 Ponentzia nagusia Jaume Sarramona i López jaunak egin zuen, Kataluniako Generalitateko
27 Hezkuntza Sistemaren Ebaluaziorako Goi-mailako kontseiluko lehendakariak.

28 Hobetzeko proposamenak eta esperientziak azaldu zituztenek ikastetxe hauek ordezkatzeko
29 zituzten: “Tierra Estella” BHI, Iruñeko “San José de Calasanz” ikastetxea, Herrikoa eta
30 Concapa-Navarra Ikasleen Gurasoen Federazioetako ordezkariak eta Nafarroako Ikastolen
31 Federazioko ordezkaria.

32 Topaketan aurreko urteetako giroa izan zen, baina partaidetza zertxobait txikiagoa.

33 Argitalpentxo bat egin zen jardunaldi horretako edukiekin.

34
35
36 **V. Jardunaldia, 2003ko apirilaren 12an egingo da, gai hau hartuta: “Irakasleak:
37 prestakuntza, eginkizunak eta tutoretza”.**

38 Programa honako hau izan zen.

39 Ponentzia José Antonio Marina Bigarren Hezkuntzako irakasle eta idazlearen eskutik, gai hau
40 hartuta: “Irakasleak: prestakuntza, eginkizunak eta tutoretza”.

41 Gaiari buruzko mahaingurua. Protagonizatu zutenak hauek izan ziren. Isabel Valdelomar
42 andrea, eskola-orientatzailea, M^a Paz Mateo andrea, zuzendariorde eta irakaslea eta Kathy
43 Lecumberri andrea, irakasle tutorea, aniztasuna aintzat hartzea.

44
45 **5.6.2.2.) HERRIKOA.**

46 Nafarroako Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioak, integratutako 124 elkarteekin (2002
47 urtea), 2001/2002 ikasturtean euren elkarteetako zuzendaritza batzordeei zuzendurik honako
48 ikastaro hauek egin zituen:

- 49 - Heziketa ez sexista.
- 50 - Orientabidea eta Tutoretza
- 51 - Eskola kontseiluak
- 52 - Batzordeen osaketa
- 53 - Zerbitzu osagarriak (eskola-garraioa eta jantokia)
- 54 - Eskola denborak eta eguna
- 55 - Kulturantzatasuna eta Integrazioa Nafarroan.
- 56 - Parte-hartzea.
- 57 - Irakaskuntzaren Kalitateari buruzko Lege Organikoa.

58 2002/2003 ikasturtean honako prestakuntza-jarduera hauek egin ziren:

- 1 - Gurasoen elkarteekin batzordeak trebatzeko tailerrak.
 2 - Eskola kontseiluetako kideak trebatzeko tailerrak.
 3 - Lanbide Heziketako Jardunaldia.
 4 Beren Baliabide Zentroa dute:
 5 - Hainbat gairi buruzko materiala jasotzen duen artxiboa.
 6 - Hainbat gairi buruzko adituen fitxategia, gurasoen elkarteekin prestakuntza-eskariei aurre egiteko interesgarri izan dakizkigukeenak.
 8 - Batzordeko kideak.
 9 - Iruñeko Udalaren Trebakuntza Programa (ponenteen ordainketa).
 10 Erakunde honek Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen du:
 11 - 2000 urtea: 4.090.000 Pta.
 12 - 2001 urtea: 3.196.600 Pta.
 13 - 2002 urtea: 19.578 € (3.257.505 Pta.)
 14 - 2003 urtea: 21.062 €.

5.6.2.3. CONCAPA-Navarra.

19 CONCAPA-Navarra Guraso Federazioak 41 guraso-elkartek osatzen dute; elkarte horietako gehienak itunpeko irakaskuntzakoak dira. 2001/2002 ikasturtean honakoak antolatu zituzten:

22 *Guraso elkarteetako zuzendariak trebatzeko ikastaroa.*

- 23 - 12 orduko iraupena.
 24 - Guraso elkarteetako kide izan nahi duten gurasoak prestatzeko.
 25 - Federazioko gurasoek ematen dituzte saioak.
 26 - Trebakuntza Ikastaroaren eskema hau izan zen:

27 Lehenengo saioa:

28 Gurasoak motibatu ziren ikastetxeetako eskola-bizitzan parte har dezaten; horretarako, gurasoek seme-alaben hezkuntzan duten eginkizuna joratu zen, eta, halaber, gurasoek ikastetxeetako eskola kontseiluetan parte hartuz guraso elkarteekin eta ikastetxeekin duten harremana.

32 Bigarren saioa:

33 Bigarren saio honetan gai hauek joratu ziren:

- 34 - Espainiako Hezkuntza Sistemaren Deskribapen Orokorra.
 35 - Gurasoek euren seme-alaben heziketan dituzten eskubide eta betebeharrak.
 36 - Hezkuntzaren finantzaketa Espainian. Hezkuntza-hitzarmenen sistema.
 37 - Ikastetxeetako eskola kontseiluen osaera eta jardunbidea.
 38 - Guraso elkarteekin eragiten dien lege-araudia. Horiek eratzeko eskakizunak. Estatutu-ereduak. Guraso elkarteekin Elkarteekin Erregistroan kudeatu beharreko dokumentazio administratiboa (izena ematea, bazkide-liburua, akta-liburua, etab.)

41 Hirugarren saioa:

42 Saio bat egin zen parte-hartzaileak TALDE-DINAMIKAN trebatzeko, beharrezko tresnak izan ditzaten guraso elkarteetako zuzendaritza-batzordeekin bilerak bideratzeko.

45 Erakunde honek Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen du:

- 46 - 2000 urtea: 2.904.000 Pta.
 47 - 2001 urtea: 2.220.100 Pta.
 48 - 2002 urtea: 13.238 € (2.202.617 Pta.)
 49 - 2003 urte: 11.922 €.

5.6.2.4.) SORTZEN.

53 Federazio honek ikastetxe publikoetako euskarazko D ereduaren 30 guraso elkarte biltzen ditu (2002 urtea). 2001/2002 ikasturtean honakoak antolatu zituzten:

- 55 - 2002ko martxoak 9: *Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuari buruzko Jardunaldia*. Ponentea: Ana Eizaguirre and.
 57 - Bertaratuak: 13.

- 1 - Ponentearen balorazioa: Oso ona.
 2 - Gaiaren balorazioa: ona.
 3 - Hurrengo jardunaldietan eztabaidatzeko gaiak: konfiantza norbere buruan, ezetz esaten
 4 jakin. Nola sartu hizkuntz proiektua hezkuntza proiektuaren barruan. Eskola-porrota, nola
 5 antzeman. Bizikidetzak ikastetxeetan (irakasleak, gurasoak, ikasleak). Hezkuntza familian.
 6 Gizartearen erantzukizuna hezkuntza-jardueran. Nola tratatu ikasleen arteko eta ikasle eta
 7 irakasleen arteko gatazken konponbidea.
 8 - 2002ko maiatzak 4, *Ikastetxeetako Bizikidetzari buruzko Jardunaldia*. Ponentea: Javier Arza
 9 jn.
 10 - Bertaratuak: 8.
 11 - Ponentearen balorazioa: oso ona.
 12 - Gaiaren balorazioa: interesgarria eta iradokitzailea.
 13 - Hurrengo jardunaldietan eztabaidatzeko gaiak: Guraso elkarten konpromisoa
 14 gurasoak bertaratzeko lortzeko. Gurasoen inplikazioa seme-alaben heziketan.
 15 Afektibitate eta emozioen garapena. Familiaren diziplina-esparrua.

16
 17 Erakunde honek Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen du:

- 18 - 2000 urtea: 1.500.000 Pta.
 19 - 2001 urtea: 1.183.300 Pta.
 20 - 2002 urtea: 6.849 € (1.139.577 Pta.)
 21 - 2003 urtea: 6.673 €
 22
 23

24 **5.6.2.5.) Iruñeko Udalaren Plana guraso elkarteak trebatzeko.**

25
 26 Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako guraso-elkarten trebakuntza programari
 27 1996/97 ikasturtean ekin zitzaion. Programak elkarren artean lotura zuzena duten bi ardatz
 28 nagusi ditu: *hezkuntza-kalitatea eta parte-hartzea*.

29
 30 Programak elkarte bakoitzak bere hezkuntza-eredua egiten (metodologia, edukiak, ponenteak
 31 eta egutegia) duen erantzukizuna babesten du, eta familien hezkuntza proposatzen du
 32 helburutzat; horrela, *gurasoei euren eta euren seme-alaben garapen pertsonalean eta eskola
 33 eta gizarte komunitatearenean subjektu aktiboaren eginkizuna hartzen lagundu nahi die*.

34
 35 Hori dela eta, Programa Udalarena izateak jarduera horiek eskolaz haratago bideratzea dakar,
 36 hau da, *hiriaren esparrura zabaltzea*, hiri hiritarren bizikidetzarako esparru den aldetik. Aukera
 37 ematen du ingurune fisiko eta sozialari lotutako edukiak sartzeko eta, era berean,
 38 programatutako jardueretan ezaguerak zabaltzea nahi dituzten herritarrek ere parte hartzeko.

39
 40 *Eredu partekatua.*

41
 42 Trebakuntza Programaren lan esparruak *hiru sistema instituzionaletan* du eragina: Udala,
 43 Hezkuntza eta Kirol arloaren bitartez, programa egiteko baliabide materialen eta giza
 44 baliabideen sustatzaile eta sortzailea da.

45
 46 Iruñea Hiri Hezitzaileen Sarean sartua da. Horrekin bat etorritik, Hezkuntza eta Kirol arloak bere
 47 egin ditu Hiri Hezitzaileen Kartaren orientabideak (1.990), eta ondorioz *ahalegina egiten du
 48 hezkuntza prozesu integratzaileak eta herritarrei laguntzekoak bultzatzen*. Horrela, partaidetza
 49 sozialerako bideak sustatzen ditu eta gure gizartearen dauden hezkuntza ereduaren eraikuntzan
 50 eta hausnarketan familiak inplikatzeko bultzatzen du.

51 *Eskola esparru fokalizatzaile gisa; esparru horretan elkarteak hezkuntzaren kalitatea
 52 hobetzeko tresna dira, eta inguruneko testuinguru sozial eta kulturalarekiko bitartekari.*

53
 54 *Hainbat gai biltzen* dituen esparrua: hezkuntza, harremanak, antolakuntza, partaidetza,
 55 ingurunearekiko elkarreragina...; horiek zehazten dute guraso elkarten eginkizuna, eta guraso
 56 elkarten prestakuntza egituratzen duten edukietako zati garrantzitsu bat dira.

57 *Familiak agente hezitzaile gisa euren ingurune naturalean, eskola-antolamenduaren barruan
 58 eta bizi duten testuinguru sozialean.*

1
2 *Antolakuntza-egitura bat*

3
4 Iruñeko Udalak esparru komun bat eskaintzen du hiriko guraso-elkarteetan dauden
5 prestakuntza behar eta interes anitzak modu ireki, malgu eta dinamikoan bateratzeko.

6
7 Prestakuntza askatasuna.

8
9 Guraso elkarte bakoitzak bere “prestakuntza ildo” zuzentzen du, behar duen orientabidea
10 erabakitzen du eta programan hartzen duen inplikazio-maila hautatzen du.

11 Elkarrekin eta federazioek beren protagonismoa dute jarduera-faseetako bakoitzean, eta horrela
12 egia bihurtzen da partaidetzaren kontzeptua, betiere euren askatasuna eta berariazko
13 hezkuntza-orientabidea ziurtatuz.

14 “Prestakuntza-ildo”tzat honakoa ulertzen dugu: edukiak, profesionalak, prestakuntza-
15 modalitateak, denborak, antolamendua... Erabaki horiek hartzeko, hala behar izanez gero
16 badute BIDARI profesional-taldearen aholkularitza eta orientabidea.

17
18 *Aholkularitza*

19
20 BIDARI talde esleipendunaren esku. Eginkizunak kudeaketa, aholkularitza eta orientabidean
21 zehazten dira.

22 Bere jardueraren abiapuntua Hezkuntza eta Kirol Arloak eskaintzen dituen baliabideen
23 kudeaketa da, eta parte hartzen duten taldeek mahairatutako eskaeretan orientabidea eta
24 aholkularitza ematen du.

25 Eskatzen duten elkarte eta federazioei laguntza eman diezaietke jarduera-estrategia egokiak
26 bilatuz, edukiak argituz, profesionali buruzko orientabidea emanez...elkarte horien
27 prestakuntza-beharrak betetzeko.

28 BIDARI Taldea beste prestakuntza-baliabide bat gehiago da, programa erabiliz eskuratu
29 dezaketena: zehazpenean aholkatuz edota zuzenean hezkuntza-prozesuetan esku hartuz.

30
31 *Esperientziak batzea.*

32
33 Programak bere egiten ditu guraso elkarte bakoitzak eta federazioek eduki, egutegi, estrategia,
34 profesional eta prestakuntza-ereduen eta abarren arloan eskuratu duten esperientzia
35 Prestakuntza-esperientziak eta dagoeneko abian diren lan-ildoak bateratuz edota osatuz,
36 *errealitate horietako bakoitzaren zabalkundea, aniztasuna eta aberastasuna errazten da*, eta
37 era berean hiri-ikuspegi bateratua ematen du.

38
39 **Egitura**

40
41 *Udalaren Prestakuntza Programaren arau orokorrak prestakuntzako guztira 360 ordu erabiltzea*
42 *ezartzen du: 8 ordu guraso elkarte/ikastetxe bakoitzeko eta federazio bakoitzeko ikasturte*
43 *batean.*

44 Halaber, ezartzen du aukera dagoela erabiltzen ez diren orduekin “fondoak” sortzeko, eta
45 prestakuntza-eskaintza handitu nahi duten elkarteek horietara jo dezaketela.

46 Egitura **programa-esparru komun** bat da, eta honakoak hartzen ditu: prestakuntza-
47 modalitateak, gai-multzoak, denbora-faseak eta ebaluazioa.

48 Edukietan nolabait sakontzeko aukera ematen duten “prestakuntza ziklo” praktikoak sustatzera
49 bideratuta dago.

50
51 **BIDARI Taldea.**

52
53 Talde honen kudeaketak autoprestakuntza-prozesuen garapena erraztu dezan, proposatutako
54 metodologiaren osagai garrantzitsuak dira, alde batetik *profesional taldearen “aholkulari-*
55 *orientatzailerik* eginkizuna betetzea, eta, bestetik, *elkarrekin batzordeekin topaketak egituratzea*
56 programan duten inplikazio-maila zehazteko.

57 Taldeak eskatzen duten elkartei euren prestakuntza-programa zehatza zehazten laguntzen
58 die, gauzak elkarrekin argituz eta erabakiak hartuz. Beste baliabide bat gehiago da kudeaketa-

1 alderdiak errazteko, eta gainera berariazko prestakuntza eskain diezaieke elkarrekin zuzentzen
2 dituzten pertsonen.

3
4 Uste dugu elkarrekin bakoitzean erantzukizunak dituzten pertsonen *berariazko prestakuntza* behar
5 dutela, ikastetxean dituzten eginkizunak ezagutzeaz gain. "Lan-taldeak" diren aldetik, euren
6 lanak betetzen lagunduko dieten antolakuntza-trebetasunak eta ezaguerak behar dituzte.
7 Testuinguru horretan agertzen dira, halaber, erabakiak hartzearekin, zailtasunekin eta talde
8 barruko tentsioekin lotutako gaiak, euren ahalmenean eta euren jardueren kalitatean eragiten
9 baitute.

10
11 Gai horiei aurre egiteko, BIDARI Taldeak egoera praktikoei buruzko hausnarketa eta
12 prestakuntza lana eskaintzen du, pertsonen eta taldeen esku-hartzeen kalitatea –egiten jakitea-
13 hobetzeko. Prestakuntza hori, beraz, trebetasun komunikatibo eta instrumentalak eskuratu eta
14 areagotzera bideratuta dago, eta lankidetzarako gaitasunak garatzen laguntzera. Azken batean,
15 norberaren eta taldearen garapenerako prestakuntza praktikoa da.

16 *Ebaluazioa*

17
18 Nahi duten elkarrekin balorazio-eskema eskaintzen dugu, parte-hartzaileek jardura
19 ezberdinez dituzten iritziak jasotzeko. Eskema hori aldatu edo osatu egin dezakete.
20 Programa bakoitzaren ebaluazioan kontuan hartzen ditugun elementuak hauek dira:

21 **Zer**

- 22 - Programaren *emaitza orokorrak*, eraginak, jarraipena izateko aukera...
- 23 - Prozesua: partaidetza-maila, garapen-maila, jarduerak, egokitasuna, lortutako gogobetetze-
24 maila...
- 25 - *Egitura*: laguntza, denborak, ordutegiak, modalitateak...

26 *Nork.*

- 27 - Parte-hartzaileak.
- 28 - Guraso elkarrekin.
- 29 - Federazioak
- 30 - BIDARI Taldea

31 *Nola.*

- 32 - Behaketak gidaren bidez (segimendua)
- 33 - Galdera-sortak parte-hartzaileei eta elkarrekin.
- 34 - Egituraren erregistroak.
- 35 - Bilerak guraso elkarrekin eta federazioekin.

36 *Noiz.*

37 Aurreikusitako fase bakoitzean; horrela beharrezkoak diren aldaketak eta
38 hobekuntzak egin ahal izango dira programa betetzerakoan.

39 Balorazio horiek zehazki nola egin eta aurkeztutako dokumentu horien erabilera parte hartzen
40 duen talde bakoitzak erabakitzen ditu. Prestakuntzara bideratutako modalitateen dinamikari
41 ebaluazioa funtsezko fasea dela uste dugu, eta uste dugu subjektu bakoitzak adierazi ahal izan
42 behar duela esku hartu duten elementuei buruz. Beraren bitartez, atzerarikadura jasotzen
43 dugu, ongi eginak eta eskasiak adierazten dizkigu eta etorkizunean nola jokatu behar den
44 jakiteko orientabideak ematen dizkigu.

45 *Udal Prestakuntza Programa guraso elkarrekin.*

46 1996-97 ikasturtean hasitako programa hau Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe
47 publiko eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarrekin zuzenduta dago, eta bere
48 helburu orokorra Hiri Hezitzaileen Kartako zortzigarren puntua garatzea da. Karta udalbatzaren
49 1995eko abenduaren 22ko erabakiaz izenpetu zen, eta zortzigarren atalean hau dio: "Hiriak
50
51
52
53
54
55
56
57

1 ahalegina egingo du gurasoek prestakuntza jaso dezaten euren seme-alabei hezten laguntzeko
2 eta hiria elkar-errespetuaren izpiritua baitan erabiltzeko (...).
3

4 Gure ikuspuntutik, gurasoek euren seme-alaben prozesu psiko-ebolutiboa ezagutzen badute
5 eta, era berean, ikastetxeen jardunbideko barne-dinamikak ezagutzen badituzte, errazagoa da
6 eskolako prozesuetara hurbiltzea eta horietan parte hartzea.

7 Udalaren ekimen honen bitartez guraso elkarteek edukien programa esparru bat eskaintzen zaie
8 hitzaldi monografikoen eta sakontze tailer edo mintegien bidez garatzeko, gai ezberdinetako
9 profesionalek zuzendurik. Programa-esparru hori elkarte bakoitzaren beharretara egokitu
10 daiteke.

11
12 2001-2002 ikasturtean 46 elkarte eta federazioak parte hartu zuten, Iruñean dauden 48etatik;
13 guztira 4.679 pertsonak parte hartu zuten, 197 informazio eta prestakuntza saioren bitartez;
14 guztira 350 ordu. Gai ezberdinetako 73 ponente izan ziren guztira (aurreko ikasturtean baino 7
15 gehiago).

16 Hitzaldi eta mintegietan landu diren gaiak honako epigrafe orokor hauetan bil daitezke:

- 17
18 - Hiri Hezitzailea: sormena, aisia, astialdia 16 saio (%8,24)
19 - Komunikazioa: nor irakasten digu guraso izaten?, guraso-
20 seme/alaben komunikazioa, elkarriketa familiaren baitan 48 saio (%24,74)
21 - Osasun-ohiturak: elikadura, droga-mendekotasunak, sexu-
22 heziketa 30 saio (%15,46)
23 - Menu irekia: sarbidea bigarren hezkuntzara; haurren
24 agresibitatea; familia gaur 67 saio ... (%34,53).
25 - Familien parte-hartzea: 19 saio (%9,79)
26 - Zeharkakoak: 17 saio (%8,76)
27

28 2002ko irailean hasitako 2002-2003 ikasturteko programari dagokionez, aipagarria da elkarte
29 gehienek lehenengo hiru hilabete horretara aurreratu dutela euren jardueraren programaren
30 zehaztapena, eta 3 elkarte euren jarduerak amaitu dituzte (Elorri, Hegoalde eta El Redin).
31
32

154. taula							
Iruñeko Udalak guraso elkarteak trebatzeko ezarritako programen 1996-2003ko ibilbidea							
Ikasturtea	96-97	97-98	98-99	99-00	00-01	01-02	02-03
Inplikaturako elkarte eta federazioak	44	46	48	46	46	47	47
Parte hartu duten elkarte eta federazioak	42	43	46	41	46	46	46
Parte-hartzaileak guztira	4.075	6.027	5.438*	4.926	4.121	4.679	5.183
Prestakuntza saioak	176	195	204	187	144	197	212
Konferentziak	0	14	9	7	8	8	8
Hitzaldiak	119	115	120	116	111	141	125
Mintegiak	9	20	19	16	27	7	34
Tailerak	48	46	56	48	55	41	45
Mahainguruak	0	0	0	0	2	0	0
Emandako orduak	305	315,5	338	337	349,5	350,5	354,5
Ponenteak	48	50	62	51	66	73	73

33
34 **Prestakuntza-modalitateak:**

35
36 Laburki, prestakuntza-modalitateak hauek dira:

- 37 - *Konferentzia*: ponente batek jende askoren aurrean egiten duen hitzaldi magistrala
38 Izaera teorikoa eta informatiboa.
39 - *Hitzaldia*: ponente batek jende-multzo nahiko handiaren aurrean egiten duen hitzaldi
40 hurbila. Izaera informatibo-praktikoa, elkarriketara bideratua.
41 - *Mintegia*: prozesu dinamikoak, pertsona-talde batek konpromisoa hartzen du modu
42 erregularrean bertaratzeko, eta profesional batek edo gehiagok parte hartzen dute.

1 aurrea hartzeko teknikak eta lanabesak ere sartzen dira -"lehen laguntzak", "erlaxatzeko eta
2 jarreretan berriz hezteko teknikak", "barreterapia"...

3
4 Gehien eskatutako arloak hauek dira:

5 *Elikadura.* Osasun-ohituren barruan, elikadura da urtez urte familien interesa pizten jarraitzen
6 duen arloetako bat. Jardueretan zalantzak argitzen dira, ildo orokorrak ezartzen dira "elikadura
7 osasuntsu eta orekaturako ohiturak" bultzatzeko, "anorexia eta bulimia bezalako elikadura-
8 nahasmendu"ei aurrea hartzeko, edota gaur egun dauden elikadura-alderdien berri emateko,
9 hala nola, "kontsumo ekologikoa"ren berri.

10 *Arazo mendekotasun-sortzaileak.* Gurasoek alkohol eta drogen kontsumoari buruzko
11 informazioa eskatzen dute lehenengo etapetatik hasita: haur eta lehen hezkuntzatik; gai
12 hauetara bideratutako hitzaldi, mintegi edota tailerren helburu komuna AURREA HARTZEA da,
13 informazioaz eta arrisku-egoeretan esku hartzeaz gainera.

14
15 *Sexualitatea.* "Afektibitate eta sexu heziketa", "seme-alaben aldaketa fisiko eta hormonalak",
16 "sexualitaterako prestakuntza nerabezaro-aurrean", horiek dira arlo honetan lantzen diren
17 gaietako batzuk. Sexualitatea eta gure gorputzaren ezaguera eta onarpena oso garrantzitsuak
18 dira norberaren garapen-prozesuan eta pertsonen arteko harremanetan".

19
20 **- komunikazioa**

21
22 Gaiak pertsonen arteko harremanei eta giza taldeen dinamikari buruzkoak izaten dira, pertsona-
23 pertsona arteko harremanak, familiakoak edo lan-taldeetakoak izan. Gaiak jorrazteko erabiltzen
24 den metodologiak trebetasunak praktikatzea eta norberaren esperientzia errazten ditu (tailerra
25 edo mintegia), nahiz eta informazio gisa ere aurkeztu daitezkeen (konferentzia edo hitzaldia).

26 Familien arreta gero eta gehiago hartzen duten edukiak biltzen ditu. Esan dezakegu giza
27 harremanen "zehar" arlo bat dela. Pertsona "komunikatzen den izaki" gisa hartuta, aukera
28 ematen du komunikazio-jardunak aztertu eta ulertzeko (zer eta nola egiten dut) bere
29 kalifikazioari erantzuteko.

30
31 Atal honetan biltzen diren gaiak aukera ematen dute familia arteko harremanak modu
32 zehatzagoan antzemateko eta familia sistemen eta bere elementu komun eta berezien
33 konplexutasunera hurbiltzeko. Familia arteko komunikazio-prozesuei buruzko hausnarketak, eta
34 horiek pertsonen emozio eta ekintzekin duten harremanak, "komunikazio" hitzaren sustraira
35 bertara eramaten gaituzte: elkarrekin egiten dugun hori.

36
37 Komunikazioa norberarekin / norberarengandik. Programan parte hartzen duten
38 gurasoek, esperientzia zuzenaren bitartez, euren buruarekin nola komunikatzen
39 ohartu eta horretaz hausnartu dezakete: "neure buruari entzuten diot?", "naizen
40 bezalako onartzen naiz?", "zer da asertibitatea?", "zer da auto-estimua?"... Pertsona
41 batek bere burua onartzea eta bere buruarekiko harremana erabakigarria da
42 besteekiko harremanerako eta seme-alaben hezkuntzarako. Norbere esperientziatik
43 abiatuta, helduek beren seme-alabek nola egiten duten eta elkarrekin nola egiten
44 duten ikus eta uler dezakete.

45
46 *Komunikazioa besteekin.* Agintea, arauak, gatazkak, errespetua, elkarriketa..., pertsonen
47 artean dugun komunikazioari eragiten dioten gaiak dira. Arreta bideratzen dugu pertsonen
48 arteko dinamikak ulertzera eta elkarriketa, konfiantza eta bizikidetzatza errazten edo zailtzen
49 duten elementuak ulertzera: "nola entzuten dut?", "pertsona enpatikoa ote naiz?", "zer da
50 enpatia?", "nola hobetu dezaket nire komunikazioa?"... Gaiaren ardatza bikotea, familia delarik.

51
52 *Komunikazioa familian.* Aurreko ataletik bereizten duena da familiaren esparruan lantzen dela:
53 "nola komunikatzen gara seme-alabekin?", "komunikazio argirako jarraibiderik ba al dugu?",
54 "nola hitz egiten dugu gure bikotekidearekin?", "famili arauak?", "agintea familian?", "gatazkak,
55 banantzea", "familiako ageritibitatea, tratu txarrak, abusoak..."...

56
57 **- Familien parte-hartzea (batzordeak eta taldeak)**

1 Atal honetako edukiak lotuta daude guraso elkartearen dinamikekin, elkarte horien jarduera
2 sozialaren esparruarekin eta euren helburuak lortzeko moduarekin. Prestakuntza praktikoa
3 baliabide pertsonalak eta eguneroko jardunean agertzen diren talde-dinamikak hobetzeko;
4 formaturik egokiena mintegia edo tailerra da.

5 Atal honetan guraso-elkartearen federazioek eta behar zehatzak dituzten elkarteek landu ohi
6 dituzten gaiak ere sartzen dira. Edukien atal horrek aukera ematen du irakasle eta familiak
7 batera jarduteko; lankidetzaren hezkuntza-kalitatearen adierazle gisa azpimarratzen dute
8 azterketek, baina hala ere ez da askorik islatzen hausnarketa partekatuen eta baterako
9 prestakuntza prozesuen diseinuan.

10
11 Halaber, esparru honetan elkarte eta federazioen arteko lankidetzaren aukerak egituratu daitezke,
12 eta horrela gune batzuk sortu komunak dituzten gaiak eta bizi izandako esperientzia anitzak
13 partekatu eta kontrastatzeko.

14 *Familien partaidetza eskolan.* Seme-alaben hezkuntza: familiaren eginkizuna edo eskolaren
15 eginkizuna? Gurasoak hezkuntza-prozesuetan sartzea. Familien laguntza errazteko estrategiak.
16 Guraso eta irakasleen inplikazioa baloreetan oinarritutako hezkuntzan. Kultur aniztasunaren
17 integrazioa. Familien partaidetza ikastetxeko hizkuntz proiektuan. Familia - ikastetxea
18 harremanak.

19 *Batzordearen jardunbidea.* Ikastetxeen organigrama. Barne-erregelamenduak. Eskola
20 kontseiluentzako prestakuntza. Zuzendaritza batzordeen antolakuntza. Batzordearen
21 etorkizunaren plangintza. Batzordeak zuzendaritzarekin eta irakasleekin dituen harremanak.

22
23 *Partaidetza elkartearen.* Taldeetako bizitza. Gidaritza. Erabakiak hartzea. Lankidetzaren taldean.
24 Elkarteetako berritze-prozesuak, trantsizioak. Gatazkak konpontzea. Zuzendaritza-taldearen
25 gainbegiraketa.

26 *Gurasoen eskolak sortzea.*

27 *Gatazka eta bitartekotza ikastetxeetan.*

30 - Zehar-gaiak.

31
32 Aukera ematen du familiak eta ikastetxeek batera lan egiteko jarrera eta jokabideen
33 hezkuntzan, dinamika horretan honako hauek hartuz: ikasgela – ikastetxea – etxea; ikasleak –
34 irakasleak – familiak. Edukiak informazio modura aurkez daitezke, egokiagoa da prozesu
35 praktikoetan sakontzea.

36 Zehar-gai gisa biltzen diren gaiak balore eta jarreraren ingurukoak dira eta helduen inplikazioa eta
37 lankidetzaren eskatzen dute, bizikidetzaren, jokabideen eta bat datozen ohituren dinamikan.

- 39 - Zehar-gaien definizioa eta esanahia. Heziketa aniztasunean. Ingurumen Hezkuntza.
- 40 Hezkuntza Ez Sexista. Hezkuntza bizikidetzarako, kontsumorako, lankidetzarako,
- 41 Bakerako, tolerantziarako...
- 42 - Baloreak argitzea. Baloreetan heztea. Familietan baloreetan heztea. Gizakiaren profila hain
- 43 anitza den gizarte batean. Balore partekatuak.
- 44 - Familia eta eskola. Balore adieraziak, balore gauzatuak...
- 45 - Hezkuntza eta elkartasuna.
- 46 - Berdintasuna – Ezberdintasuna. Aniztasuna. Hezkuntza-behar bereziak.

49 - Hiri hezitzailea.

50
51 Elkarte eta federazioek eskola eta hiriaren artean, familia eta gizartearen artean betetzen duten
52 "gizarte-bitarteko" izaerari buruzko gaiak. Familiaren esparruaz eta eskola-ordutegiak kanpo
53 Haurtzaroko eta Nerabezaroko bizi-kalitatean eragiten duten gaiak. Gizarte-agenteen artean
54 elkartzeko eta hausnartzeko guneak sortzea erraztu nahi du, herritar guztien ongizatera
55 bideratutako ekintzak sortu ahal izateko.

56
57 Informatzeko eta gizartearen parte hartzeko bideak. Hiriko bizitzarako prestakuntza.

- 1 - Gurasoek seme-alabei eskaintzen dieten denbora. Familia eta aisia. Zer egin seme-alabekin asteburuan?. Astialdia. Aisia eta telebista.
- 3 - Haurrek gehien ikusten dituzten bideo eta telebista-programen azterketa kritikoa.
- 4 - Irakurketa etxean. Ipuinak eta kontakizunak. Haur eta gazte literatura.
- 5 - Auzoen etorkizun urbanistikoa. Hiri bat Haurtzarorako?
- 6 - Emakumeak XXI. mendeko gizartean. Izan nahi dudana emakumea.
- 7 - Gizonezkoak eta Haurtzaroren zainketa, Europako politikak.
- 8 - Famili erantzukizunen banaketa eta lan-esparrua.

5.6.3. Familiari Laguntzeko Plana.

Nafarroako Gobernuak Familiari Laguntzeko Plana onetsi zuen 2001eko maiatzaren 7an, eta Parlamentuak bere babesia eman zion testuari 2002ko martxoaren 12an eta apirilaren 11n. Plan horren barruan eskola-adineko ikasleen gurasoekin egiteko ekintza asko sartzen dira. Laburpen bat honakoa izan liteke:

155. taula		
Familiari Laguntzeko Plana: eskola-adineko ikasleen gurasoekin egiteko ekintzak		
Zk.	Jarduera-neurriak	Erakunde arduraduna
Hezkuntza eta familia, elkarri laguntzen dioten bi instituzio		
1	Ikastetxeetan gurasoen eskolak sortzea bultzatuko da, batez ere haur hezkuntzako bigarren zikloan, horretarako laguntzak eta aholkularitza teknikoak eta pedagogikoak eskainiz eta programazio eta material bereziak eginez	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia
2.	Ikasleen Gurasoen Elkarteei familietan asosiazionismoa sustatzeko lagunduko zaie.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia
3.	Nafarroako Eskola Kontseiluarekin elkarlanean kanpaina instituzionalak egingo dira eskola kontseiluetako partaidetza sustatzeko.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia (abian da)
4.	Irakasleak Trebatzeko Urteko Planetan berariazko moduluak sartuko dira tutoreei guraso eta ikastetxeen arteko harremana erraz dezaten teknikak eta metodoak irakasteko.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia (abian da)
5.	“Familia eta Hezkuntza”ri buruzko argitalpen-ildoak ezarriko da.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia
6.	Baloretan oinarritutako hezkuntzari buruzko berariazko materialen argitalpena sustatuko da, Ikastetxeko Ikasketa Proiektuak egitea edo berrikustea errazteko eta guraso-eskoletan erabiltzeko.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia
7.	Alderdi asko hartzen dituen eskola hezitzailea bultzatuko da: ingurumen hezkuntza, bakerako hezkuntza, kultura arteko hezkuntza eta garapenerako hezkuntza, hartara ikasleek jasotzen duten hezkuntzak ezaugarri hauek bete ditzan: gizon eta emakumeek aukera berdinak dituzten gizarte baten aldeko hezkuntza izatea, ingurumenarekiko errespetagarria, tolerantzia eta gatazken konponbide indarkeriarik gabekoa bultzatzen dituen eta herrialde, kultura eta herri ezberdinen arteko elkartasun eta kulturartekotasunaren aldekoa.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia (abian da)

8.	Babesa emango zaie baloreetan oinarritutako hezkuntzan sakontzea helburu duten ikastetxeen hobekuntza-planei.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia
9.	Baliabide urriko ikasle gehien dituzten ikastetxeetan administrazioek eredu bereziagoak sustatuko ditu, eta eredu horietan udalen, elkarteen, boluntarioen eta guraso elkarteen inplikazioa sartuko da.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia. Toki erakundeak. Guraso elkarteak. Gizarte Ekimeneko erakundeak (abian da)
10.	Gaur egun hezkuntza sisteman sortzen diren errealitate berriei (kulturaniztasuna, gutxiengo etnikoak eta etorkinak) erantzuteko berariazko programak sustatuko dira, barneko oreka lortzeko.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia. Toki erakundeak. Guraso elkarteak. Gizarte Ekimeneko erakundeak (abian da)
11.	Modu berezian babestuko dira familiaren baitan baloreetan oinarritutako hezkuntza ematearen inguruan guraso elkarte edo federazioek programatutako ekintzak.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia (abian da)
12.	Mekanismoak ezarriko dira gurasoei irakasle eta ikastetxeekin elkarlanean aritzeko moduari buruzko prestakuntza emateko.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia. Toki erakundeak. Guraso elkarteak.
18.	Famili Hezkuntzarako Baliabide Zentroa sortu eta abian jarriko da, familiak heziketa-prozesuan inplikatzeko eta baloreetan oinarritutako hezkuntza bultzatzeko.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia.
19.	Ikastetxeak modu intentsibo eta estentsiboan erabiliko dira aisia eta astialdiko jarduerak antolatzeko eta oro har familiari laguntzeko ekintzetarako.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia. Guraso-elkarteak. Udalak
20.	Eskolaz kanpoko jardueren kopurua areagotuko da, eta gurasoek ikastetxearen eskolaz kanpoko jardueren antolakuntzan parte hartzea sustatuko da. Eta horretarako diru-laguntzak eman beharko ditu Administrazioak. Hori horrela, ikastetxeak eskola-ordutegia baino ordutegi zabalagoan erabili ahal izatea sustatuko da, ikastetxea komunitatean txertatzen laguntzeko, komunitateari egiten baitio zerbitzua.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia. Toki erakundeak. Guraso elkarteak
21.	Eskolako materiala eskuratzeko laguntzen deialdian, errenta-mugak HKKMren deialdikoak baino %50 gorago ezarriko dira.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia (abian da)
22.	Ikasketa ertain eta goi-mailakoetarako Nafarroako Gobernuaren laguntza-deialdi orokorrean ehuneko hogeit hamar handituko da Negozio Bolumena eta Ondarearen muga famili unitateko kide bakoitzeko, bosgarren kideetik kontatzen	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia

	hasita.	
23.	Laguntzen deialdi orokorretan familia ugariagatik famili errentarako deskontuak ezarriko dira; 75.000 pta. hirugarren eta laugarren seme/alabarengatik, eta 100.000 pta. bosgarren, seigarrenarengatik...	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia (abian da)
24.	Famili errentaren deskontuak ezarriko dira famili unitateko kideren baten ezintasunarengatik; 250.000 pezeta %33ko edo gehiagoko ezintasuna duen kide bakoitzeko, eta 400.000 pezeta %66ko edo gehiagoko ezintasuna duen kide bakoitzeko.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia (abian da)
25.	Famili errentaren deskontuak ezarriko dira, 150.000 pezetakoa unibertsitate-ikasketak direla-eta kanpoan bizi den seme/alaba bakoitzeko, egoera horretan bi seme/alaba edo gehiago baldin badaude.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia (abian da)
Famili behar espezifikoak eta behar bereziak dituzten familiak		
1.	0-3 urte arteko zikloaren ezarpena arautuko da, eta hezkuntza eta laguntza izaerako eduki argia izango du.	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua (abian da)
2.	Berariazko lege bat onartuko da familia ugarietara laguntzeko, eta hor familiaren kontzeptua ikuspegi zabalago batetik hartuko da.	Nafarroako Gobernua (abian da) Onartua?
5.	Famili Bitartekotza, kasu horietan negoziazioa eta adostasuna errazten duena. Topagune bat gaituko da bisita-araudiaren aplikazioan adingabeen segurtasuna bermatzeko	Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua. Nafarroako Emakumearen Institutua (abian da)

5.6.4. Nafarroako gaur egungo egoerari buruzko balorazioak.

- Seme-alaben eskola-bizitzaren inguruan gurasoei prestakuntza ematea oraindik lortu beharreko zerbait da, modu nahiko antolatugabea eta batere sistematikoan tratatu baita.
Iruñeko Udala da jarduera handiena eta hoberena egiten duena.
- Gaur egun, eta inkesten arabera, familien gehienez ehuneko hamarrak hartzen du parte moduren batean guraso elkarteek proposatutako jardueretan.
- Normala den moduan, partaidetzaren ehuneko areagotzeko borondatea dago. Nafarroako Gobernuaren Familiari Laguntzeko Plana ezarpen-bidean dago eta helburu hori bilatzen du.
- Gaur egun abian diren guraso eskoletako taldeak urriak dira eta talde berriak sortzeko ahalegina egiten ari da.
- Batzuetan, talde horiek zenbait kideren lan borondatezko eta desinteresatuari esker egin dituzte beren saioak.

- 1 • Une honetan, nahi duten familiei euren seme-alaben hezkuntzari buruzko gaietan
2 prestakuntza osagarria emateko lana egiten ari da.
- 3
- 4 • Espero da Familiari Laguntzeko Plan hau abian jartzean prestakuntza-jarduera horri
5 bultzada berria ematea eta baliabideak modu eraginkorrean arrazionalizatzea.
- 6

7 **5.6.5. Iradokizunak eta proposamenak.**

- 8
- 9 • Iruñeko Udalaren jarduera-eredua beste herrietara zabaldu beharko litzateke, batez ere
10 biztanle gehien dituztenetara eta hiriburuko ingurabidera.
- 11
- 12 • Beharrezkoa da eskola kontseiluetako kideak trebatzea:
- 13 - Baliabideak eskaintzea guraso elkarteek eskola kontseiluak hobeto ezagutu eta
14 gurasoek horietan parte hartzeko aukerak zeintzuk diren jakin dezaten.
- 15 - Eskatzen duten guraso-elkarte guztiei laguntza eta informazioa ematea eskola
16 kontseiluen jardunbideari eta horien egitekoei buruz.
- 17
- 18 • Guraso-elkarteen batzordeetarako prestakuntza-arloa antolatu behar da:
- 19 - Hitzaldiak eta prestakuntza-jardunaldiak eskaini guraso-elkarteen jardunbidea lan-talde
20 gisa hobetzeko eta horien plangintza ere hobetzeko.
- 21
- 22 • Era berean, lehenbailehen sustatu beharrezkoa da “Gurasoen eskola”ren esparrua:
- 23 - Gurasoei prestakuntza emateko jardueren antolaketa sustatu, hezitzaile gisa duten
24 eginkizuna aberasteko eta Hezkuntza Komunitateko kide gisa euren partaidetza
25 hobetzeko.
- 26
- 27 • Guraso elkartei zuzendutako prestakuntza-eskaintza jarri behar da abian,
28 ikastetxeetako kultura arteko errealitateari pixkanaka aurre egin ahal izan diezaioten.
- 29
- 30 • Gurasoak parte hartzera animatu eta motibatu behar dira lehenbailehen. Hori dela eta,
31 uste dugu erakundeek gai honi lehentasuna eman behar diotela eta guraso-elkarte eta
32 federazioei gutxienezko azpiegiturak eta beharrezkoak diren baliabideak eman behar
33 dizkietela, egiten dugun lan soziala baloratu eta sustatzearekin batera.
- 34
- 35 • Hezkuntza administrazioekiko harremanak instituzionalizatu beharko liriateke, bai iritziak
36 elkarrekin trukatzeko, bai prestakuntza-eskariei edo bestelako eskaerei aurre egiteko
37 dagokion baliabide-zentroaren bitartez, etorkizuneko Familiari Laguntzeko Zentroaren
38 bidez edo gaur egungo Irakasleen Baliabideetarako eta Laguntzarako Zentroetan
39 (izena aldatu beharko lukete) berriazko unitateak sortuz.
- 40

41 **Nafarroako Eskola Kontseiluaren iritziz beharrezkoa da ikasleen gurasoen elkarte eta**
42 **federazioentzako diru-laguntzak gehitzea eta gutxienez 2000 urtean esleitutako**
43 **zenbatekoak berreskuratzea.**

5.7. Eskolaz kanpoko Jarduerak.

Eskolaz kanpoko Jarduerei buruzko araudia, 2002-03 ikasturtea	
146/2002	Foru Dekretua, uztailaren 2koa. Arautzen ditu Nafarroako Gobernuarekin itundutako ikastetxe pribatuaren eskolako jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola zerbitzuak. (NAO, 108 zk., 02/09/6koa).
425/2002	Foru Agindua, abuztuaren 27koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, 2002-2003 ikasturterako ikasleen garraio zerbitzu batzuen lehiaketa publikoaren bidezko kontratazioa esleitu eta beste batzuen eman gabe uzten duena. (NAO, 134 zk., 02/11/6koa).
431/2002	Foru Agindua, irailaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, ikastetxe publikoetan eskola garraioko zerbitzua egiten duten enpresen kontratuak 2002/2003 ikasturterako luzatzeko baimena ematen duena. (NAO, 134 zk., 02/11/6koa).
465/2002	Foru Agindua, urriaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, ikastetxe publikoetako eskola jantokietako zerbitzuaren kontratazioa 2002-2003 ikasturtera luzatzen duena. (NAO, 138 zk., 02/11/15koa).
814/2002	Ebazpena, urriaren 21koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak egiten ari diren ikasleendako 165 postutarako deialdia egiten duena, "Eskola Ibiltariak 2003" izeneko programan parte har dezaten, eta Nafarroako ibilbidea egitera beste erkidegoetatik etortzen diren taldeen ostatua eta mantenua finantzatzeko 20.319,00 euroko gastua baimentzen duena. (NAO, 137 zk., 02/11/13koa).
970/2002	Ebazpena, abenduaren 2koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, 2003. urtean Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Bigarren Ziklo, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko laguntzen deialdia onesten duena. (NAO, 7 zk., 03/01/15koa).
15/2003	Ebazpena, urtarrilaren 23koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, "Eskola ibiltariak" Programako ibilbideak 2003. urtean Nafarroako Foru Komunitatean esleitzen dituen. (NAO, 32 zk., 03/03/14koa).
145/2003	Ebazpena, martxoaren 3koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Nafarroako eta beste herrialdeetako ikastetxeetako ikasle-taldeen arteko hizkuntz eta kultur trukeak egiteko laguntzen deialdia onetsi zuena. (NAO, 38 zk., 03/03/23koa).
326/2003	Ebazpena, maiatzaren 8koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako 2. Zikloa, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxe pribatuetan 2003. urtean eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko laguntzen deialdia ebatzen duena. (NAO, 85 zk., 03/07/4koa).
327/2003	Ebazpena, maiatzaren 8koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako 2. Zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoetan 2003. urtean eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko laguntzen deialdia ebatzen duena. (NAO, 85 zk., 03/07/4koa).

5.7.1. Eskolaz kanpoko jarduerak.

156. taula								
Eskolaz kanpoko jardueretarako diru-laguntzak, 1999 urtetik 2003ra								
URTEA	Ikastetxe publikoak		Itunpeko ikastetxeak		Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak	
	Aurrekontuan sartutakoa	Esleitutakoa	Aurrekontuan sartutakoa	Esleitutakoa	Publikoak	Itunpek.	Publikoak	Itunpek.
1999	34.700.000	33.802.000	12.600.000	12.285.000	197	64	46.347	24.037
2000	54.650.000	54.048.000	15.550.000	15.404.235	206	65	46.362	25.750
2001	34.700.000	34.314.400	12.660.000	12.465.300	221	63	48.525	26.812
2002	208.251 €	208.197 €	75.728 €	75.423 €	222	69	49.957	29.537
2003	203.254 €	202.841 €	76.928 €	76.628 €	222	67	52.318	29.960

1 **Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazten du eskolako jardueretarako diru-laguntzen**
 2 **kontusaila ez zela murriztu behar, eta Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio kopuru**
 3 **hori gutxienez 2000 urtean aurrekontuan sartu zen zenbatekoaino handitzeko.**

4
 5 **5.7.2. Bigarren Hezkuntzako ikasle hoberenek hizkuntzen ikaskuntza hobetzeko,**
 6 **eskola-trukeak egiteko eta eskola ibiltarian parte hartzeko diru-laguntzetarako modu**
 7 **orokorrean aurrekontuan sartutako kopuruak:**

Urtea	Aurrekontuan sartutako zenbatekoa
1999	34.400.000
2000	46.000.000
2001	47.000.000
2002	48.130.000 Pta. 288.793 €
2003	226.900*

*Ez daude sartuta eskola ibiltarietarako laguntzak.

10
 11
 12 **5.7.2.1. Bigarren Hezkuntzako ikasle hoberenentzako laguntzak, atzerrian hizkuntzen**
 13 **ikasketa hobetzeko.**

157. taula			
Bigarren Hezkuntzako Ikasle Hoberenek Udako Hizkuntz Ikastaroak Atzerrian egiteko urteroko zenbatekoak, 1998-2003			
Urtea	Aurrekontua	Emandako laguntzak	Laguntza bakoitzaren zenbatekoa
1999	15.000.000	100	150.000
2000	31.000.000	203	155.000
2001	31.520.000	197	160.000
2002	31.974.730 Pta. 192.172 €	214	148.749 Pta. 894 €
2003	184.700	195	900€ (DBH) 100 € (Batxilergo 1.a)

15

5.7.2.2. Eskola-trukeetarako laguntzak:

158. taula					
Eskola-trukeetarako laguntzak, 1998 urtetik 2003ra					
Urtea	Aurrekontua	Ikastetxe publikoak		Itunpeko ikastetxeak	
		Zenbatekoa	Ikastetxeen kopurua	Zenbatekoa	Ikastetxeen kopurua
1998	12.315.000	7.900.000	13	4.415.000	6
1999	12.150.000	6.755.000	14	5.395.000	5
2000	12.635.000	6.125.000	11	6.510.000	11
2001	12.552.000	5.801.000	11	6.751.000	9
2002(*)	-	-	-	-	-
2003	42.000 €	22.000 €	8	20.000 €	8

(*) 2002 urtean ez da programa honetarako deialdirik izan.

5.7.2.3. Eskola ibiltariak:

159. taula				
Eskola Ibiltarien programarako laguntzak, 2000 urtetik 2003ra				
Urtea	Diru-emailea	Zenbatekoa	Ikastetxe onuradunak	Ikasle onuradunak
2000	Hezkuntza eta Kultura Ministerioa	4.378.500	11	165
	Nafarroako Gobernua	3.124.260		
2001	Hezkuntza eta Kultura Ministerioa	4.509.900	11	165
	Nafarroako Gobernua	3.218.000		
2002	Hezkuntza eta Kultura Ministerioa	27.919,12 €	11	165
	Nafarroako Gobernua	19.920,78 €		
2003	Hezkuntza eta Kultura Ministerioa	28.476 €	11	165
	Nafarroako Gobernua	20.319 €		

5.7.2.4. Kultur ibilbideak:

160. taula					
Kultur ibilbideen programa, 1999 urtetik 2003ra					
Urtea	Esleitutako zenbatekoa	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak	
		Publikoak	Itunpekoak	Publikoak	Itunpekoak
1999	18.495.525	131	35	2.791	1.668
2000	18.957.913	129	34	2.827	1.622
2001	19.380.000	125	35	2.685	1.713
2002	116.476 €	119	35	2.625	1.695
2003	121.135 €	*	*	*	*

(*) Programaren udazkeneko fasea egiteko dago, horregatik ez dago 2003 urteko ikastetxe eta ikasleei buruzko datu errealik.

5.8. Eskola-liburutegiak.

5.8.1. Eskola-liburutegiaren eredua.

Gai honetan jarduerak honako eredu hau izan dute:

“Eskola-liburutegia baliabide-zentro modernoa da, edozein motatako euskarritan antolatua; lagungarria da curriculumaren arlo guztien ikasketa aktiborako eta, halaber, ikasleak hezkuntza-mailan denak berdina izan daitezen, edozein egoera sozialetakoak direla ere.”

Gainera, eskola-liburutegia irakasle guztien ardura da, eta ez soilik hizkuntz irakaslearena, izan ere baliabide didaktikoak arlo guztietako ikasketetarako erabiltzen dira.

Hori horrela, Nafarroako eskola-liburutegiak hobetzeko ahalegina egiten da, eredu hori bultzatuz, eta honako alderdi hauek landuz:

a) Irakasleen trebakuntza.

Prestakuntza Planaren bitartez eskola-liburutegiei buruzko berariazko ikastaroak egin dira eta onarpen handia izan dute.

Urrutiko eskola-liburutegi ikastaroak Internet bidez, 60 ordukoak. 2002-2003 ikasturtean 32 irakaslek egin zuten.

Eskola-liburutegia informatizatzeko ikastaroa. ABIES 2.0. programa. 2002-2003 ikasturtean Nafarroako 61 ikastetxetako 105 irakasleri eman zaie prestakuntza.

Ikastaro horien ondorioz, irakasle asko arduratu dira liburutegiaren eremua antolatzeaz eta fondoak dinamizatzaz.

b) Argitalpenak.

Hezkuntza Departamentuak material ugari argitaratu du dagoeneko eskola-liburutegiari buruz: liburuxkak, kartelak, adierazleak, etab. Material horietan liburutegiko sagu Blitz-en figura agertzen da, material horiek identifikatzeko logo modura sortutako maskota. Materiala gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen da, gure hizkuntz ereduaren eskariei erantzuteko.

Material hauek argitaratu dira:

- Liburutegi-eredua zabaltzeko kartelak.
- Sorta urdina, *Blitz Departamentuan*, irakasleei liburutegia antolatzen laguntzeko. Lau zenbaki argitaratu dira gaztelaniaz eta euskaraz:

1 zk. *Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa.*

2 zk. *Eskolako liburutegia nola antolatu* (Berrinprimaketa 1000 gaztelaniaz)

3 zk. *Sailkapen Hamartar Unibertsala eskola-curriculumetan*

4 zk. *ABIES programa informatikoaren funtzionamendurako jarraibideak*

Sorta berdea, *Blitz Eskolan*, irakasleari liburutegia dinamizatzen laguntzeko. Lau zenbaki ditu, autore hauenak:

N. 1. CORONAS, Mariano. *Eskolako liburutegia, irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea.*

Material didaktikoak ematen ditu eskola-liburutegian irakurtzera animatzeko. (3.000 liburuko berrinprimatzea egin da gaztelaniaz, eta 1.000koa euskaraz).

N. 2. MORENO, Víctor, *Irakurtzera, liburuak eta irakurtzera bultzatzea. Hausnarketak eta proposamenak.* Bi unitate didaktiko mahairatzen ditu

1 liburuaren inguruan, eta ulermenezko irakurketa ikasketa-baliabidetzat hartzen
2 duen sarrera interesgarria du.

3 N. 3. ARELLANO, Villar, *Liburutegia eta ikaskuntza autonomia*.
4 *Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa*.
5 Eskola-liburutegi bateko baliabideak ezagutzeko jarduera ugari deskribatzen
6 ditu.

7 N. 4. ILLESCAS, María Jesús, *Estudiar e investigar en la biblioteca*
8 *escolar*. Erabiltzaileen prestakuntza. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta
9 DBHko lehenengo zikloko erabiltzaileen prestakuntzari buruzko lan bat da.
10 (Inprimategian. 2.500 gaztelania).

11
12 Horietaz gain, Hezkuntza Departamentuak honako liburu hauek argitaratu ditu:

13
14 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua, Testu eta Material Didaktikoen U.T., *Guía de*
15 *publicaciones. Edición 2002*.

16 Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak 1996 urtetik 2002ko iraila bitartean
17 argitaratutako lan guztien aipamena jasotzen du. Berrikuntza da CD ROM bat
18 duela horietako asko PDF formatuan dauzkana, eta horrek osoki kopiatzeko
19 aukera ematen du. Horretaz gain bilaketa sistema bat ere badu, argitalpenaren
20 corpus osoan edozein gai aurkitzen uzten diguna.

21 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua, Testu eta Material Didaktikoen U.T., *La lectura*
22 *comprensiva en el currículo escolar* (gaztelaniaz eta euskaraz).
23 583/2002 eta 527/2002 ebazpenak jasotzen ditu. Ebazpen horiek orientabideak ematen
24 dituzte Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arlo guztietan
25 ulermenezko irakurketa eta berariazko hiztegia lantzeko. Horretaz gain Ulermenezko
26 Irakurketarako Nafarroako Planaren oinarriko printzipioak ere sartzen ditu.

27 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua, Diseinu eta Curriculum Garapenerako U.T.:
28 *Clasificación Decimal Universal*.

29 Saikapen Hamartar Unibertsala duen kartel bat da, eskoletako liburutegietan jartzeko.

30 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua, Diseinu eta Curriculum Garapenerako U.T.: *¿Somos*
31 *una familia comprometida con la lectura?* (gaztelaniaz eta euskaraz).
32 *Con Alta Voz* kanpaina parte hartzen duten familientzako inkesta da. 03/3/10ean
33 inprimatu zen berriz.

34 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua, Diseinu eta Curriculum Garapenerako U.T.: *Con Alta*
35 *Voz* (gaztelaniaz eta euskaraz).
36 Irakurketa sustatzeko kanpaina familiei banatzeko triptikoa. 03/3/5ean inprimatu zen
37 berriz.

38 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua: *Egitura, Ordutegiak eta aukerako Irakasgaiak*
39 *Batxilergoa*.

40 89/2002 Foru Agindua jasotzen du. Horren bidez Batxilergoko egitura garatzen da, bere
41 antolakuntza arautu, egutegia finkatu eta Nafarroako hautazko ikasgaien curriculuma
42 onesten da.

43 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua: *Curriculum. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*
44 *Martxoaren 25eko 61/2002 Foru Dekretua* jasotzen du. Horren bitartez Nafarroako
45 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma ezartzen da. Halaber, Erljio Katolikoaren
46 curriculuma ezartzen duen 87/2002 F.A. ere jasotzen du, eta 85/2002 Foru Agindua,
47 Antolatutako Hezkuntza Jardueraren curriculuma ezartzen duena.

48 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua: *Curriculum. Batxilergoa*.
49 *Martxoaren 25eko 62/2002 Foru Dekretua* jasotzen du. Horren bidez Nafarroako
50 Batxilergoko egitura eta curriculuma ezartzen da. Halaber, 88/2002 F.A. ere jasotzen du,
51 Erljio Katolikoaren curriculuma ezartzen duena, eta 86/2002 Foru Agindua, Antolatutako
52 Hezkuntza Jardueraren curriculuma ezartzen duena.

53 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua: *Guía de Estudios. Educación Secundaria Obligatoria*
54 (gaztelaniaz eta euskaraz).

- 1 DBHri buruzko informazioa jasotzen du: DBH, etapa berri bat; DBHren egoera
 2 hezkuntza sisteman. Zer ikas dezaket DBHn?; Ikasketa-arloak eta ordutegiak; Hautazko
 3 ikasgaiak. DBHko laugarren maila, urrats erabakigarria; Ikasleen aniztasuna aintzat
 4 hartzea; Ebaluazioa; Promozioa eta egonkortasuna; Titulazioa; Eta DBHren ondoren,
 5 zer egin dezaket?; Bestelako ikasketak, Zerbitzuak eta bekak; Argibide gehiagorako.
- 6 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua, Testu eta Material Didaktikoen U.T.: *Guía de Estudios.*
 7 *Universidad.* (Gaztelaniaz eta euskaraz).
- 8 Unibertsitate-sistemari buruzko informazioa biltzen du: Unibertsitate-ikasketak nola
 9 egituratzen diren; Ikasketa-arloak; Unibertsitaterako sarbidea Batxilergotik: sarbide-proba,
 10 probaren kalifikazioa; Unibertsitaterako sarbidea Goi-mailako Lanbide Heziketa Berezitik;
 11 Unibertsitaterako sarreraren Araudia: onarpen-irizpide orokorrak; beste unibertsitateetako
 12 ikasketetarako sarbidea; Nafarroako Unibertsitate Publikoan onartzea eta izena ematea;
 13 Nafarroako Unibertsitatean onartzea eta izena ematea; Urrutiko Hezkuntzarako
 14 Unibertsitate Nazionala; Beste unibertsitate-ikasketa batzuk; Zerbitzuak eta bekak;
 15 Erasmus programa; Beste ikasketa batzuk; Argibide gehiagorako.
- 16 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua, Testu eta Material Didaktikoen U.T.: *Guía de Estudios.*
 17 *Formación Profesional, Artes Plásticas y Diseño*(Gaztelaniaz eta euskaraz).
- 18 Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzei buruzko
 19 informazioa jasotzen du: lanbide-heziketa berria; hezkuntza sistemako heziketa zikloen
 20 egoera; Nola egituratzen da Lanbide Heziketa Espezifikoa; Erdi-mailako heziketa zikloak;
 21 Goi-mailako heziketa zikloak, Unibertsitaterako sarbidea goi-mailako zikloetatik; Erdi-
 22 mailako eta Goi-mailako heziketa zikloak Arte Plastikoetan eta Diseinuan; Beste ikasketa
 23 batzuk, Zerbitzuak eta bekak; Argibide gehiagorako.
- 24 - Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua, Testu eta Material Didaktikoen U.T.: *Guía de Estudios.*
 25 *Bachillerato.* (Gaztelaniaz eta euskaraz).
- 26 Hezkuntza etapa horri buruzko informazioa jasotzen du: zer da Batxilergoa; Batxilergoaren
 27 egoera Espainiako Hezkuntza Sisteman; Nola egituratzen da Batxilergoa, Arte Modalitatea;
 28 Teknologia Modalitatea; Natur Zientzien eta Osasunaren Modalitatea; Giza eta Gizarte
 29 Zientzien Modalitatea; Ebaluazioa; Promozioa; Titulazioa; Lanbide Heziketa ondorengo
 30 ikasketak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa zikloak; Unibertsitate Ikasketak;
 31 Sarbide proba; Karrera Unibertsitarioak; Zerbitzuak eta Bekak; Beste ikasketa batzuk;
 32 Argibide gehiagorako.
- 33 - Zerbitzuetako eta Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzua: Evaluación de los Departamentos
 34 Didácticos.
- 35 Zerbitzuetako eta Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzuak departamentu didaktikoei buruz
 36 egindako ebaluazioko datuak jasotzen ditu. 2001-02 ikasturtean datuak jasotzeko
 37 informazio-iturri ezberdinak erabili dira (inkestak, elkarrizketak, dokumentuen azterketa);
 38 irakasleen, departamentu-buruen, zuzendaritza-taldeen eta ebaluatzailearen beraren
 39 kanpo-ikuspegia eskaintzen digute.
- 40 - Zerbitzu eta Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzua: *Plan de evaluación y calidad de los centros*
 41 *de Educación Infantil y Primaria.* (Gaztelaniaz eta euskaraz).
- 42 Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzuak egindako dokumentu bat da; dokumentu horretan
 43 hobekuntza-plana zer den azaltzen da, kalitate eta ebaluazio ereduak aurkezten dira,
 44 hobekuntza-ildoak deskribatzen dira eta ebaluazio eta kalitate plan baten diseinua eta
 45 garapena agertzen dira.
- 46 - Zerbitzuetako eta Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzua: *Plan de evaluación y calidad de los*
 47 *centros de Secundaria* (Gaztelaniaz eta euskaraz).
- 48 Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzuak egindako dokumentu bat da; dokumentu horretan
 49 hobekuntza-plana zer den azaltzen du, kalitate eta ebaluazio ereduak aurkezten dira,
 50 hobekuntza-ildoak deskribatzen dira eta ebaluazio eta kalitate plan baten diseinua eta
 51 garapena agertzen dira.
- 52 - Ikasketen Antolamendu eta Lanbide Heziketaren Atala: *Instrucciones de Organización y*
 53 *Funcionamiento de los Centros Docentes Públicos*
- 54 Abuztuaren 26ko 420/2002 Foru Agindua jasotzen du. Horren bidez Haur Hezkuntza,
 55 Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta
 56 Lanbide Hastapeneko Programak ematen dituzten ikastetxe publikoen 2002-03 ikasturteko
 57 antolakuntza eta jardunbidea arautzeko jarraibideak onesten dira.

- 1 - Ikasketen Antolamendu eta Lanbide Heziketaren Atala: *Instrucciones de Organización y funcionamiento de los Centros Docentes Públicos*.
 2 Ekainaren 11ko 266/2003 Foru Agindua jasotzen du. Horren bidez Haur Hezkuntza, Lehen
 3 Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide
 4 Hastapeneko Programak ematen dituzten ikastetxe publikoen 2002-03 ikasturteko
 5 antolakuntza eta jardunbidea arautzeko jarraibideak onesten dira.
 6 - Ángel Sanz Moreno, *La lectura comprensiva y los textos escolares*.

8 Lehenengo atalean irakurriaren ulermena jorratzen da, eta ulermenezko
 9 irakurketa nola hobetu. Bigarren atalean unitate didaktiko edo ikasgaiaren
 10 egiturari buruzko adibideak proposatzen dira, atalak, lerroaldeak eta esaldiak...

- 11 - Jesús Amado Moya, *El lenguaje científico y la lectura comprensiva en el área de ciencias*.
 12 Hizkera zientifikoaren ezaugarriak eta zientzia-terminologiaren osaketa jorratzen ditu.
 13 Ikasleekin ariketak egiteko orientabideak ematen ditu, eta hizkera zientifikoko eta
 14 zabalkundeko lau testu, ariketekin. Horretaz gain badu irakurriaren ulermenari eta
 15 horretarako estrategien irakaskuntzari buruzko hitzaurre bat ere.
 16 - Víctor Moreno Bayona, *Leer para comprender*.
 17 Hausnarketa sakona egiten du testu bat irakurtzeak eta ulertzeak esan nahi duenari buruz
 18 eta irakurketaren ekintzan esku hartzen duten faktoreei buruz: irakurlea, testua eta
 19 testuingurua. Bigarren atalean ulermenezko irakurketaren aurreko hainbat ariketa agertzen
 20 dira, idazteko ariketa eta arlo guztietarako baliagarri diren irakurketa-trebetasunak garatzeko
 21 ariketak, testuak hobeto uler ditzaten.
 22 - M^a Jesús Illescas: *Estudiar e investigar en la biblioteca escolar*
 23 Eskolako liburutegia ikasteko eta ikertzeko baliabide-iturri gisa aurkezten du. Ariketa ugari
 24 ditu ikasleei hiztegiak, entziklopediak, kontsulta-liburuak eta liburutegiko gainerako
 25 materialak erabiltzen erakusteko.
 26 - Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko (CREENA) Bigarren Hezkuntzako
 27 Konduktual eta Psikikoen Taldea: *Alumnado con discapacidad psíquica en la ESO. Orientaciones para la respuesta educativa: Unidades Específicas*.
 28 Unitate espezifikoak zer diren eta nola antolatu behar diren zehazten du. Jarraibideak
 29 ematen ditu ikasleak ohiko arloetan integratzeari buruz, erabili beharreko metodologiari
 30 egokienari buruz eta ikasle horien ebaluazioari buruz. Fitxa-gida aurkezten du ikasleak
 31 unitate horietara adskribatzeko.
 32 - Hainbat egile: *I Congreso Nacional de Educación y Personas con discapacidad (aktak)*
 33 CREENAK antolatuturik Hezkuntzari eta Ezintasuna duten Pertsonen buruz Iruñean 2003ko
 34 martxoaren 6tik 8ra egindako biltzarreko komunikazio eta ponentzia guztiak jasotzen ditu.
 35 Hasiera eta amaiera ekitaldiko hitzaldiak ere sartuta daude.
 36 - Pello Mateos Yeste; Garbiñe Urreizti Lezertua: *Ari Gara 3*.
 37 Euskara irakasteko material-multzo baten zatia da, ikaslearen liburua. A ereduan Bigarren
 38 Hezkuntza ikasi eta Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean izena emanda dauden ikasleei
 39 zuzendua.
 40 - Pello Mateos Yeste; Garbiñe Urreizti Lezertua: *Ari Gara 4*.
 41 Bigarren Hezkuntza A ereduan ikasten ari eta Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean izena
 42 emanda dauden ikasleentzako material osagarriak dira. Irakaslearentzako eskuliburua eta
 43 domino-jolasa ere sartzen dira.
 44

45 c) Web orria.

46 *Blitz ekoizpen* guztia PDF formatuan dago Hezkuntza Departamentuaren web orrian:

47 <http://www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/biblioteca/>

48 Aipatutako lan horiez gain, web orrian liburutegiko zerbitzuak seinalezatzeko kartelak ere aurki
 49 daitezke (irakurketa gunea, talde-lanerako gunea, multimedia gunea, audio-gunea, mailegua,
 50 etab.); gaikako kartelak sailkapen hamartar unibertsalaren apalak seinalezatzeko; sailkapen
 51 hamartar unibertsalaren gaikako azpiatalak dituzten kartelak, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako
 52 curriculumetara egokituak, etab.

53 d) Informatizazioa.

1
2 ABIES 2.0 erabiltzen dugu, liburutegietako kudeaketa-programa bat, MARC formatua duena.
3 Irakasle aditu bat daukagu, Internetez Nafarroako ikastetxeetako kontsultei erantzuten diena
4 *news* edo albiste-multzoen bitartez. 2002-2003 ikasturtean 480 kontsulta egin dira 50tik gora
5 ikastetxetatik.

6 7 **e) Ikastetxeentzako aholkularitza.**

8 Berrikuntza Zerbitzuko langileak eskaera egiten duten ikastetxeetara joaten dira fondoan
9 antolamenduari edo dinamizazioari buruz aholkuak ematera. Liburutegiko arauak bete beharra
10 eta arduradunak trebatu beharra azpimarratzen dute. 2002-2003 ikasturtean 12 ikastetxe ikusi
11 dira.

12 13 **f) Irakasleei Laguntzeko Zentroak.**

14 Nafarroako Irakasleei Laguntzeko bost zentroetako fondoak antolatu, informatizatu eta
15 modernizatzeari ekin zaio; zentro horiek eskola-liburutegientzat eredu izan daitezten lortu nahi
16 da, eta bide horretan, zentroak prestatzen ari dira etorkizunean eskola-liburutegien sarearen
17 buru izan daitezten.

18 19 20 **g) Segimendua eta ebaluazioa.**

21 Irakasleei Laguntzeko zentro bakoitzean eskola-liburutegien mintegia sortu da, eskola-
22 liburutegiei buruzko prestakuntza-ikastaroa jaso duten irakasle boluntarioekin. Horien
23 eginkizuna eskola-liburutegien sarea sortzen joatea da, eta egoitza esparru bakoitzeko
24 Irakasleei Laguntzeko Zentroan izango dute.

25 26 27 **h) Sariak eta deialdiak.**

28 Ikasturtero sariak antolatzen dira Liburutegi eta Irakurketa Proiektu hoberenentzat. Ikasturte
29 honetan saritutakoak hauek dira:

30 Haur eta Lehen Hezkuntzako modalitatea:

31 Lehenengo Saria: Kasedako "Francisco Sáenz de Oiza" ikastetxe publikoa.

32 Bigarren Saria: Barañaingo "Eulza" ikastetxe publikoa.

33 Ohorezko Aipamena: Barañaingo "Santa Luisa de Marillac" ikastetxe publikoa.

34 Bigarren Hezkuntzako modalitatea:

35 Lehenengo Saria: Lodosako "Pablo Sarasate" BHI.

36 Bigarren Saria: Korellako "Alhama" BHI eta Zentronikoko "La Paz" DBHI.

37 Ohorezko Aipamena: Tuterako "Valle del Ebro" BHI.

38 Ohorezko Aipamena: Iruñeko "Donapea" BHI.

39
40
41
42 **i) Azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legeak** Nafarroako liburutegi sistema arautzen du eta
43 bi artikulutan eskola-liburutegiak aipatzen ditu.

44 45 **5.8.2. Ulermenezko irakurketarako Nafarroako Plana.**

46 Eskola-porrotaren arrazoi nagusietako bat ikasleen hizkuntz gaitasun eza da. Kezka hori dela
47 eta, ikastetxeko curriculumetan ulermenezko irakurketa sustatzeko kanpainak sortu dira.
48 Kanpaina horiek Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak babestu ditu, ulermenezko irakurketarako
49 Nafarroako Planaren bitartez.

50 Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuak ulermenezko irakurketarako Nafarroako Planaren euskarri
51 izan behar zuten oinarriko 10 printzipioak egin zituen.

52 Helburuak honakoak dira.

53 - Epe motz eta luzera, ikasleen irakurketa-ulermenerako gaitasuna garatzea.

54 - Irakasleak irakurketa-ulermenaren garrantziaz ohartaraztea.

- 1 - Hezkuntza komunitatea baterako zenbait ekintzatan inplikatzeari.
2 - Ikastetxeetan Irakurketa planak egitea sustatzea.

3
4 Planaren lehenengo faseari ekin zaio, hau da, ulermenezko irakurketa Lehen Hezkuntzan eta
5 Bigarren Hezkuntzan jorratzeko araudia egin da. Araudiak honakoa dakar:

- 6 - irakurketa-ordu bat Lehenengo Hezkuntzan ikastetxe publikoetarako; gomendatzen
7 da itunpekoetan ere egitea (Uztailaren 15eko 583/2002 ebazpena).
8 - Ulermenezko irakurketa DBHko curriculumetako eduki, helburu eta ebaluazio-
9 irizpideetan (Ekainaren 27ko 527/2002 ebazpena).
10 - Ulermenezko irakurketa curriculumaren arlo guztien oinarritzko baliabidetzat jotzen
11 da, eta Lehen Hezkuntzako zikloko taldeak eta Bigarren Hezkuntzako
12 departamentu didaktikoak **premiatzen dira** ikasle guztien **irakurriaren**
13 **ulermenaren maila** handitzeko jarduerak diseina ditzaten eta ikasgelako
14 liburutegiaren edo biblioteca nagusiaren bidez ekintzak egin ditzaten (420/2002
15 Foru Agindua).

16

17 ***Nafarroako Eskola Kontseiluak Hezkuntza Komunitatea animatzen du eskola-adinekoen***
18 ***prestakuntzaren ezinbesteko osagarri gisa liburutegien erabilera bultzatzen.***

19

6. EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN.

2002/2003ko ikasturtean Euskara Zerbitzuak kudeatzen dituen programak garatzeko onetsitako arau nagusiak honakoak dira:

Euskarari buruzko araudia, 2002-03ko ikasturtea
Kultura eta Hezkuntza Kontseiluaren abuztuaren 9ko 413/2002 Foru Agindua, beraren bidez 2002-2003ko ikasturteko hizkuntza-ereduaren hautuan dela kausa lekuz aldatu behar duten ikasleentzako laguntzen deialdia. (02/08/30eko 105. NAO).
Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren abenduaren 13ko 992/2002 ebazpena, beraren bidez modu esperimentalean euskarazko hizkuntza-hobekuntzako ikastaro trinkoa deitu zuten eskolak hizkuntza horretan ematen dituzten irakasleentzat.
Kultura eta Hezkuntza Kontseiluaren azaroaren 20ko 601/2002 Foru Agindua, beraren bidez EGA titulua eskuratzeko azterketen egitura eta antolamendua araupetu, eta berau eskuratzeko 2003. urteko deialdiak onetsi zituzten. (02/12/2ko 145. NAO).
Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren abenduaren 31ko 1137/2002 ebazpena, beraren bidez euskarazko zientzia-teknika zabaltzeko jardueren zerbitzua kontratatu zuten eta berau Elhuyar enpresari adjudikatu zioten.
Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren otsailaren 13ko 41/2003 ebazpena, beraren bidez Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialarekin elkarlanean aritzen diren ikastetxeetako D eta A ereduetan eskolatutako Bigarren Hezkuntzako ikasleen ahozko adierazpena sendotzeko laguntza teknikoaren zerbitzua kontratatzea onetsi zuten.
Kultura eta Hezkuntza Kontseiluaren martxoaren 7ko 120 /2003 Foru Agindua, beraren bidez Nafarroako A, B eta D hizkuntza-ereduetako Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzetako ikasleei zuzendutako Euskara Sustatzeko Jardueren deialdia baimendu zuten eta horien oinarri araupetzailak onetsi zituzten. (03/03/24ko 36. NAO).
Kultura eta Hezkuntza Kontseiluaren martxoaren 7ko 121/2003 Foru Agindua, beraren bidez 2003. urtean zehar Euskaltegi eta Gaueskola pribatuei laguntzak emateko deialdia onetsi zuten. (03/03/24ko 36. NAO).
Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren martxoaren 14ko 185/2003 ebazpena, beraren bidez Nafarroako ikastetxe publiko zein pribatuetako B eta D eredueta Lehen Hezkuntzako (3. zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako Bertso-Eskolaren deialdia onetsi zuten 2002-03ko ikasturteko 2. eta 3. hiruilekoan eta 2003-2004ko ikasturteko lehen hiruilekoan zehar. (03/03/28ko 38. NAO).
Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren martxoaren 21ko 214/2003 ebazpena, beraren bidez "Zubiarte Euskaltegia" Ikastetxe Publikoaren eta Euskara Irakasteko Baliabide Zentroaren erdibanatutako espazio eta baliabideak erabiltzeari buruzko jarraibideak onetsi zituzten.
Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 5eko 158/2003 ebazpena, beraren bidez 2003. urterako "Euskarazko Udako Heziketa Jarduerak" izeneko programaren deialdia baimendu zuten.
Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 8ko 333/2003 ebazpena, beraren bidez Euskara Irakasteko Baliabideen Zentroaren jardura araupetzen duten jarraibideak onetsi zituzten.
Kultura eta Hezkuntza Kontseiluaren maiatzaren 8ko 193/2003 Foru Agindua, beraren bidez Nafarroako Foru Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen Euskal Hizkuntzako Heziketa Planaren XXIII. Deialdia onetsi zuten. 2003/2004 ikasturtea. (03/06/20ko 77. NAO).
Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren ekainaren 24ko 474/2003 ebazpena, beraren bidez "Zubiarte Euskaltegia" izeneko helduei euskara irakasteko Zentro Publikoan euskara ikasteko modalitate mistoa (presentzia/autoikaskuntza irakaskuntza) modu esperimentalean ezartzeko baimena eman zuten.
Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren uztailaren 3ko 506/2003 ebazpena, beraren bidez euskarazko Etnologia eta Dialektologiako Lehiaketaren sariak eman zituzten.

6.1. Euskararen eta euskarazko ikastetxe, irakasle eta matrikularen bilakaera.

6.1.1. Euskararen eta euskarazko ikastetxe, irakasle eta matrikulen bilakaera.

Euskarazko eta euskararen hezkuntza elebidunaren eskariaren joera aurreko urteetan izandakoaren antzekoa da. Irakaskuntza hauek irakaskuntza publikoan eta itundutakoan duten ezarpenari dagokionez oraindik ere desberdintasun handia erakusten dute hurrengo koadroan jasota dagoen bezalaxe.

161. kodroa										
Euskararen eta euskarazko Irakasle, Matrikula eta Ikastetxeen Laburpena, 1998/99-2002/03										
	1998/99 ikast.		1999/00 ikast.		2000/01 ikast.		2001/02 ikast.		2002/03 ikast.	
	Publik.	Itundut.	Publik.	Itundut.	Publik.	Itundut.	Publik.	Itundut.	Publik.	Itundut.
Eskolaurrekoa eta Haur H. 2.Z.										
A ereduko matrikula	3100	789	3332	785	3.545	919	3.689	890	3.697	917
B ereduko matrikula	12	23	18	17	12	17	10	19	5	27
D ereduko matrikula	2.660	1.057	2.833	1.083	3.033	1.110	3.199	1.141	3.376	1.160
OHO / Lehen Hezkuntza										
A ereduko ikastetxe kop.	73	12	105	10+1	-	-	-	-	-	-
B+ D ereduak	68	12	66	11	-	-	-	-	-	-
A ereduko matrikula	4.800	1.064	5.346	1.228	5.731	1.466	6.164	1.745	6.646	1.858
B ereduko matrikula	54	55	51	56	40	47	33	43	25	40
D ereduko matrikula	3.983	2.302	4.239	2.280	4.517	2.240	4.786	2.184	5.130	2.154
Derrigorrezko Bigarren H.										
A ereduko ikastetxe kop.	19	4	34	3	-	-	-	-	-	-
B+ D ereduak	22	6	21	6	-	-	-	-	-	-
A ereduko matrikula	1.582	306	1.623	349	1.666	600	1.729	507	1.625	626
B ereduko matrikula	31	-	90	-	44	-	34	-	36	0
D ereduko matrikula	2.408	1.412	2.426	1.415	2.514	1.419	2.582	1.377	2.651	1.481
Irakasleak ¹	1.174	356	1.183	344	-	-	-	-	-	-
Batxilergoa / UBI										
A ereduko ikastetxe kop.	1	-	16	1	-	-	-	-	-	-
D eredua	8	1	11	1	-	-	-	-	-	-
A ereduko matrikula	303	93	435	86	395	9	311	18	265	30
D eredua	961	196	1.139	174	1.219	167	1.232	173	1.202	149
IEE										
A ereduko matrikula	28	-	-	-	-	-	-	-	-	-
B eredua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
D eredua	57	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Lanbide Heziketa										
A ereduko ikastetxe kopurua	1	3	4	-	-	-	-	-	-	-
D eredua	6	7	3	-	-	-	-	-	-	-
A ereduko matrikula	67	-	171	-	63	-	6	-	-	-
D eredua	95	-	95	-	86	-	95	-	59	-

¹ Irakasle kopurua Haur/Lehen eta bigarren/batxilergoko ikastetxe guztietarako da.

IKASLEAK GUZTIRA										
A eredia	9.880	2.252	10.907	2.448	11.400	2.994	11.899	3.160	12.233	3.431
B eredia	97	78	159	73	96	64	77	62	66	67
D eredia	10.164	4.967	10.732	4.952	11.369	4.936	11.894	4.875	12.418	4.944
GUZTIRA	20.141	7.297	21.798	7.473	22.865	7.994	23.870	8.097	24.717	8.442

1998/1999tik 2001/2002ra bitarteko ikasturteetako datuak, "Nafarroako Hezkuntza Estatistika"tik hartutakoak .

2002/2003ko ikasturteko datuak: *Hezkuntza Departamenduko Zerbitzuen eta Ikuskapen Teknikoko Zerbitzuak* emandakoak, 2003ko otsailean.

Bertakoa ez den biztanleriako segmentutan hartutako matrikula berriak oso urriak dira.

B ereduaren hondar-izaera beste urte bat gehiagoz egiaztatu ahal izan dugu.

D ereduan matrikulatutako ikasle kopurua % 3,53 hazi da aurreko urtearen aldean, ehuneko hori iaz izan zena baino zertxobait handiagoa (% 2,84) eta iazkoaren aurreko bi urtekoak baino txikiagoa izan da, % 3,59 eta % 3,65 hurrenez hurren.

A ereduan matrikulatutako ikasleen hazkundea % 4,01ekoa izan da. Berau iaz izandakoa baino zertxobait txikiagoa (% 4,61) eta iazkoaren aurreko bi urtekoak baino txikiagoa (% 7,77 eta % 10,081 hurrenez hurren).

6.1.2.- Garraio eta jantokiko laguntzak:

Beste alde batetik, ikastetxeetan hizkuntza-ereduren bat ez eskaintzea bere herrian eskaintzen ez duten hizkuntza-eredua aukeratzen duten ikasleentzat garraio eta jantokiko laguntzen deialdiaren bidez arintzen dute. Laguntza horien bilakaera ondoko koadro honetan islatuta dago:

162. koadroa		
Hizkuntza-aukeraren araberako jantoki eta garraioko laguntzak, 1998-99ko ikasturtetik 2002-03kora bitartean		
Ikasturtea	Onartutako eskabideak	Kostua
1998-1999	310	25.166.785 pezeta.
1999-2000	330	25.390.000 pezeta.
2000-2001	376	27.285.000 pezeta.
2001-2002	443	27.952.279 pezeta. (167.997 euro)
2002-2003	484	159.656 €

6.2. Irakasleek euskara ikasteko jarduerak: birziklatzea eta bestelakoak.

6.2.1. Irakasleei euskara irakastea.

6.2.1.1. Lan-lizentzia duten birziklatzeko ikastaro trinkoak

Ikasturte honetan 14 irakasle irakaslanetatik askatu dituzte. Eskolak "Zubiarte Euskaltegia" H.I. delakoan eman dituzte eta hautatutako irakasleak bere maila dela eta egokien diren Euskaltegiko helduentzako euskara ikasteko taldeetan sartu dira. Irakasle horiek, gainera, tutoretza berezia izan zuten.

6.2.1.2. Ikastaro trinkoak.

Ikasturte honetan ikasteko maila ezberdinak dituzten 2 talde izan dira ikastetxeetan. Matrikula egin duten irakasleak guztira 16 izan dira, horietatik 6k ziurtagiria eskuratu dutela.

6.2.1.3. Laguntza indibidualak

Uztaila-abuztua-iraila aldian 14 laguntza eman dituzte eta 2001eko irailetik 2002ko ekainera bitarteko aldian 18 laguntza eman dituzte. Laguntzen zenbateko osoa 4430 eurokoa izan da.

6.2.2. - Hizkuntza eta pedagogia hobetzeko ikastaroak.

6.2.2.1. "Freskatze Ikastaroa" izeneko ikastaro trinkoa.

"Nafarroako Foro Erkidegoko hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea hobetzeko Itunean", 279/2001 Foru Aginduan eta Euskal Hizkuntzako Prestakuntzarako XXII. Deialdia onetsi zuen 119/2002 Foru Aginduan ezarritakoa betez, ikasturte honetan euskarazko hizkuntza-hobekuntza lortzeko ikastaro esperimentalak burutu dute, horrek guztira 180 orduko iraupena du, eta horietatik 100 lan-lizentziarekin izan dira. Hizkuntza-hobekuntzako ikasturte horretan D ereduko ikastetxe publikoetako lehen eta bigarren hezkuntzako 12 irakaslek parte hartu dute eta esperientzia oso positiboki baloratu dute.

Esperimentazioaren ondorioz ikastaroa berriz diseinatu dute eta 180 orduetatik 250etara igaro da, horietatik 150 lan-liberazioarekin izango dira, horretarako dagoeneko 2003/04 ikasturterako eskaintzen dituzten 16 plazak beteko dituzten izangaiak hautatzeko prozedura egin dute. Irailaren hasieran hautatutako irakasleekin, lehen hezkuntzako 9rekin eta bigarren hezkuntzako 6rekin, bilera bat egitea aurreikusita dute ikastaroaren plan nagusia aurkezteko asmoz.

6.2.2.2. Eguneratze gramatikala.

Ikastaro honek 35 orduko iraupena du eta horietan honako helburuak lortu nahi dituzte.

Eguneratzea Euskaltzaindiaren azkeneko arauetan.
Ahoz eta idatzizko hutsegite nagusiak aztertzea eta zuzentzea.
Nafarroako euskarazko tokiko hizkeren ezaugarriak.
Hizkuntza-ezagutzak finkatzea eta sintaxia eta hiztegia aberastea.

Guztira 6 modulu eman dituzte, batez ere ikastetxeetan, 71 irakaslek parte hartu dute eta 59 ziurtagiri luzatu dituzte.

Lortu duten parte hartze handiak eta irakasleak txostengile eta banatutako materialei buruz adierazi duten poztasunak eskaintza zabaltzera eta heldu den ikasturterako sakontzeko modulu berria proposatzera eraman gaituzte.

6.2.2.3. Eguneratze gramatikaleko ikastaroa Internet bidez.

Programa eta materiala ikasleei aurkezteko asmoz zuzeneko saioa eman dute. Ikasleek oinarriko material didaktikoa CD-ROM batean izan zuten, berau Euskara Zerbitzuak ekoitzi, diseinatu eta masterizatu du, eta Internet bidez honako orri honetan: www.pnte.cfnavarra.es/ehib/

Aholkatzeko eta trebatzeko tutore-lana eta baita ariketak eta zalantzak ere, posta elektronikoz bidez erantzuten zituzten horretarako interneten foro bat sortu genuen: <http://irati.pnte.cfnavarra.es/foro-ehib/>, berau oraindik jardunean dago eta Zerbitzuko teknikariek administratzen dute.

Parte hartzen duten 50 irakasleen 216 posta elektronikoz baino gehiago jaso dituzte. 35 ziurtagiri luzatu dituzte eta % 70eko gogobetetasun-indizea egon da.

6.2.2.4. Itzulpen Ikastaroa

42 orduko zuzeneko ikastaroa da, bertan euskara-gaztelania, gaztelania-euskara itzulpenak egiteko oinarriko teknikak lantzen dituzte. Tradizionalki eskaini izan duten ikastaroa da, eskari txikia izaten du baina irakasle batzuentzat intereseko esparru finkoa hartzen du.

12 irakaslek parte hartu dute eta horietatik 11k ziurtagiria eskuratu dute.

6.2.2.5. On-lineako itzulpen ikastaroa

Zuzeneko 18 ordu eta on-lineako 18 orduko formula mistoan egindako ikastaro esperimentalak da. Horretan lan-lizentziako euskara trebatzeko ikastaro trinkoan izena eman duten 12 ikasleek parte hartu dute eta guztiek bertaratze-ziurtagiria jaso dute.

6.2.2.6. Testuak sortzeko tailerra

Ikasturte hau eskolako esparruan erabili ohi dituzten testuak landu eta bere kalitatea hobetu nahi duten irakasle guztiei zuzenduta dago, hala nola aktak, txostenak,... e.a.

Guztira 35 orduko iraupena du eta Euskara Irakasteko Baliabide Zentroan (EIBZ) garatu dute. 16 ikasleek parte hartu dute eta guztira 14 ziurtagiri luzatu dituzte.

6.2.3. Euskal hizkuntzako kurrikulua garatzeko eta planifikatzeko ikastaroak.

6.2.3.1. Hizkuntzaren erabilera sustatzeko estrategiak

Euskararen erabilera eta presentziari buruzko diagnostikoa eginda duten ikastetxeek zuzendutako 12 orduko iraupena duen prestakuntza-ekintza. Helburua hizkuntza-murgilketako ikastetxeetan euskararen erabilera eta ikaskuntza funtzionalaren estrategiak kontuan hartzen dituen Hizkuntza Proiektua egitea da.

Jorrotutako gaiak eta bere txostengileak hurrengoak izan dira:

Hizkuntzen tratamendu integratua. Valentziako Komunitateko esperientzia. Montserrat Ferrer. Universitat Jaume I (Castelló). Ahozko Curriculuma eraikitzekeo diseinua. Meltxor Artetxe. Ikastolen Federazioko Pedagogia arduraduna. Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena gazteen hizkera. Kike Amonarriz. Soziolinguista eta Argiako Sustapen Saileko arduraduna. Ikastolen Hizkuntza Proiektuaren oinarriak. Itziar Elortza. Ikastolen Federazioko hizkuntza aditua. Ekoizpen idatzia. Iñaki Biain. Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Irungo Berritzagunea). Ikastetxeetako esperientziak.

12 ikastetxetan lan egiten duten 42 irakasleek izena eman dute eta 34 ziurtagiri luzatu dituzte.

6.2.3.2. Ahozko curriculumaren eratzea.

60 orduko ikastaroa urrutikoa izan bada ere taldeko tutoretzako zuzeneko sei ordu ere izan ditu.

Ikastaroaren helburua ikasgelako errealitate formalean, ahozko curriculumara osatzeko irizpide eta baldintzetan arreta jartzen duen hizkuntzaren didaktikaren ikuspegia ematea izan da.

Edukiak hizkuntzaren esparru epistemologiko eta didaktikoari, ahozkotasuna lantzeko estrategiei, testuko generoen sekuentziarioari eta, azkenik, irakasle-taldetan sortutako sekuentzia didaktikoa egiteari buruzkoak izan dira.

Ikastaroa oso positiboa izan da, izan ere, hainbat sekuentzia egiteak bestelako hezkuntzako errealitateak ezagutzeko eta egindako sekuentzietan buruzko iritziak elkarri trukatzeko ondorioz elkar aberastea ahalbidetu baititu.

Izena eman duten 35 irakasleen % 100ek ziurtagiria jaso dute.

6.2.3.3. Joko tradizionalak. Oinarrizko maila eta sakontzea

Helburua jokoak hezkuntzako baliabide eta kultura transmititzeko bidetzat duen garrantziari buruz hausnarketa egitea da.

Ikastaroetan jokoen inguruko teoria eta joko tradizionalen, egungoen, libre edo zuzendutako, teoria adibideak landu dituzte eguneroko hezkuntzako jardunean eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuan erabiltzeko.

Ikastaroa bi mailetan aurkezten dute: oinarrizkoa eta aurreratua, bakoitzak 10 orduko iraupena duelarik.

Oinarrizko mailan 5 ikastetxetan lan egiten duten 51 irakaslek parte hartu dute eta 48 ziurtagiri luzatu dituzte. Maila aurreratuan 3 ikastetxetan lan egiten duten 38 irakaslek parte hartu dute eta 36 ziurtagiri luzatu dituzte.

Ikastaroa oso praktikotzat baloratu dute, irakasle gehienek adierazi dute ikastaroaren iraupena laburregia dela. Eskaria eskaintza baino handiagoa izan da, horregatik, ikastetxe batzuek ikastaro hori egiteko aukerarik ez dute izan.

6.2.3.4. Lagunarteko erregistroak

20 orduko iraupena du eta lagunarteko hainbat erregistro landu dituzte ikasgelako hizkuntza akademikoa osatzeko. Ahozko komunikazioko teknika eta arauak irakasteaz gain hizkuntzaren funtzioak landu dituzte: kideen arteko hizkeran eta hizkuntza aberasteko hainbat modu: ipuina, abestia, dramatizazioa, iratiaren hizkuntza eta telebista,... e.a. Azkenik, ahozko produkzioa neurtzeko ebaluazio-proposamenak egin dituzte.

10 ikastetxetan lan egiten duten 146 irakaslek parte hartu dute eta horietatik 97k bertararte-ziurtagiria eskuratu dute.

Hobekien baloratu dituzten alderdiak txostengileen hizkuntza-gaitasuna eta metodologia dinamikoa eta parte hartzailea izan dira.

6.2.3.5. Erronkariko euskara.

Ikastaro hau Hizkuntza Garapen, Ikerketa eta Programazio Zerbitzuaren elkarlanean antolatuta zuten eta Zaraitzuko hiztegiaren egilea den Aitor Aranak eman du. Edukietan euskalki horren ezaugarriak, bere hiztegi zehatza eta ikastetxeetan osagai hauen nola ematen dituzten jorratu

dituzte. Batez ere Zaraitzuko Ibarrean lan egiten duten irakasleei zuzenduta egon da eta 18 irakaslek parte hartu dute, horietatik 13k bertaratze-ziurtagiria eskuratu dute.

6.2.3.6. Idatzizko ipuinen tailerra

Ikastaro horren bidez ipuinak kontatzeko trebetasuna garatu nahi dute, hala baliabide fonetiko, morfosintaktiko eta semantikoei dagokienez nola erabil ditzaketen ipuin tradizional eta egungoak aztertzeari dagokionez.

35 orduko iraupea du eta Euskara Irakasteko Baliabide Zentroan (EIBZ) burutu dute. Guztira 12 ikaslek parte hartu dute eta 10 ziurtagiri luzatu dituzte.

6.2.3.7. Literatura Unibertsala

Euskal hizkuntza eta literatura ematen duten Irakasleei zuzenduta dago eta aurretik mintegian prestatu dituzten eta zuzeneko saio batean obraren itzultzailearekin komentatu dituzten literatura unibertsaleko lanei buruzko unitate didaktikoak sortzeko helburua du.

Ziurtagiria parte hartu duten 12etatik 8k eskuratu dute.

Prestakuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasleen laburpena.

163. koadroa		
Prestakuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasleak, 2002-03ko ikasturtea		
	Izena emanda	Ziurtagiria lortu dute
Irakasleei euskara irakastea		
Lan-lizentzia duten birziklatzeko ikastaroak.	14	14
Ikastetxetan egindako ikastaro estentsiboak.	16	6
Laguntza indibidualak	32	32
Guztira	62	52

Irakasleen komunikazio-gaitasunaren eta hizkuntza-kalitatearen hobekuntza		
Freskatze ikastaroa	12	12
Eguneratze gramatikala	71	59
On-lineako eguneratze gramatikala	50	35
Itzulpen Ikastaroa I	12	11
On-lineako itzulpena	12	12
Irakasleentzako testu-tailerra	16	14
Guztira	173	143

Euskal hizkuntzaren kurrikuluaren garapena eta plangintza		
Hizkuntzaren erabilera sustatzeko estrategiak	42	34
Ahozko curriculum osatzea	35	35
Joko tradizionalak	89	84
Lagunarteko erregistroak	146	97
Erronkariko euskara	18	13
Ipuin idatzien tailerra	12	10
Literatura Unibertsala	12	8
Guztira	354	281

6.2.4. A Ereduko Jardunaldiak.

Maiatzaren 8 eta 9an Uharteko Euskara Irakasteko Baliabide Zentroan A Ereduko Jardunaldi batzuk egin zituzten, horiek eredu horretan euskara ematen duten irakasleei zuzenduta egon ziren. Jardunaldi horietan 155 irakasle inguruk parte hartu dute.

Jardunaldietan aurkeztu zituzten komunikazioak ereduaren euskarak dituen metodologia eta kurrikuluari buruzkoak izan ziren. Horretaz gain, irakasleek esperimenduak egin zituzten irakaskuntzako bost proiektu ere aurkeztu zituzten. Inprimatutako, ikus-entzunezko eta informatikako materialak jakinarazten zituen erakusketa ere egon zen.

Parte hartu duten irakasleek beste profesional batzuen lana ezagutzeko aukera positiboki baloratu dute eta eguneratze didaktiko hauek bezalakoak sistematikoki egiteko beharra nabarmendu dute. Jardunaldien jarduerak ondoren liburu batean jasoko dituzte eta berau euskara irakasgaitzat ematen duten irakasleei euskarri moduan balio izan dakien igorriko diete.

6.2.5. Materialak sortzea eta eskuratzea.

Hezkuntza Departamenduak, euskaraz dauden kurrikuluko materialak hobetzeko eta bere bolumena handitzeko beharraren jakitun dela, horri dagokionez esku hartzeko hiru ildo mantentzen ditu:

1.- Gehien erabiltzen dituzten material didaktikoak eta testuliburuak itzultzea. Jardunbide horren erakusgarri Departamenduko argitalpenak hainbat formatu elebidunetan argitaratzea eta baita argitaletxeek Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezagueraren arloko testuak euskaratzeko deialdia ere, honezkero egina, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien irakasgaien testuen ingurukoa, egun ebazteko aldian dagoena.

2.- Jatorrian euskaraz eginda dauden materialak ekoiztea eta argitaratzea.

3.- Ondoren ikastetxeetan banatzeko hainbat argitaletzek argitaratutako material didaktiko interesgarriak eskuratzea.

6.3. Euskara Irakasteko Baliabide Zentroa (EIBZ)

6.3.1. - Egitura.

2002/2003ko ikasturtean Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza-zerbitzua hobetzeko itunari jarraiki ekainaren 3ko 155/2002 Foru Dekretu bidez (02/96/28ko 78. N.A.O.) sortu zuten Euskara Irakasteko Baliabide Zentroaren jarduerari hasiera eman diote. Zentro horren helburua irakasleen hizkuntza-hobekuntzako jarduerak egitea, Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko deialdiak antolatzea eta euskararen erabilera gramatikalen eta eguneratzearen arloan ikastetxeei aholkularitza ematea eta baita hizkuntza hori irakasteko erabilgarri dauden baliabide didaktikoak kudeatzea ere da.

Helburu horiek betetzeko asmoz, Baliabide Zentroa ondoko arloetan egituratu dituzte:

- a) Prestakuntza-arloa, irakasleei hizkuntza-hobekuntzako ikastaroak ematen dizkiena.
- b) Hizkuntza Zuzentzeko eta Egiatzatzeko Arloa, EGA azterketa antolatzeko lanak aurrera eramaten dituena eta ikastetxeei euskararen erabilera gramatikalen eta eguneratzearen arloan aholkularitza emango diona.
- c) Informazio eta Baliabideen Arloa, euskara irakasteko erabilgarri dauden baliabideak kudeatzen dituena eta irakasleek erabili ahal izan ditzaten beharrezkoak diren aplikazioak eta baliabideak garatuko dituena.

Baliabide Zentroaren jarduera eta bere arlo ezberdinen koordinazioa Baliabide Zentroko Zuzendariak, Euskara Zerbitzuaren Didaktika Atalera atxikia dagoenak, kudeatzen ditu.

Araudiaren garapenaren barruan "Zubiarte Euskaltegia" H.I.rekin partekatutako baliabideak eta espazioak erabiltzeari buruzko jarraibideak idatzi dituzte, martxoaren 21eko 214/2003 EBAZPENA eta martxoaren 8ko 333/2003 EBAZPENA, Baliabide Zentroaren lan-plana eta jarduera araupetzen dituzten jarraibideak dituena. Ebazpen horretan bertan Baliabide Zentro eta Euskara Zerbitzuaren artean eginkizun eta harremanen banaketa finkatzen dute.

6.3.2. Baliabide Zentroan egindako Jarduerak

- a) Irakasleen Euskarako Prestakuntza Plana.

Baliabide Zentroko irakasleek Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunduetako irakasleei eskola eman diete. Prestakuntza-eskaintza ondokoa izan da:

1. Ikastaroak: Itzulpena, eguneratze gramatikala I, eguneratze gramatikal eta testugintzako "Freskatze" ikastaroa, hizkuntza hobetzeko alegiazko ikastaroa.
2. Moduluak eguneratze gramatikalari buruzko zentroetan.
3. Tailerrak: Testu-tailerra, ipuin-tailerra.
4. Mintegiak: Literatura unibertsala.

- b) Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) materialak eta azterketak prestatzea.

Baliabide Zentroko langileek EGAREN hiru deialdi ofizialeko (urtarrila, maitza-ekaina eta iraila) materialak eta azterketak prestatu dituzte. Irakasle guztiek EGAREN Epaimahai Ofizialean parte hartzen dute eta, gainera, horietako bi EGAREN Batzorde Ofizialeko kide dira.

- c) Zuzentzeko jarduerak eta hizkuntzari buruzko kontsultak.

Baliabide Zentrora atxikia dauden langileek euskaraz idatzita dauden testuak, hala ikastaroetan parte hartzen duten irakasleenak nola ikastetxe publikoetakoak, zuzentzeko lanak egin ditu. Horretaz gain, eguneratze gramatikal eta euskararen estiloekin lotutako hizkuntza-kontsultei ere kasu egin diete.

d) Baliabide Zentroaren web orria prestatzea.

Informazio eta Baliabideen Arlora atxikia dauden langileak web orri bat sortzen ari dira, bertan Baliabide Zentroaren jarduera nagusiak jasoko dituzte. Orri hori Hezkuntza Departamenduko Teknologia Berrien Zerbitzarian egongo da. Horretan Baliabide Zentroari atxikiak dauden alderdi guztiak jasoko dituzte, hala nola Zentroaren araudia, langileen Arloetara duten atxikipena, horien eginkizunak, irakasleei eskaintzen dizkieten ikastaroen zerrenda, hizkuntza eta teknologia berrien inguruko aholkularitza,...e.a.

6.4. Hizkuntzaren erabilera sustatzeko eta berau hobetzeko eskolaz kanpoko jardueren eta osagarrien programak.

Hizkuntzaren ikaskuntza indartzeko jarduketa berezien helburua ikastetxeek aurretik zehaztuta dauden hizkuntza-helburuak erdiesteko eginkizuna erraztea da. Eskola Kontseiluak 1999-2000ko txostenean aholkatu zuen bezalaxe, osagarriak eta eskolaz kanpokoak diren jarduerak hauek ikastetxeen Urteko Programazioan sar daitezten erraztu dugu.

6.4.1. Egonaldiak euskaraz.

Honen bidez 5 eguneko egonaldia, astelehenetik ostiralera bitartean, euskalduna den herri batean eskaini nahi dute A eta D ereduko ikasleek euskara nagusiki erabiltzen duten inguru natural batean bizi ahal izan dezaten. "Urtxintxa" enpresak egonaldia kudeatzen du, horrek programaren hizkuntza-jarduerak egiteaz arduratzen diren hiru begirale espezialista ditu.

Egonaldiko taldea ikasgela oso bateko ikasleek eta hauen tutoreak osatzen dute. Ikasle bakoitzak 34 euro ordainduko ditu egonaldi bakoitzeko.

Tutoreek egindako balorazioari dagokionez, eskolaz kanpoko eta hizkuntzaren bizipen intentsiboko egoera batean euskara erabiltzea nabarmentzen dute, horrek ondoren izaten duten ikasgelako dinamikan eragin nabarmena duelarik. Helburuak hizkuntzaz haratago doaz: taldeko dinamika, ingurunearen ezaguera, autonomia pertsonala,...e.a. Ikasleek jolas-jarduerak, joko eta aire zabaleko mugimendukoak egitea baloratzen dute.

Ikasturte honetan 28 txanda egin dituzte eta 779 ikaslek parte hartu dute, horietatik 472 D ereduan eskolatuta daude eta 347 A ereduan. Ezin izan dute eskari osoari erantzun eta 190 eskabide baino gehiagori erantzuterik ez dute izan.

Helburua A ereduko ikasleek euskara modu naturalean eta orokorrean erabiltzen duten ingurune batean bizi ahal izan dezaten euskalduna den herri batean egonaldia eskaintzea da.

Matrikula indibiduala edo talde txikikoa da (6 ikasle gehienez). Egonaldiak 6 eguneko iraupena du, astelehenetik larunbatera bitartean. Ikasle bakoitzak 67,58 euro ordaintzen dituzte kanpamendu bakoitzeko.

Urtxintxa enpresak kanpamendua kudeatzen du, horrek programaren jarduerak zuzentzeaz arduratzen diren lau begirale espezialista ditu.

Guztira 978 eskabide jaso dituzte. Programan 9 txandetan guztira har dezakeen ikasle kopurua 450ekoa da. Ezin izan dituzte 528 eskabide hartu.

6.4.2. Eskolaz kanpoko jarduerak.

Kanpaina hau A, B eta D hizkuntza-ereduak dituzten ikastetxe publiko eta pribatuetara zuzenduta dago. Horren bidez hizkuntzarekin lotuta dauden eskolaz kanpoko jardueren (antzerkia, txotxongiloak, animazioko jarduerak, musika komentatua, herri kirolak,...e.a.) antolaketa zati batez finantzatzen dituzte euskara erabiltzeko testuingurua handitzeko asmoz.

Ikastetxeek talde bakoitzaren eta bere jardueraren fitxa bana dute, horietan honakoa jasota dago: 1) jarduera mota, 2) nori zuzenduta dagoen, 3) erabilitako metodologia eta 4) talde eta ikasleen arteko harremana.

Ikastetxeak aukeratutako taldeak irakasleei, jarduerak egin baino lehen, horrekin lotuta dagoen material didaktikoa bidaltzen die. Ondoren, arduraduna den irakasleak Euskara Zerbitzuari jarduerak nola joan den eta egiten duen balorazioa jasotzen duen txostena bidaliko dio.

Aurten 137 jarduera egin dituzte A eredu ikastetxeetan eta 77 D ereduakotan, guztira 15.634 ikaslek parte hartu dute.

6.4.3. Idazleak ikastetxean.

Idazleek ikastetxeak bisitatzen dituzte eta ikasleekin hitz egiten dute, bere obra, teknikak, bizipenak,...e.a. azaltzen dituzte eta egiten dieten galderei erantzuten diete. Horren aurretik, ikasleek, bere irakasleak zuzenduta, idazleak hautatutako testu bat prestatu dute horren kritika egiteko asmoz.

2002-2003 ikasturtean 24 idazlek parte hartu dute, horiek 1.428 ikasleri hitzaldiak eman dizkiete bigarren hezkuntzako 37 ikastetxetan.

6.4.4. Hitzaldi zientifikoak

Hitzaldi horien bidez euskarazko zientzia-ezagutzaren mundua Bigarren Hezkuntzako ikasleei hurbildu nahi diete eta, bide batez, arlo hauetan hizkuntza-erabilera akademikoa indartu nahi dute.

Bi zati ditu: lehendabizikoan txostengileak aukeratutako gaia azaltzen du (hainbat espezialistak proposatutako 26tatik) eta bigarrenean ondorioak eztabaidatzen dituzte edo ikasleek zein irakasleek egindako galderak komentatzen dituzte. Hitzaldiak urtarrila eta maiatza bitartean, eskolako ordutegian eta ahal bada ikasgelako taldean, ikastetxean erabakitako egun eta orduan, ematen dituzte.

Ikasturte honetan guztira 50 hitzaldi eman dituzte bigarren hezkuntzako 27 ikastetxetan, horietan 1.265 ikaslek parte hartu dute.

6.4.5 Bertsolaritza irakaskuntzan.

6.4.5.1. Bertsolaritza eskolan.

Bertsolaritza aritza ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzeko baliabide garrantzitsua dela frogatuta dago. Bertsoa ahozko adierazpena aberasteko egokia den hizkuntzaren poetika-erretorikako erregistroa da, eta gai ugari hizkuntza-funtzio ezberdinez lantzeko elkargunea da.

Jarduera honen bidez, ikasturte akademikoan zehar, ikasleei zuzeneko eskolako 19 ordu eman nahi dizkiete irakasle titularra nahitaez egon behar dela. Urtero programan aurreikusita dauden unitate didaktikoak argitaratzen dituzte. Koadernotxo erabiltzeko gida didaktikoaren ustiapena eta aurkezpena programan parte hartzen duten irakasleei zuzenduta horretarako antolatu duten prestakuntza-ikastaroan egiten dituzte.

Programa 12 ikastetxetan burutu dituzte eta Lehen Irakaskuntzako Goi Zikloaren 225 ikaslek parte hartu dute.

6.4.5.2. Bertso-eskolak.

Eskolaz kanpoko ordutegian egiten duten jarduera da eta helburua hala nahi duten eta bertsoak egiteko gaitasun handiagoa erakusten duten ikasleek praktika honetan sakontzeko aukera izan dezaten da. Ikasturte honetan 14 bertso-eskola egon dira eta guztira 98 ikaslek parte hartu dute.

6.4.6. Liburuen altxorra.

Helburua: Eskola unitarioetako ikasleen artean irakurketaren zaletasuna sustatzea.

Deskribapena: Pirataz mozorrotutako antzezlari batek umeekin altxor-kutxa partekatzen du bertan 140 liburu baino gehiago daudelarik; hilabetez horretaz gozatu eta berau gordetzen dute eta, orduan, beste herri batera eramaten dute.

Horren barnean honakoa sartzten da: Horma-irudiko euskarriak, proposamen didaktikoak era irakurketa-agendak.

Partaideak: Leitza, Sakana eta Bortzirietako nekazaritzako 22 eskola.

6.4.7. Eskolako lehiaketak.

6.4.7.1. Literaturako lehiaketa

Literaturako lehiaketaren barruan narrazioa, ipuina eta olerkia sartzten dira eta Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako goiko zikloko ikasleei zuzenduta dago. Aurten 626 lan jaso dituzte eta guztira 29 sari banatu dituzte.

6.4.7.2. Dialektologia eta etnografiako lehiaketa

Dialektologiaren lehiaketan ohitura, esaera zahar eta joko tradizionalekin lotuta dauden gaiei buruz hainbat euskalkitan egin dituzten lanak onartzen dituzte. Lehiaketa derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergoko ikasleei zuzenduta dago. Aurten 14 lan jaso dituzte.

6.4.7.3. Deklamazioko lehiaketa.

“Pedro Diez de Ulzurrun” izeneko deklamazio-lehiaketak horietan parte hartzen dituzten taldeek, ikasgelek, oro har, irakurritako edo buruz esandako testuen grabazioak baloratzen ditu. Lehiaketa lehen hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko eta bigarren hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleei zuzenduta dago. Aurten 17 grabazio jaso dituzte.

6.4.7.4. Idatzizko bertsoko lehiaketa.

49 ikastetxek parte hartu dute, horiek guztira lanak prestatzeko laguntzeko 80 zuzeneko eskola jaso dituzte. Ikastetxeek lanik onenak aurretik aukeratzen dituzte, lehiaketan aurkezteko aukeratu dituzten lanak 1050 baino gehiago izan dira. Saritutako lanak liburu batean argitaratzen dituzte ondoren ikastetxeetan zabaltzeko.

6.4.7.5. Haur kantuko lehiaketa.

Lehiaketa honetan musika-irakaskuntzako elementu teorikoak praktika aktiboaren bidez sendotzeko aukera dute. Aurten 1.719 ikaslek osatutako 71 taldek parte hartu dute.

6.4.8. Antzerki topaketak

Programa hau antzerkia baliabide didaktikotzat erabiltzen duten ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dago. Praktika onak zabaltzeaz gain, elkar ezagutza eta errealitate soziolinguistiko ezberdinak dituzten ikasleen arteko trukeak ere, hizkuntzakoak besteak beste, sustatu nahi dituzte.

Ikasleek antzezlana prestatzen dituzte bere ikastetxean eta aurten ikasle moduan parte hartzeko borondatea agertu duten beste 26 ikastetxeko batzuetan antzezteko asmoz. Ikasturte honetan guztira 24 emanaldi egin dituzte Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. Bigarren Hezkuntzako ikasleek 3 antzezlana antzeztu dituzte Iruñeko Erraldoien Patioan, horietan sarrera librea zegoen eta arrakasta handia izan dute.

Emanaldiak bukatu ondoren, elastikoak eta diplomak banatu zituzten parte hartu zuten ikasleen topaketako egun batean.

6.4.9. Gazteen lagunarteko erregistroak erabiltzeko programa

Jarduera osagarri hau ikastetxeko urteko programazio nagusiaren barruan dago. Programa honen bidez 2 orduko 5 saioa edo ordubeteko 10 saio egiten dituzte, saio horietan lagunarteko hizkuntzaren hainbat alderdi ikasgelako taldean lantzen dituzte. Horren barruan hiru unitate didaktiko lantzen dituzte, hauetan gogo-aldarteari, gizarte-harremanei eta harreman informalarri buruzko hizkuntza ez-formala lantzen dute. Unitate hauetan hitz arrunten glosarioa egin dute.

Taldearen tutore arduradunak ondoren jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du, honen barruan ikasleen arteko informatika-berriketa koordinatzea ere badago.

Urtxintxa eta Ttakun elkarteek begiraleak jartzen dituzte, eta jarduera D.B.H.ko 3. mailako ikasleei zuzenduta dago. 10 institututan matrikulatuta dauden 462 ikaslek parte hartu dute.

Jarduera eraginkorra izan da gazteen lagunarteko erregistroak ezagutzeko eta erabiltzeko. Ikastetxeek, oro har, jarduera positiboki baloratu dute eta ikasleek egindako lanarekin pozik daudela adierazi dute.

6.4.10. Hizkuntza-proiektuak garatzeko laguntzen deialdia.

Deialdi honen helburua ikastetxeek dagoeneko eginda dituzten Hizkuntza Proiektuak hobetzeko eta gauzatzeko jarduerak planifikatzea eta esperimintatzea da.

Deialdi hau hizkuntza-proiektua eginda duten ikastetxeei eta ingelesezko edukiak indartzeko programaren antizipazioan parte hartu dutenei zuzendu zaie.

Laguntzen deialdiak jarduerak hainbat areatan zati batez finantzatzen ditu: irakasleen hizkuntza eta pedagogiako hobekuntza, ikastetxearen arau-erabilera, erabileraren estrategiak ikasgelaren barruan, ikastetxeko bestelako espazio batzuetan edo horren inguruan, gurasoen informazioa eta partaidetza, laguntzako materialak egitea,...e.a.

17 ikastetxek parte hartu dute eta 52 jarduera inguru sustatu dituzten horien diseinu eta balorazioa eskuragarri daudelarik beste ikastetxe batzuetan "praktika ereduak" zabaltzeko asmoz.

6.4.11. Ahozko adierazpenak indartzeko *Solaskide* programa, Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialarekin lankidetzan aritzen diren bigarren hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dagoena.

2000/2001 ikasturtean, bigarren hezkuntzako ikastetxeek A eta D ereduaren euskararen irakasgaiaren Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialarekin lankidetzan aritzeko programari hasiera eman zioten. 2002/2003 ikasturte honetan, programa hasi zuten ikasleak, kasuaren arabera, Hizkuntza Eskola Ofizialaren edo EGA titulua eskuratzeko azterketa ofizialetara aurkeztu ziren.

EOINAko Euskara Saileko irakasleek egin duten proposamenarekin bat etorri, SOLASKIDE programa antolatu dute, horren barruan aipatutako maila horietarako finkatutako programazioan adierazitako helburuak lortzeko eta ikasle horien ahozko adierazpeneko gaitasunak indartzeko ahalbidetzen duten laguntza-jarduerak egiteko asmoz mintzakideak sartzen dira. Delako programa hori 2003. urteko otsailaren 1etik eta maiatzaren 31ra bitartean egin dute, ikasle-talde bakoitzak ordubete izan duela astean.

Programa honetan parte hartu duten ikasle eta talde kopurua hurrengo koadroan adierazita dago:

164. koadroa					
Solaskide Programako Partaidetza					
Herria	Ikastetxea	Eredua	Maila	Taldeak	Ikasleak
Altsasu	S. Miguel BHI	D	Ega	2	49

		A	Oinarrizko Zikloa	2	25
Barañain	Alaitz BHI	D	Ega	2	42
Bera	Toki Ona BHI	D	Ega	2	32
Burlata	Ibaialde BHI	A	Oinarrizko Zikloa	1	19
Lekaroz	Lekarotz BHI	D	Ega	3	50
Lizarra	"Tierra Estella" BHI	D	Oinarrizko Zikloa	2	20
Iruñea	Donapea BHI	D	Ega	2	37
	Eunate BHI	D	Ega	2	38
	Plaza de la Cruz BHI	A	Oinarrizko Zikloa	1	11
	Padre Moret BHI	A	Oinarrizko Zikloa	1	10
	Iturrama BHI	D	Ega	4	119
	Navarro V. BHI	A	Oinarrizko Zikloa	1	13
Tutera	Benjamin BHI	A	Oinarrizko Zikloa	1	13
Guztira				26	478

Jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan izan duten partaidetzaren laburpena.

Euskarazko egonaldiak:	28 txanda	779 ikasle
Eskolaz kanpoko jarduerak:	214 jarduera	15.634 ikasle.
Idazleak ikastetxean:	37 ikastetxe	1.428 ikasle.
Hitzaldi zientifikoak:	27 ikastetxe	1.265 ikasle.
Bertsolaritza:	12 ikastetxe	225 ikasle
Bertso-eskolak:	14 eskola	98 ikasle.
Liburuen altxorra:	22 nekazaritza eskola.	
Literaturako lehiaketa:		626 lan.
Etnografiako lehiaketa:		14 lan.
Deklamazioko lehiaketa:		17 grabazio.
Idatzizko bertsoko lehiaketa:	49 ikastetxe	1.050 lan.
Haur kantuko lehiaketa:	71 talde.	1.719 ikasle.
Antzerki-topaketak:	26 eskola	27 emanaldi
Lagunarteko erregistroak:	10 institutu	462 ikasle
Hizkuntza-proiektuak:	17 ikastetxe	52 jarduera.
Solaskide programa:	26 talde	478 ikasle
Udalekua:	9 txanda	450 ikasle

6.4.12. Jardueren urteko programazioa.

ERABIL gida urtero argitaratzen dute eta Euskara Zerbitzuak A eta D eredu-tako ikasleentzat antolatzen dituen hizkuntza-laguntzeko jardueren programazioa eta baita irakasleei zuzendutako hizkuntza-prestakuntzako proposamenak ere bertan sartzen dira. Bere helburua ikastetxeei euskararen eta euskarazko irakaskuntza laguntzeko jarduketak sistematizatzen laguntzea da horiek Urteko Programazio Nagusian sar ditzaten.

2003/2004 ikasturteari dagokion edizioan euskara irakasteko Baliabide Zentroaren egitura eta eginkizunak eta baita Zerbitzuak ikastetxeetan horien zabalpena bermatzeko eskuratu eta ekoitzi dituzten material didaktikoen zerrenda ere gaineratu dituzte.

6.5. Helduei zuzendutako euskararen irakaskuntza.

6.5.1. Zubiarte euskaltegia

“Zubiarte Euskaltegia” izeneko helduei Euskara Irakasteko Zentro Publikoak euskararen irakaskuntza mailakatuak ematen ditu Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) titulua egiaztatzen duen maila eskuratu arte eta emandako mailak gainditzea ere, aipatutako titulua izan ezik, berau kanpoko proba batzuk gaindituta lortzen baitute, ziurtatzen du. Eremu eta maila horretan hala nahi duten helduei, irakasleei barne, eskolak ematen dizkie bai ikastaro trinkoetan ikastaro estentsiboetan, horiek Zentroaren egoitzan bertan edo, bestela, deialdi zehatzen ondorioz Hezkuntza Departamenduak zehazten dituen ikastetxeetan ematen dituzte.

2002/2003 ikasturtean zehar Zentroaren funtzionamendua araupetu dute uztailaren 5eko 365/2002 Foru Aginduan onetsitako Antolamendu eta Jarduera Araudia praktikan jarri zutela, beraren bidez gobernu-egiturak, kudeaketan eta zentroaren kontrolean parte hartzeak eta koordinazio didaktikokoak eta baita zentroaren jarduerako arauak ere ezarri zituzten. Aipatutako arauak ikastetxeetan ohikoak direnekin eta, bereziki, helduei irakaskuntza emateko zentroetako berezko arauekin eta egiturekin eta, modu subsidiarioan, haur eta lehen hezkuntzako zentroekin, helduei euskara irakasteko zentro zehatz bateko ezaugarriei egokituta daudelarik, homologagarriak dira.

Heldu den ikasturterako eta irakaskuntzako formatu berrien eskariari erantzuteko helburuz Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren ekainaren 24ko 474/2003 Ebazpena onetsi dute, beraren bidez euskara ikasteko modalitate mistoa (bertaratutako irakaskuntza/autoikaskuntza) modu esperimentalean ezartzea baimendu zuten.

Egoitza berriak, Uharteko Mokarte parkean, instalazio oso duinak ditu eta bertan hizkuntzen irakaskuntzako planteamendu modernoa egiteko beharrezkoak diren informatikako, ikus-entzunezko eta era guztietako baliabideak ezarri dituzte. Baliabide horiek euskara irakasteko Baliabide Zentroarekin, egoitza berean kokatuta dagoenarekin, partekatzen dituzte. Baliabide horien kudeaketan eta erabileran edozein desadostasun saihesteko asmoz, Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren martxoaren 21eko 214/2003 EBAZPENAREN bidez partekatutako baliabideak eta espazioak erabiltzeari buruzko jarraibideak onetsi dituzte.

Helduei Euskara Irakasteko Zentro Publikoan egondako matrikulak orain arte izan duen joera berberari eutsi dio:

165. koadroa									
Matrikularen bilakaera Zubiarte euskaltegian, 1998-99tik 2002-03ra									
1998-99		1999/00		2000/01		2001/02		2002/03	
I.	II.	I.	II.	I.	II.	I.	II.	I.	II.
833	741	820	813	729	688	650	519	552	486

Oharra: 2001/02 ikasturtera arte ikasle horiek Miluze zentroan matrikulatuta zeuden.

6.5.2. Helduei euskararen irakaskuntzako ikastetxe pribatuentzako dirulaguntza

Dirulaguntza hori ordaintzeko erabilgarri dagoen kontu-saila, erakunde hauetan matrikulatutako ikasleak gutxiago izan direlako, murriztu bada ere, ordaintzen duten dirulaguntza-modulua handitu ahal izan dugu.

166. koadroa	
Helduei euskara irakasteko zentro itunduentzako dirulaguntza, 1999tik 2003ra	
Urtea	Aurrekontua
1999	107.000.000
2000	107.000.000
2001	107.000.000
2002	570.961,50 euro (95.000.000 pezeta.)
2003	539.697 euro

Matrikulazioa, ikasturtearen hasierako datuak kontuan hartuta, honakoa da:

97-98	98-99	99-00	00-01	01-02	02/03
3.931	3.560	3.267	2.789	2.203	1.957

Dirulaguntzak emateko ateratako moduluak modu honetan bilakatu dira:

Urtea	1998	1999	2000	2001	2002	2003
Modulua	102 pzta.	102 pzta.	106 pzta.	125 pzta.	0,85 euro (141 pzta.)	0,95 euro
Barnetegiak	742 pzta.	742 pzta.	825 pzta.	900 pzta.	5,5 euro (915 pzta.)	6,5 euro

6.6. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiriaren Titulua (EGA).

Lehenengo aldiz, azterketari buruzko informazio guztia hartzen duen triptikoa argitaratu dute, web orrian zabaldutako informazioa osatzen duena.

Ikasturte honetako 601/2002 FORU AGINDUAN (ikusi atalean 6. epigrafe honen araudia) hurrengo hobekuntzak ezarri dituzte aurreko urtearen aldean.

1. Atariko proba gainditu ahal izateko gutxieneko puntuazioa 65 puntutan ezarri dute eta aurkeztutakoen %50 gutxienez gainditu behar zutela zioen klausula indargabetu dute, berau indarrean egon zela aurreko urtera arte.

2. Ahozko azterketa hizkuntzen irakaskuntza eta ebaluazioko metodologia berrietara egokitu dute. Azterketan bi proba daude:

Luzatutako tituluen bilakaera.

167. koadroa			
Luzatutako EGA tituluen bilakaera			
Urtea	Matrikulatuak	Gaindituak	Ehunekoa
1998	502	61	%12,15
1999	667	196	%29,38
2000	704	164	%23,29
2001	682	176	%25,80
2002	567	139	%24,51
Guztira	3.122	736	%23,57

Gainera, beste 117 pertsona gehiagok titulua eskuratu dute Maisutza euskaraz egin dutelako.

Bestaldetik, Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialekin lankidetzan aritzen diren zentroetan D ereduan eskolatuta dauden ikasleek, EGA titulua eskuratzeko azterketa ofizialera aurkezteko aukera dute. Modalitate honetarako matrikula egin duten bi ikasturteetan 2002. urtean 358 ikaslek izena eman zuten eta 2003. urtean 351 ikaslek.

7. HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOA.

7.1. Egitura orokorra.

Hezkuntza Administrazioari buruzko araudia, 2002-03 ikasturtea
--

233/2003 Foru Dekretua, uztailaren 15ekoa, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena (NAO, 91 zk., 2003ko uztailaren 16koa).
--

2003ko maiatzaren 25ean izandako hauteskunde autonomikoen ondorioz gobernu berria osatu da, eta ondorioz uztail eta abuztuan Hezkuntza Departamentuaren egitura organiko berria eratu da, uztailaren 15eko 233/2003 Foru Dekretuak onetsia.

Nolanahi ere, 2002/2003 ikasturtean eraginkorra izan den egitura da txosten honetan jasotzen dena:

- Idazkaritza Teknikoa.
 - Administrazio Araubideko Atala.
 - Araubide Juridikoaren Atala.
 - Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala.
- Giza Baliabidetako Zerbitzua.
 - Langileria Atala.
 - Nomina eta Gizarte Aseguruaren Atala.
 - Lan Arriskuei Aurrea hartzeko Atala.
- Inbertsio Zerbitzua.
 - Obra eta Ekipamendu Atala.
 - Departamentuko Egoitzen eta Ikastetxeen Mantentze lanetarako Atala.
- Ikasketen Antolamendu eta Lanbide Heziketaren Zerbitzua.
 - Ikasketen Antolamenduaren Atala.
 - Lanbide Kalifikazioen Atala-Kalifikazioen Nafarroako Institutua.
 - Lanbide Heziketa Berriztatu eta Garatzeko Atala.
 - Lanbide Heziketa eta Enpresa Atala.
- Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua.
- Euskara Zerbitzua.
 - Euskararen Didaktika eta Sustapenaren Atala.
- Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua.
 - Hezkuntza Berriztapen eta Hezkuntza Sustapenaren Atala.
 - Dibertsitate eta Kultura-Aniztasunerako Atala.
 - Irakasleen Hobekuntzako Atala.
- Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzua.
 - Ikastetxeen eta haien Finantzaketaren Atala.
 - Ikasketetarako Laguntzen Atala.
- Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzua.
 - Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Atzerriko Hizkuntzen Atala.
 - Teknologia Berrien Atala.

7.2. Hezkuntza Ikuskaritza.

Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko Araudia, 2002-03 ikasturtea
473/2002 Foru Agindua, urriaren 8koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuko ikuskatzaileen kidegoetakoak eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen kidegokoak diren funtzionarioen lekualdatze lehiaketetarako deialdia onesten duena. (NAO, 130 zk., 02/10/28koa).
672/2002 Ebazpena, irailaren 2koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren 2002-2003 ikasturteko Plan Orokorra ezartzen duena. (NAO, 126 zk., 02/10/18koa).
141/2003 Foru Agindua, martxoaren 25ekoa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Hezkuntzako ikuskatzaileen kidegokoak diren funtzionarioen lekualdatze lehiaketaren deialdiari bukaera ematen diona. (NAO, 60 zk., 03/05/14koa).

7.2.1. Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren 2002-2003 ikasturteko jarduerari buruzko txostena.

Irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretuaren 9. artikulua arabera, Hezkuntza zuzendari nagusiaren irailaren 2ko 672/2002 Ebazpenaren bitartez (NAO, 126 zk., urriaren 18koa) Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren 2002-2003 ikasturterako Urteko Plan Orokorra ezarri zen. Alderdirik garrantzitsuenak hauek dira:

Helburuak::

1.- Helburuak, lehenetsuneko jarduerak eta berariazko jarduerak ebazpen horretan jasotakoak dira.

2.- Egindako jardueretatik ondorioztatutako argitalpen, azterketa eta txosten garrantzitsuenak hauek dira:

- a) Ikastetxeen antolamendua Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 5eko 366/2002 Foru Aginduan xedatutakoari egokitzen zaion ikustea. Foru Agindu horren bitartez, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ordutegia aldatu egiten da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako.
- b) Nafarroako Foru Komunitateari dagokion curriculum eman dela kontrolatzea, eta kontrolatzea, era berean, testuak indarrean dauden legeetara egokitzen direla.
- c) Lehen Hezkuntzako 6. mailan Gaztelania eta Literatura, Euskal Hizkuntza eta Literatura eta Matematika arloetako ikaskuntza eta irakaskuntza ebaluatzeko txostena.
- d) DBHko 2. eta 4. mailako ingeles ikaskuntza eta irakaskuntza ebaluatzeko txostena.
- e) Landa-lanean jasotako informazioaren laburpena, eta Lehen Hezkuntzako kalitate eta ebaluazio planekin lotuta ikastetxeetan antzemandakoaren txosten laburra egitea.
- f) Haur eta lehen Hezkuntzako ikastetxeen kalitate eta ebaluazio plana. Hobetzeko ildo eta helburuak (lan-dokumentua).
- g) Departamentu didaktikoen azken ebaluazio txostena.
- h) Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen ebaluazio eta kalitate plana. Hobetzeko ildo eta helburuak (lan-dokumentua).
- i) 2002-03 ikasturteko emaitza akademikoak.
- j) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailako Gaztelania eta Literatura, Euskal Hizkuntza eta Literatura eta Matematika arloetako ikaskuntza eta irakaskuntzaren ebaluazio txostena.
- k) Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle balantzea. 2003-04 ikasturtea.
- l) Bigarren Hezkuntzako irakasle balantzea. 2003-04 ikasturtea.

Aipatutako azterketak eta txostenak Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren 2002-03 ikasturteko Memoriaren eranskin gisa sartzen dira. f), g) eta h) letretan azaldutakoak argitaratu egin dira, eta c) eta d) letrei dagozkienak argitaratzeko bidean dira.

7.2.2. Prestakuntza eta Hobekuntza Plana.

Zerbitzuko Prestakuntza Plana irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretuaren arabera ezarri zen, eta irailaren 2ko 672/2002 Ebazpenean jasotzen da.

Prestakuntza plan horretako jarduera nagusien garapena taula hauetan adierazten da:

168. taula					
Prestakuntza eta Hobekuntza Nafarroako Ikuskaritza Zerbitzuan, iraila-ekaina					
2003-09-26					
Jardueraren antolatzailea	Jardueraren izena	Ikuskari-kopurua	Ordu-kopurua		
			Berlaratzekoak	On-Line	Beste batzuk
Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (INAP)	Prestakuntza komunitateko hizkuntzetan	2	240		120
Ikuskaritza Zerbitzua	Kalitatea Ikuskaritzan	19	570		380
Kaliterako Nafarroako Fundazioa	EFQM ebaluatzaile ikastaroa	8	120		
Kaliterako Espainiako Fundazioa	Kalitate Jardunaldiak	1	20		
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa	Lanbide kalifikazioari buruzko Europako Jardunaldiak	2	24		
	Gaitasun handiko ikasleen Topaketa Naz.	2	24		
Hezkuntza Departamentua	EXCEL ikastaroa	2		70	
	Interneteko hastapena	2		70	
	EXCELen sakontzea	2		70	

Bigarren Hezkuntzako Ikuskarrien Elkartea Nazionala	Biltzarra: LOCE	3	36		
EHU	Biltzarra: Kalitatea, ekitatea, hezkuntza.	1	17		
GUZTIRA		44	1051	210	500

Prestakuntza eta hobekuntzarako jarduerak hauen balorazioa positiboa izan da.

169. taula Ikuskaritzako plantillaren garapena, 1998-99 ikasturtetik 2002-2003ra					
Ikasturtea	1998/99	1999/00	2000/01	2001/02	2002/03
Lanpostuak	20	20	22	22	23
Lanean	16	16	20	20	20

7.3. Eskola zerbitzuak.

Eskola zerbitzuei buruzko araudia, 2002-03 ikasturtea
146/2002 Foru Dekretua, uztailaren 2koa. Arautzen ditu Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin itundutako ikastetxe pribatuen eskolako jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola zerbitzuak. (NAO, 108 zk., 02/09/6koa).
297/2002 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, jantoki baimenduen zerrenda ezagutarazi eta 2002-2003 ikasturterako tarifak eta kuotak onesten dituena. (NAO, 95 zk., 2002/08/07koa).
186/1993 Foru Agindua, maiatzaren 11koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana. Horren bitartez, Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuan xedaturikoa garatzen da. (NAO, 1993-05-31).
2002ko 391/392/393/394 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, 2002-2003 ikasturterako ikasleen garraio zerbitzu batzuen lehiaketa publikoaren bidezko kontratazioa eman gabe uzten duena. (NAO, 113 zk., 02/09/18koa).
396/397/405 eta 412/2002 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, 2002-2003 ikasturterako ikasleen garraio zerbitzu batzuen lehiaketa publikoaren bidezko kontratazioa esleitu eta beste batzuen eman gabe uzten duena. (NAO, 114 zk., 02/09/20koa).
426/2002 Foru Agindua, abuztuaren 27koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, 2002-2003 ikasturterako ikasleen garraio zerbitzu batzuen lehiaketa publikoaren bidezko kontratazioa esleitu eta beste batzuen eman gabe uzten duena. (NAO, 126 zk., 02/10/18koa).
186/2002 Foru Agindua, ekainaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko irakaskuntza ez-derrigorrezkoen tarifak eta ikasleen egoitzetako prezioak finkatzen dituena. (NAO, 80 zk., 02/07/03koa).
189/2002 Foru Agindua, ekainaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, 2002/2003 ikasturtean eskola garraioak izan behar duen funtzionamendu eta antolaketako jarraibideak ematen dituena. Eskola-garraioaren 2002/2003 ikasturteko antolaketa eta funtzionamendurako jarraibideak onesten dituen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 4ko 189/2002 Foru Aginduko akatsen zuzenketa. (NAO, 113 zk., 02/09/18koa).
624/2002 Foru Agindua, abenduaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, eskola garraioko zerbitzua egiten duten enpresen kontratuak 2002/2003 ikasturterako luzatzeko baimena ematen duena (NAO, 157 zk., 02/12/30koa).
122/2003 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legean ezarritako hezkuntza itunen modulu ekonomikoak eguneratzen dituena 2003. urterako. (NAO, 73 zk., 03/06/11koa).
164/2003 Foru Agindua, apirilaren 9koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, 2003-2004 ikasturtean eskola garraioak izan behar duen funtzionamendu eta antolaketako jarraibideak ematen dituena. (NAO, 69 zk., 03/06/2koa).
314/2003 Foru Agindua, ekainaren 19koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana. Horren bidez, jantoki baimenduen zerrenda ezagutzera eman eta 2003-2004 ikasturterako tarifak eta kuotak onetsi ziren. (NAO, 129 zk., 03/10/08koa).
366/2003 Foru Agindua, abuztuaren 1koa, Hezkuntza kontseilariak emana, 2003/2004 ikasturterako, ikastetxe batzuetarako jantoki zerbitzuak lehiaketa publikoaren bidez kontratatzea xedatzen duena. (NAO, 103 zk., 03/08/13koa).
367/2003 Foru Agindua, abuztuaren 1koa, Hezkuntza kontseilariak emana, 2003/2004 ikasturterako, ikastetxe batzuetarako jantoki zerbitzuak lehiaketa publikoaren bidez kontratatzea xedatzen duena. (NAO, 103 zk., 03/08/13koa).
368/2003 Foru Agindua, abuztuaren 1koa, Hezkuntza kontseilariak emana, 2003/2004 ikasturterako, ikastetxe batzuetarako jantoki zerbitzuak lehiaketa publikoaren bidez kontratatzea xedatzen duena. (NAO, 103 zk., 03/08/13koa).
369/2003 Foru Agindua, abuztuaren 1koa, Hezkuntza kontseilariak emana, 2003-2004 ikasturterako, ikasleen garraio zerbitzua kontratatzeko 45 espediente onesten dituena. Espedientea horiek Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako garraioko 280 ibilbideak biltzen dituzte eta zerbitzua 9 plaza edo

gehiagoko ibilgailuetan eginen da. (NAO, 103 zk., 03/08/13koa).

370/2003 Foru Agindua, abuztuaren 1ekoa, Hezkuntza kontseilariak emana, 2003-2004 ikasturterako, Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako ikasleen garraio zerbitzua kontratatuzko 38 espediente onesten dituena. Zerbitzu hori 9 plaza bitarteko ibilgailuetan eginen da. (NAO, 103 zk., 03/08/13koa).

371/2003 Foru Agindua, abuztuaren 1ekoa, Hezkuntza kontseilariak emana, ikastetxe publikoetako eskola jantokietako zerbitzuaren kontratazioa 2003-2004 ikasturtera luzatzen duena. (NAO, 109 zk., 03/08/27koa).

7.3.1. Eskola-jantokiak.

Egun bakoitzeko gehienez baimendutako kuotak (eurotan)					
Ikasturtea	98/99	1999/00	2000/01	2001/02	2002/03
Kuota	1,23	1,23	1,26	1,32	1,37

Bere balio osora (4,62€) bitarteko gainerako zenbatekoa Hezkuntza Administrazioak ordaintzen du (batez besteko kostua eguneko 3,25 eurokoa da 2002/2003 ikasturterako).

170. taula											
Eskola-jantokiaren garapena, 1997-98 ikasturteratik 2002-03ra											
Ikasturtea	Jantokia duten ikastetxeak						Diruz lagundutako bazkaltarrak				
	97/98	98/99	99/00	00/01	01/02	02/03	98/99	99/00	00/01	01/02	02/03
Eskualdekoak	45	43	40	38	41	40	3.705	3.516	3.308	3.572	3.743
Arruntak	27	29	34	33	32	34	807	854	1.063	1.256	1.349
Banak. laguntzekin	16	18	18	17	19	20	132	150	146	148	153
Guztira	88	90	92	88	92	94	4.644	4.520	4.517	4.976	5.245

Gastuak (eurotan)					
Ikasturtea	98/99	99/00	00/01	01/02	02/03
Eskualdekoak	1.018.452,17	1.053.104,68	1.099.000,91	1.167.065,74	1.224.345,70
Arruntak	244.544,01	277.147,67	390.807,92	430.489,98	501.145,83
Banak. laguntzetan	42.405,73	49.796,98	51.805,20	52.434,02	56.951,03
Guztira	1.305.401,90	1.380.049,33	1.541.614,04	1.649.989,74	1.782.442,56

Kontseilu honek Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio jantokia ikastetxeetako ezinbesteko zerbitzutzat jo dezala, erabakigarria baita, kasu askotan, familiek ikastetxe bat aukeratzerakoan; halaber, kontseilu honek adierazten dio kudeaketa eta antolaketaren erantzukizuna gehiegizkoa dela borondatezko lanaren bidez estaltzeko, eta ikasleen gurasoen elkarrekin lan hori egiteko prest dauden pertsonak izan ditzakeela edo beharbada ez; hortaz, egungo araudia berrikustea iradokitzen dio.

7.3.2. Eskola-garraioa.

171. taula					
Eskola-garraioa, 1998-99 ikasturteratik 2002/2003ra					
	1998/99 ikasturtea	1999/00 ikasturtea	2000/01 ikasturtea	2001/02 ikasturtea	2002/03 ikasturtea
Garraioaren ibilbide-kopurua	274	274	280	281	291
Kontratututako autobus kopurua	268	275	292	280	280
Kontratututako taxien kopurua	39	39	38	43	50
Kostua guztira (eurotan)	5.945.563,91	6.214.036,30	6.577.196,63	7.912.160,17	8.250.328,19

Garraiatutako ikasleen kopurua					
Ikasturtea	98/99	99/00	00/01	01/02	02/03
Ikasleak guztira HH/LH/HB/DBH	9.268	8.893	8.393	8.249	8.636
Ikasleak guztira derrigorrezkoak ez direnetan	1.998	1.909	2.222	2.192	1.902
Garraiatutako ikasleak guztira	11.266	10.802	10.615	10.441	10.538

7.3.3. Eskola-egoitzak.

172. taula					
Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren mendeko egoitzak					
Ikasturtea	98/99	99/00	00/01	01/02	02/03
Egoitzen kopurua	5	4	3	2	1
Erabiltzaileen kopurua	91	62	50	20	14
Familien ekarpena. Batez bestekoa eurotan (urteko tasa ofizialak)	1.382,33	1.412,38	1436,42	1.502,53	1.547

Eskola-egoitzak hileko 154,70 euroko diru-kopurua eskatzen du (10 hileroko) eta honakoa da:

- Uharte: 14 ikasle.

173. taula			
Irakaskuntza publikoan 1991, 2001 eta 2003 urteen artean eskola-zerbitzuetan izandako gastuaren garapena (Milaka eguneko eurotan)			
	1991	2001	2003
Obrak eta ekipamenduak	7.453,53	26.594,78	10.216,39
Jantokia	1.058	1.541	1.782,44
Garraioa	2.686	6.576	8.250,32
Jardunbide gastuak ⁽¹⁾	Ez daukagu	8.402	Ez daukagu
Ikasle-kopurua guztira sare publikoan	61.928	49.094	53.199
Sare publikoko garraiatutako ikasleak	8.373	10.615	10.538
Publikoko ikasleak jantokian	Ez daukagu	4.517	5.245
Funtzionamendua/ikaslea gastua publikoan	Ez daukagu	171,14	Ez daukagu
Jantokia/ikasleak gastua publikoan	Ez daukagu	341,15	339,83
Garraioa/ikasleak gastua publikoan	320,79	619,50	782,91

(1) Ikastetxeetako jardunbide, jarduera, hornidura, material eta garbiketa gastuak sartzen dira.

174. taula			
Irakaskuntza publikoan 1991, 2001 eta 2003 urteen artean eskola-zerbitzuetan izandako gastuaren garapena			
(Milaka euro konstantetan)			
	1991	2001	2003
Obrak eta ekipamenduak	7.453,53	17.033,74	6.108,45
Jantokia	1.058	987	1.065,73
Garraioa	2.686	4.211,87	4.932,92
Jardunbide gastuak ⁽¹⁾	Ez daukagu	5.381,41	Ez daukagu
Ikasle-kopurua guztira sare publikoan	61.928	49.094	53.199
Sare publikoko garraiatutako ikasleak	8.373	10.615	10.538
Publikoko ikasleak jantokian	Ez daukagu	4.517	5.245
Funtzionamendua/ikasleak gastua publikoan	Ez daukagu	109,61	Ez daukagu
Jantokia/ikasleak gastua publikoan	Ez daukagu	218,50	203,18
Garraioa/ikasleak gastua publikoan	Ez daukagu	396,78	468,11

7.4. Herriaren Defendatzailearen jarduerak.

Herriaren Defendatzaileari bideratutako kexak.

2002 urtean, herritar nafarrek Hezkuntza eta Irakaskuntzari buruzko 28 kexa aurkeztu dizkiote Herriaren Defendatzaileari. Horietatik 25, Hezkuntza Departamentuan.

Kexatzeko arrazoi nagusiak hauek izan dira: 0-3 urtekoen ikastetxeetan plaza nahikoak ez izatea; hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen arreta, eta goi-mailako musika-ikasketen ezarpena. Ikasketetarako bekei edo laguntzei dagokienez, kexak izan dira deialdien informazio eta hedapen faltari buruz eta onetsitako laguntza ordaintzeko izandako atzerapenari buruz. Irakasleen balorazioari loturik hainbat kexa jaso dira, irakasle batzuen lan akademikoaz, baita ebaluazio-sistemaz ere. Itunpeko ikastetxeetako irakasleen lan baldintzak eta egoera ere kexatzeko gaia izan dira. Nafarroako Gobernua gai hau modu egokian jorratzen ari zela jo zen, kontuan hartuta itunpeko irakaskuntzaren arloko hezkuntza hobekuntzarako eta gizarte hobekuntzetarako 2000-12-22an izenpetutako oinarri akordioa.

Halaber, goi-mailako musika-ikasketen ezarpena ere konpondutzat jo zen, hain zuzen ere beharrezkoak diren instalazioak kokatzeko Iruñeko Udalarekin egindako akordioa eta 2002/003 ikasturtean ikasketa horiek ezartzeko Legea zirela medio (martxoaren 27ko 7/2002 Foru Legea, martxoaren 27koa, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak jartzeari buruzkoa eta "Pablo Sarasate" Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortzekoa. NAO, 43 zk., 02-4-8koa):

Jarduera horren ondorio gisa, gogorarazi zaizkion bi betebeharrak onetsi ditu Departamentuak: euskaraz erantzuteko eskaerari erantzunik ez eman izana, eta liberazio osoaz euskara ikastaro trinkoetan parte hartzeko onetsitako hautagaien zerrenda behin eta berriz baztertzearen kontra aurkeztutako gorako errekursoari ez erantzun izana.

Halaber, onetsi egin ditu iradokizun bat goi-mailako musika ikasketak egiteko laguntzei buruzko informazio eskasaz, eta gomendio bat eskola-garraiorako eta jantokirako laguntzei buruzkoa.

Departamentuk ez du onetsi gain-dohaina duen ikasle baten gastu arruntei buruzko iradokizuna, horrelako eskaerarik ez dagoelako, eta, halaber, ez du onetsi gela bitan banatzeari buruzko gomendio bat, lehen hezkuntzako 2. mailan egina, izan ere, bere iritziz, banaketa justifikatzen zuten eskola-atzerapen arrazoi garrantzitsuak zeuden.

8. HEZKUNTZA AURREKONTUAK.

Hezkuntza aurrekontuei buruzko araudia, 2002-03 ikasturtea
628/2002 Foru Agindua, abenduaren 11koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Nafarroako eskola kontzentrazioen herriburu diren toki entitateei, ikastetxe horien funtzionamendu gastuak finantzatu ahal izateko laguntza gisa, 2002ko irailetik abendura bitarteko dirulaguntzak ematen dizkiena (NAO, 20 zk., 03/02/14koa)
181/2003 Foru Agindua, apirilaren 28koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko irakaskuntza ez-derrigorrezkoen tarifak eta ikasleen egoitzetako prezioak finkatzen dituena (NAO, 60 zk., 03/05/14koa)
Erabakia, 2002ko uztailaren 3koa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeak hartua, erakunde autonomo horren menpeko Haur Eskoletan ordaindu beharreko tarifak aldatzen dituena. (NAO, 113 zk., 02/09/18koa).
488/2003 Ebazpena, otsailaren 7koa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta toki entitateen arteko hitzarmenei loturiko Eskolaurreko ikastetxeen tarifen araubidea 2003-2004 ikasturterako finkatzen duena. Aipatu hitzarmenak abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenaren bidez arautu ziren. (NAO, 67 zk., 03/05/28koa).

8.1. Aurrekontuaren garapena.

Aurrekontuaren garapenari buruzko araudia, 2002-03 ikasturtea
8/2003 Foru Legea, otsailaren 24koa. Honen bidez, hemezortzi kreditu berezi, guztira 6.487.105 euro egiten dutenak eta hiru kreditu gehikuntza, guztira 1.156.720 euro egiten dutenak, ematen zaizkie Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, Toki Administrazioeko Departamentuari, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, Osasun Departamentuari eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, eta aurrekontuetan eragina duten beste neurri batzuk hartzen dira, aurrekontuen diru urritasunari aurre egiteko. (NAO, 6 zk., 03/02/28koa)

175. taula					
Nafarroako Barne Produktu Gordinari buruzko informazio orokorra, 1998-2002					
Urtea	Nafarroako BPG (milaka euro)	Biztanleak	Per capita BPG NAFARROAN (euroak)	Per capita BPG ESPAINIAN (euroak)	Naf./Es. x 100
1998	8.999.222	530.819	16.931	13.382	126,5
1999	9.498.266	538.009	17.788	14.263	124,7
2000	10.340.459	543.757	19.255	15.261	126,2
2001 ⁽¹⁾	11.019.618	556.263	20.401	16.184	126,1
2002	11.778.530 €	569.628	21.691	17.114	126,7

Aurrezki Kutxen Fundaziotik eta INEtik hartutako datuak.

(1) Iturria: Nafarroako Memoria Ekonomikoa, 2001, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberarena.

176. taula							
Hezkuntzako gastua eta Espainiako BPGrekin duen harremana							
Urteak	Gastua guztira (1)		Gastu publikoa (2)		Gastua familiak (3)		BPG (4) Milioika euro
	Milioika euro	BPG %	Milioika euro	BPG %	Milioika euro	BPG %	
1993	23.093,2	6,0	18.810,3	4,9	4.734,2	1,2	381.747
1994	24.054,6	5,9	19.292,6	4,8	5.208,4	1,3	406.011
1995	25.818,9	5,9	20.608,6	4,7	5.697,0	1,3	437.787
1996	27.363,2	5,9	21.924,6	4,7	6.037,2	1,3	464.251
1997	28.737,9	5,8	22.785,3	4,6	6.438,0	1,3	494.140
1998	30.252,9	5,7	23.998,6	4,5	6.792,0	1,3	527.957
1999	32.377,5	5,7	25.668,4	4,5	7.165,6	1,3	565.483
2000	34.394,0,4	5,6	27.407,0	4,5	7.495,2	1,2	609.319
2001	36.457,1	5,6	⁽⁵⁾ 29.145,6	4,5	7.840,0	1,2	651.641
2002	38.547,4	5,6	⁽⁶⁾ 30.896,4	4,5	8.200,6	1,2	693.925


Iturria: Estatutuko Eskola Kontseilua: *Información sobre el estado y situación del sistema educativo, curso 2001/2001.*

- (1) Finkatutako gastua guztira (sektore publikoaren eta familien arteko transferentziak kenduta).
 (2) Administrazio publikoen multzo osoaren –unibertsitateak barne- Hezkuntzako gastuari dagokio (Aurrekontu kitatuak).
 (3) Iturria: Estadística Instituto Nacionala, 1998 urte arte. 1999tik aurrerako kopuruak.

- (4) Iturria: Estatistika Institutu Nazionala.
- (5) Behin-behineko datuak.
- (6) Hasierako aurrekontuetan oinarrituta balioetsitako zenbatekoa.

1995-1996 ikasturtetik aurrera, hezkuntzako gastu publikoa nabarmen igo zen, bai eguneko kopuruetan, baita prezio konstanteetan ere, nahiz eta ikasleen kopurua pixkanaka jaitsi izan. Guztira, azkeneko hamar urteetan, Erregimen Orokorreko irakaskuntzetako ikasleen kopurua jaitsi egin da %12,0, baina hezkuntzarako gastu publikoa %24,6 igo da kopuru errealetan.

Hezkuntzako gastu publikoen balioak prezio konstanteetan urte-arteko batez besteko inflazio-tasa erabiliz atara dira. 2002 urterako %3,6koa hartu da. Ekonomia Ministerioak erabilitako azken kopurua.



177. taula
Europako Batasuneko hezkuntza erakunde eta ikastetxeetako hezkuntza gastu publiko eta pribatua, BPGren %an adierazia, funtsen iturburuka.
1999 urtea

Esparrua	Gastu Publikoa ⁽¹⁾ BPG %	Gastu Pribatua ⁽²⁾ BPG %	Guztira
Alemania	4,3	1,2	5,6
Austria ⁽³⁾	6,0	0,3	6,3
Belgika	5,3	0,3	5,5
Danimarka ⁽³⁾	6,4	0,3	6,7
Espainia	4,4	0,9	5,3
Finlandia	5,7	0,1	5,8
Frantzia	5,8	0,4	6,2
Grezia ⁽³⁾	3,6	0,3	3,9
Holanda	4,3	0,4	4,7
Irlanda	4,1	0,4	4,6
Italia	4,4	0,4	4,8
Luxenburgo	---	---	---
Portugal ⁽³⁾	5,6	0,1	5,7
Erresuma Batua	4,4	0,7	5,2
Suedia	6,5	0,2	6,7

- (1) Hezkuntza erakundeei emandako familientzako diru-laguntza publikoak sartzten dira. Halaber, hor sartzten dira nazioartetik eratorritako gastu zuzenak, hezkuntza erakundeetara bideratuak.
- (2) Ez dira ikastetxeetarako diru-laguntza publikoak sartzten.
- (3) Familientzako diru-laguntza publikoak ez dira gastu publikoetan sartzten, gastu pribatuan baizik.

Iturria: *Informe sobre el estado y situación del sistema educativo, curso 2001-2002*, Estatuko Eskola Kontseiluak egina.

Espainiako hezkuntza gastu osoaren kopurua nabarmen handitu da 1998 urtearekin alderatuta (BPG %4,5); Espainia Europako Batasuneko herrialdeen artean erdi-aldean jarri da (8).

178. taula								
Hezkuntzako gastu publikoa, eskola-irakaskuntzak, autonomia erkidegoka								
	1.997 urtea (milaka euro)	1.998 urtea (milaka euro)	1.999 urtea (milaka euro)	2.000 urtea (milaka euro)	2.001 urtea (milaka euro)	2.002 urtea (milaka euro)	2002 ikasleria Erregimen Orokorra	Gastua/ikaslea 2002 urtea (eurotan)
Hezkuntza Ministerioa	5.356.478	5.430.475	4.126.579	2.761.745	1.220.534	⁽¹⁾ 658.651		
